
ONOMASTICON VASCONIAE

8


ANGEL MARIA ELORTEGI BILBAO

PASAIAKO TOPONIMIA



EUSKALTZAINDIA

1992



ONOMASTICON VASCONIAE



PASAIAKO UDALAREKIN KOEDIZIOZ ARGITARATUA



Onomastika batzordea: *Buru:* Endrike Knörr
Buruorde: Alfonso Irigoien
Idazkari: Jose Luis Lizundia
Kideak: Ricardo Cierbide
Jose Antonio Gonzalez Salazar
Mikel Gorrotxategi
Andres Iñigo
Jose Mari Jimeno Jurio
Jean Baptiste Orpustan
Patxi Salaberri
Juan San Martin
Jose M^a Satrustegi

© Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia
Plaza Barria, 15 — 48005 Bilbo
Tel.: 94-415 81 55 — Faxa: 94-415 81 44

Legezko Gordailua: Donostia: 931/91
I.S.B.N.: 84-85479-66-1

Mapen moldaketa: KARLAN — Astarloa, 4-4^o — 48001 Bilbo.

Fotokonposaketa eta inprimaketa: IZARBERRI, S.A. — Usurbil.

Eraketa: Enric Mir.

Ene gurasoei.
Eta Gemari.

AURKIBIDEA

Aurkezpena.....	11
SARRERA	15
1. Helburua	15
2. Bitartekoak.....	15
3. Teknika.....	16
4. Idaztarauak eta normalkuntza	18
5. Laburdurak	19
6. Artxiiboak eta bibliografia	20
7. Oharra	24

LEHEN PARTEA: BEREZITASUN GEOGRAFIKO-HISTORIKOAK

1. PASAIA	27
1. 1. Geografia fisikoa	27
<i>Kokapena</i>	27
<i>Hidrografia</i>	28
<i>Orografia</i>	28
<i>Eguraldia</i>	29
<i>Landaretza</i>	29
1. 2. Giza geografia.....	30
<i>Nekazaritza</i>	30
<i>Abeltzantza</i>	31
<i>Arrantza</i>	32
<i>Populazioa</i>	33
<i>Merkataritza eta Industrigintza</i>	35
1. 3. Berri historikoak	38
2. HIRIGUNEAK.....	42
San Pedro	42
San Juan.....	44
Antxo.....	46
Trintxerpe	47

3. EUSKAL ETA GASKOIN HIZKUNTZAK	49
--	----

BIGARREN PARTEA: TOPONIMIA

1. ARDANDEGIAK (BATELARI, TABERNARI ETA BESTE)	51
2. TOPONIMIA NAGUSIA	60
3. TOPONIMIA TIPIA ETA HIRI TOPONIMIA	60
4. TOPONIMOEN SAILKAPENA	188

HIRUGARREN PARTEA: INBENTARIO LINGUISTIKOA

1. FONETIKA	191
1. 1. <i>Bokalak</i>	191
1. 2. <i>Kontsonanteak</i>	193
2. ERATORPENA	194
3. LEXIKOA	196
ONDORIOAK	199
TOPONIMOEN AURKIBIDEA	201

MAPEN AURKIBIDEA

1. Pasaiaren kokapena	25
2. Pasaia. Udal barrutiak	26
3. Pasaia aldeko Ulia eta Jaizkibel mendien kanal eta itsasaldea	73
4. Pasaiako portualdea	105
4bis. Pasaiako portualdea (1760) (P. Crame)	121
5. Pasaia aldeko Jaizkibel mendiaren erdialdea	153
6. Pasaia aldeko Jaizkibel mendiaren ekialdea	185

AURKEZPENA

"...eta gizonak abere guztiei, eta zeruko hegazti guztiei eta basapizti guztiei izena eman zien..." (Genesis, 2, 20).

Gizakia natura ezagutzen eta menderatzen hasi zenetik, bere existentzia inguratzen zuen ezein izaki eta objekturi izen bat emateko premiazko beharra sentitu zuen, gainontzekoekiko komunikaziorako erreferentzi gisa.

Jarraian, objektu horiek espazioan kokatzen hasi zen, honetarako, erabe-rean, nahitaezkoa zen aipatu tokiei izen komun bat ematea.

Gaur egun toponimiak ez digu espazio horretaz bakarrik hitzegiten, kultura bat eta pentsamolde bat ulertarazten digu gainera, batzutan naturarekin loturikoa, eta bestetan, berriz, toki hura, gaur habitatzen dugun eta sozialki erlazionatzen gareneko herria, sortu zuten gizon eta emakumeen lanarekin loturikoa.

Herri bat ez da eraikuntza multzo bat soilik, toki komunen multzo bat ere bada, sarritan historiarekin edo eta behin baino gehiagotan ere kondairarekin erlazionaturiko tokien multzoa, alegia.

Ezin ahantz dezakegu, bestalde, beste herriek, erromatarrak, arabeak, gaztelauak eta gaskoiak gure kasuan, mendeetan zehar gure artean utzitako aztarna kulturalen aurkikuntzan toponimiak aportatu duena.

Dena den, Angel Mari Elortegik buruturiko lanaren balore garrantzitsuenetariko bat, gure toponimiak gure nazio hizkuntzarekin duen loturaren berraurkikuntza da, gure baserri, mendi, bide etabarren izenen eta euskararen aberastasun linguistikoaren artean elkarrenganako aportazioa frogatzen duena, haiekin eta bere monemekin era miresgarri eta erakusgarrian jokatuz; berori dela eta, lerro hauen bidez Pasaiaiko herriak egilearekin duen zorraz konstantzia utzi nahi nuke.

Guzti honegatik, Pasaiaiko Udaleko Alkate-buru naizen aldetik, Euskaltzaindiaren laguntzaz liburu hau argitaratzea neurrigabeko atsegina niretzat, ziur bait nago gure herria eta gure hizkuntza sakonkiago ezagutzen lagundu eta, beraz, biak gure izakeraren eta identitate zeinuen funtsezko zati izaten jarrai dezaten lortzeko lanean jarraitzeko laguntza emango digula.

XABIER PORTUGAL ARTEAGA
Pasaiaiko Udaleko Alkate burua

PRESENTACIÓN

“...Y dio el hombre nombre a todos los ganados, y a todas las aves del cielo, y a todas la bestias del campo...” (Génesis, 2, 20).

Desde que el ser humano comenzó a conocer y a dominar la naturaleza, sintió la imperiosa necesidad de dar un nombre a los objetos y a toda clase de seres que rodeaban su existencia, como referencia en su comunicación con los demás.

Acto seguido, comenzó a situar esos mismos objetos en el espacio, para lo cual se hacía imprescindible asimismo dar una denominación común a dichos lugares.

Hoy la toponimia no nos habla tan sólo de ese espacio sino también nos hace comprensibles una cultura y una mentalidad, ligada a veces con la naturaleza y otras con el trabajo propio de aquellos hombres y mujeres que crearon el lugar, el pueblo, donde hoy habitamos y nos relacionamos socialmente.

Un pueblo no es tan sólo un conjunto de edificios, lo es también de unos lugares comunes, relacionados a menudo con la historia y más de una vez también con la leyenda.

No podemos olvidar, por otra parte, la aportación de la toponimia como descubrimiento de las huellas culturales que otros pueblos, romanos, árabes, castellanos y gascones en nuestro caso, han dejado entre nosotros a través de los siglos.

No obstante, uno de los valores más trascendentales del trabajo de Angel Mari Elortegi, y por lo que desde estas líneas deseo dejar constancia de la deuda que el pueblo de Pasaia principalmente contrae con su autor, es el redescubrimiento de la ligazón de nuestra toponimia con nuestra lengua nacional, como prueba de la aportación mutua entre los nombres de nuestros caseríos, montes, caminos, etc. y la riqueza lingüística del euskara, que juega con ellos y con sus monemas de forma admirable y aleccionadora.

Es por todo ello que, como Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Pasaia, me cabe la enorme satisfacción de colaborar con Euskaltzaindia en la edición de este libro que sin duda nos ayudará a todos a conocer mejor nuestro pueblo y nuestra lengua y por tanto a seguir trabajando para que ambos sigan formando parte sustancial de nuestra personalidad y de nuestras señas de identidad.

XABIER PORTUGAL ARTEAGA
Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Pasaia

SARRERA

Itsasoari begira bizi izan den herri honek badu halako erakargarritasuna bere historia apur bat ezagutzen duen edonorentzat. Oiarsoko portua zen honetan euskal eta gaskoin jatorrikoek *el Pasaje* izena damaiote bizi diren tokiari, kanalaren bi aldeetatik. Aspaldi zahar haren xehetasunetan aurrera egitea interesgarria gertatuko zelakoan, eta areago aintzinate hori nork bere herrikoa duenean, ekin genion lanari.

1. HELBURUA

Helburu apala gurea —hizkuntz auzitarako baliagarri gertatuko ahal da—, hots, Pasaiaiko toponimo bilduma ahalik eta zabalena egitea, egungo toponimoak —beren aldaera zahar eta guzti, ahal dela— eta soil soilik dokumentu zaharretan aurki daitezkeenak jasoaz. Hala gertatuko balitz burututzat joko genuke geure asmoa, gerora egin litekeen azterketari probetxagarri gerta lekioken materiala jaso eta aportatu dugulakoan.

2. BITARTEKOAK

Toponimi materialaren pilaketarako bi iturri erabili ditugu: idatzi eta ahozkoa.

2.1. Idatzizkoa:

a. *Oñatiko Protokolo Artxiboa*. Hemen, *Pasaiaiko hipoteka-kontaduria liburua*k, *Transmisioak* eta bere *Eskribaniak* ikusi dira oso osorik. Donostia

nahiz Errenteriako zenbait *Eskribania* ere ikusi dugu Pasaiarekin zer ikusirik zutelako. XVII, XVIII eta XIX. mendeetako toponimoak dira.

b. *Artxibo Munizipalak*. Pasaiakoa eta, neurri txikiagoan, Donostia, Hondarribia eta Errenteriakoa. Bertan jaso ditugu toponimorik zaharrenak: XIV, XV eta XVI. ekoak.

c. *Eliz Artxiboak*. Gehienbat San Pedro eta San Juango *bataio eta ezkontza liburuak*. Toponimo gutxi agertu zaigu eta haiek XVI. ekoak.

d. *Donostiako Jabego Erregistroa*. Pasaiako liburuak. XVIII, XIX eta XX. mendeetako toponimoak.

e. *Itsasuntzi Museoren Artxiboa (Madril)*. Hemen, *Vargas Ponceren dokumentu bilduma* interesatu zaigu. Toponimiari dagokionez, balio urrikoa.

2.2. Ahozkoa.

Bertakoak diren zenbait biztanleri ahozko eta zuzeneko inkesta pertsonalak eginez. Hauetxek dira inkestatuak:

SAN PEDRO

Felix Arrieta Lizarribar jauna, 79 urte, industrial
 Genoveva Azkue Agirre andrea, 64 urte, baserritarra
 Bixente Etxeberria Ormazabal jauna, 89 urte, arrantzalea
 Eusebia Isasa Etxebeste andrea, 84 urte, dendaria (†91-4-23)
 Valentín Olasagasti Lizaso jauna, 69 urte, saregilea
 Esteban Ulazia Badiola jauna, 63 urte, arrantzalea
 Hermenegildo Urzelaieta Etxeberria jauna, 84 urte, arrantzalea

SAN JUAN

José Joaquín Azkue Agirre jauna, 63 urte, baserritarra (†88-4-6)
 José Ignacio Azkue Zuloaga jauna, 30 urte, artzaina
 Francisco Garmendia Irarzabal jauna, 75 urte, langilea
 Teodoro Laboa San Miguel jauna, 86 urte, armadorea
 Gaspar Legorburu Etxebeste jauna, 65 urte, baserritarra
 Iñaki Lopetegi Agirre jauna, 58 urte, saregilea
 Juanita Oskila Korta andrea, 76 urte, saregilea

3. TEKNIKA

Gure esku egon diren idatzizko iturrietan Pasaiari zegozkion toponimo guztiak jasotzera jo dugu lehenik. Material hau eskuan, inkesta pertsonalei ekin diegu helburu hauekin:

1. Dokumentu bidez eskuratutako toponimoetatik egun indarrean zeintzu dauden eta izandako aldaketak zein diren ikusi.

2. Ikusitako dokumentuetan azaltzen ez diren toponimo berriak (eta ez dira gutxi horratik halakoak) ezagutu.

3. Eskuarlean ditugun toponimoei buruzko ahalik eta daturik gehien jaso, kokapena, lurraren zer-nolakoa eta abar, alegia, parajearen eta toponimoaren arteko erlazio semantikoa argitze aldera.

4. Gordetzen diren toponimoen ebakera jaso. Hartarako, ahozko tradizioz jasotako toponimoen transkribaketa fonetikoa ematen da. Azentuarena den bezalako gai gaitzean, grabazioaren bidez hartutako toponimoek gure ustez hartzen zuten azentua jartzera mugatu gara. Halakoetan, azentu bakarra hartzen genien toponimoak badira, asko eta askori bi, bai eta hiru ere bakarren bati, hartzen genielarik. Azken hauetan, gure ustez azentu nagusia zuenari / bezalako zeinua, eta bigarren mailakoari, berriz, \ bezalako, jarri dizkiegu. Toponimo bat, kate fonikoaren arabera edo, noiz bakarreko, noiz biko azaltzen zela uste izan dugunetan, eta uste ere hala uste izan dugu maiz askotan, bi modutara jarri dugu.

5. Mapetan jarri gogoan diren toponimoak eta gogoan ez diren baina dokumenturen bidez hura posible egiten duten toponimoak ere bai.

Edadeko pertsonak aukeratu ditugu hartarako, informazioa seguruagoa izango zelakoan. Zenbait kasutan tokian tokiko identifikatzea egin dugu mendi buelta eginez ahal zuen informatzailearekin. Kasu konkretu batean lagun bat baino gehiago bildu dugu mahaiaren jiran, informazioa ahalik eta zehatzen eta kontrastatuena izan zedin.

Erabili dugun toponimi fitxaren ereduak:

TOPONIMOA (*Mapa*)

DOK.:

HERR. EBAK.:

OHARR.:

DESK.:

OHAR LING.:

Izena mapetan identifikatuz gero, lanean zenbatgarren mapan doan esaten dugu. Mapok, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako U. T. M. proiektiozko 1:5.000 eskalako altxaketetan oinarrituak dira, orrialdearen goikaldean beren iparraldea dutela.

DOKUMENTAZIOA (DOK.). Hemen, dokumentuetan azaldutako toponimoen dokumentazioaren berri ematen dugu.

HERRI EBAKERA (HERR. EBAK.). Egun informatzaileek darabiltzaten toponimoen ebakera ematen da transkripzio fonetikoaren bidez.

DESKRIPZIOA (DESK.). Egungo toponimoen nahiz lokalizatutako zaharren deskripzio zehatza eman: terrenoaren nolakoa eta bestelako zehaztasunak. Mapetan kokatu.

OHARRAK (OHARR.). Zenbait kasutan ezinezkoa izan da toponimoak zehatz-mehatz lokalizatzea. Dokumentazioak kokapenari buruzko informazioa eman edota kokatzeko halako biderik eskaini baleza, atal honetan sartuko genuke.

OHAR LINGUISTIKOAK (OHAR LING.). Euskal toponimoen komentariorako MITXELENAREN lanaz baliatuko gara gehienbat¹. Erromantze etimologiarako, COROMINAS². Gaskoin jatorriko toponimoetarako, V. LESPY³, S. PALAY⁴, P. RAYMOND⁵ eta G. ROHLFSEN⁶ lanak erabiliko ditugu.

4. IDAZTARAUAK ETA NORMALKUNTZA

Hona hemen bai toponimoak azaltzeko, bai beren mapetako normalkuntzarako erabili ditugun irizpideak⁷:

1. Toponimoa euskalduna bada, alegia euskaraz erabili bada, euskal grafiaz idatzi dugu.

2. Toponimoa beste jatorrikoa izan eta haren euskarazko erabilpena dokumentatuta ez badago, bere horretan utzi da. Artikuluz hasten bada, *La Herre-ria*, ez dugu *l*-ren barruan sailkatu, baizik eta *Herreria*, *La* bezala *h*-n sartu dugu.

3. Gaur egun ezagutzen ez direlako, mapetan ezin kokatu diren toponimoen aldaera ezberdinen artean, gehienetan aldaera zaharrena jarri dugu fitxaburu, eta 4. puntuan ikusten diren irizpideak jarraitu dira hemen ere, orohar.

4. Mapetako toponimoen normalkuntzarako, eta Euskaltzaindiak hari buruzko behin betiko idaztarauak eman bitartean, honako hauek ibili ditugu beti ere tokian tokiko euskara errespetatu nahian:

1. MICHELENA, L.: *Apellidos Vascos*, 3. argitarapena, San Sebastián 1973. *Fonética histórica vasca*, 2. argitarapena, San Sebastián 1977.
2. COROMINAS, J.: *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana*, Madrid 1984. urtetik.
3. LESPY, V. eta RAYMOND, P.: *Dictionnaire Béarnais Ancien et Moderne*, Montpellier 1887. Repr. Statkine, Genève 1970.
4. PALAY, S.: *Dictionnaire du Béarnais et du Gascon modernes*, 3. argitarapen osatua, Paris 1980.
5. RAYMOND, P.: *Dictionnaire Topographique. Bearn. Pays Basque*, Paris 1863, Repr. Saint-Jean-de-Luz 1983.
6. ROHLFS, G.: *Le Gascon. Etudes de philologie pyrénéenne*, Pau 1977.
7. Hemen, orohar, PATXI SALABERRI irakasleak prestatuturiko eta xerokopia sistemaren bidez zabalduriko *Toponimiarako Idaztarauak* izeneko txostenari jarraitu zaio.

a) Euskal toponimoa izen + izenondoaz osatua dagoenean loturik idatzi dugu: *Menditxiki*.

b) Toponimoetan ez dugu *h*-rik idatzi: *Errotazar*.

c) Espezifikoa deklinabide morfemaren batez horniturik dagoenean bereiz idatzi ditugu espezifikoa eta generikoa: *Ondartxoko erreka*.

d) Bestela, deklinabide atzizkirik ez azaltzekotan, loturik idatziko ditugu: *Migelmendi*.

e) Sabaikarikuntza erakusten zuten toponimoak bere horretan utzi ditugu, baldin eta palatalizatu gabeko aldaerarik dokumentaturik ez bazen. Esate baterako, *Iturrizarra* aldaera jaso dugu ahozko tradizioz, dokumentatu, berriz, *Iturrizarra* dokumentatzen dugu XIX. menderako. Halakoetan, palatalizatu gabeko aldaeren alde egin dugu.

f) [ŋ] eta [ʎ] soinuak ñ eta ll idatzi ditugu: *Kalpargaña*.

g) Txistukariekin izan dugu gorabehera bat baino gehiago. Esaterako, dokumentatuta dugu *Alaborza* (1708), ahozko tradizioz, berriz, *Alabortza*; hala-koetan, dokumentu bidez nahiz ahozko tradizioz alegia, eta inola ere ez bestetan, dokumentazioa argia bada eta lekuan lekuko ebakera kontutan harturik, *n*, *l*, (eta *r*)-ren ondoko txistukari frikariak afrikatuz eman ditugu: *Alabortza*.

h) Toponimoa mapetan jartzerakoan, kontutan hartu dira forma zaharrak eta egun erabiltzen direnak. Gaurkoetatik zaharretarako saltoa haunditxoa zenean, egungo *Kalparra*-tik 1680an dokumentatzen den *Galfarra*-ra, esaterako, forma biziak hobetsi ditugu. Besteetan, *Akerregi* (1788) eta egungo *Akerrei*-ren artean kasu, forma zaharra hartu da.

i) *Fuertia*, *Senokozulua*-eta bezalako fonetismoak *Fuerte*a, *Senokozuloo*a bezala jaso ditugu mapetan, ebakera horiek jasoak direlarik edonola ere lanean.

5. LABURDURAK

Ahoz. Trad.: Ahozko Tradizioa.

Amil.: PAM.: Rustika Negoziatua. Amilaramendu eranskinak.

DAM.: Donostiako Artxibo Munizipala.

DESK.: Deskribapena.

DJE.: Donostiako Jabego Erregistroa.

DOK.: Dokumentazioa.

Donost. Pro.: OPA.: Donostiako Notari Barrutiko Protokoloak. Donostiako Eskribaniak.

E.: Ekialdea.

EA.: Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa. Parrokia liburuak.

EAM.: Errenteriako Artxibo Munizipala.
 Erreg.: DJE.: Donostiako Jabego Erregistroa. Pasaiaiko Udala.
 Errent. Pro.: OPA.: Donostiako Notari Barrutiko Protokoloak. Errenteriako Eskribaniak.
 Exp.: Expedientea.
 H.: Hegoaldea.
 Herr. Ebak.: Egungo herri ebakera.
 HAM.: Hondarribiko Artxibo Munizipala.
 HE.: Hegoekialdea.
 HM.: Hegomendebaldea.
 I.: Iparraldea.
 IE.: Iparrekialdea.
 IM.: Iparmendebaldea.
 IMA.: Itsasuntzi Museoaren Artxiboa. Vargas Ponceren dokumentu bilduma. Madril.
 Leg.: Legajoa.
 Libur.: Liburua.
 M.: Mendebaldea.
 Negoz.: Negoziatua.
 OHAR LING.: Ohar Linguistikoak.
 OHARR.: Oharrak.
 OPA.: Oñatiko Protokolo Artxiboa.
 or.: orrialdea.
 or. a.: orri aurkia.
 or. g.: orri ginberra.
 or. gabe: orri zenbakirik gabekoa.
 orr.: orrialdeak.
 PAM.: Pasaiaiko Artxibo Munizipala.
 Parr. Libur.: EA.: Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa. Parrokia liburuak. Pasaiaiko parrokia liburuak.
 Pas. Kont.: OPA.: Hipoteka Kontaduriak. Pasaiaiko hipoteka-kontaduria liburuak.
 Pas. Pro.: OPA.: Donostiako Notari Barrutiko Protokoloak. Pasaiaiko Eskribaniak.
 Pas. Trans.: OPA.: Donostiako Barruti Judizialaren hipoteka liburuak. Transmisioak. Pasaia.
 Piez.: Pieza.
 RAH.: Real Academia de la Historia.
 Sail.: Saila.
 Sekz.: Sekzioa.
 Tom.: Tomoa.
 zenb.: zenbakia.

6. ARTXIBOAK ETA BIBLIOGRAFIA

Elizbarrutiko Artxiboa. Donostia.
 Protokolo Artxiboa. Oñati.

Jabego Erregistroa. Donostia.

Artxibo Municipalak. Pasaia, Donostia, Hondarribia, Errenteria.

Itsasuntzi Museoaren Artxiboa. Madril.

ARRAZOLA, María Asunción: *Erromanikoa Gipuzkoan*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, 1978.

AZCONA, Tarsicio de: *Capuchinos en Rentería*, San Sebastián 1983. *Un pleito perdido por San Sebastián (1623-1627)*, San Sebastián 1978.

AZKUE, Resurrección María: *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbao 1905. Reprint, Bilbao 1984.

BARANDIARAN, Felipe: *La Comunidad de Pescadores de Bajura de Pasajes de San Juan*, Oiartzun, egilea editore, 1982.

BERGANTON, Marcel-François: *Le dérivé du nom individuel au moyen âge en Béarn et en Bigorre*, Paris 1977.

CAMINO, Joaquín Antonio: *Historia civil-diplomático-eclesiástica de San Sebastián*, 4. argitarapena, San Sebastián 1963.

CARO BAROJA, Julio: *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca 1946.

CIERBIDE, Ricardo: "Documentación gascona de San Sebastián y de la Baja Navarra de los siglos XIII-XIV: Comentario Lingüístico", in *Donostiako V Udako Ikastaroak: Pirenaico Navarro-Aragonés, Gascón y Euskera*, Bilbao 1987. "Toponimia de la comarca de La Oliva", in *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra XVII-XVIII*, Pamplona 1985-1986, GRACILIANO HERREROREkin elkar lanean.

COROMINAS, Joan: *Diccionario Crítico Etimológico de la Lengua Castellana*, Madrid 1984. urtetik.

CRAME, Phelipe: *Plano de la Ría y Puerto de los Pasages y de las poblaciones situadas en su costa según se hallaban en el año de 1760*, 1760.

CRUZ MUNDET, José Ramón: "San Pedro. Introducción Histórica", Pasaiaiko Udala burutzen ari den *Plan Partziala*-ren eranskina.

DIRECCION DE HIDROGRAFIA: *Plano del Puerto de Pasages*, Madrid 1874.

ELEIZALDE, Luis de: "Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas", in *RIEV* (1922-1923; 1927-1936); *BRSVAP* (1963-1964).

Enciclopedia Universal Ilustrada Europeo-Americana Espasa, Barcelona 1923.

FER, N. de: *Plan du port de Passage, en Espagne, située dans la Province de Biscaye, sur L'Océan entre Fontarabie et St. Sebastien*, 1705.

GAMON, Juan Ignacio: *Noticias históricas de Rentería, prólogo y notas de Serapio Múgica*, San Sebastián 1930.

GANDOLFO, TEIXEIRA ALBORNOZ Y SOTTO: *Puerto de Pasajes según el hasta ahora inédito plano que confeccionaron en 1636 los ingenieros militares Gandolfo, Teixeira Albornoiz y Sotto*, 1636.

GAVEL, H.: "Note sur d'anciennes colonies gasconnes en pays basque", in *Revista Internacional de Estudios Vascos IX*, San Sebastián 1918. "A propos

des Gascons en Guipúzcoa”, in *Revista Internacional de Estudios Vascos* XVI, San Sebastián 1925.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: *Registro de Explotaciones Ganaderas de Pasaia*, 1989.

GOÑI GAZTAMBIDE, José: “Fundación de la iglesia de San Pedro de Pasajes (1457-1458)”, in *Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián* II, 1968.

GOROSABEL, Pablo de: *Diccionario Histórico-Geográfico-Descriptivo de los Pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa con un apéndice de las cartas pueblas y otros documentos importantes*, Tolosa 1862.

HUGO, Victor: *Fragmento de LES PYRENEES de Victor Hugo*, Parisen inprimatutako *En voyage.-Alpes et Pyrénées* argitarapenetik hartua, Nueva Editorial S. A., San Sebastián, dat. gabea.

HUMBOLDT, G. de: “Los Vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801”, in *Revista Internacional de Estudios Vascos* XV, 1924.

IMAZ, José Manuel: “La peste en Pasajes”, in *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* II, 1946.

INSTITUTO HIDROGRAFICO DE LA MARINA: *Del Río Bidasoa a Guetaria según los levantamientos efectuados por la Comisión Hidrográfica en los años 1898-1899*, Cadiz 1960.

IRIGOYEN, Alfonso: *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Bilbao 1986. “Observaciones fonéticas y morfológicas a las hablas vascas de los marineros encuestados en la costa vizcaina y guipuzcoana”, *De re philologica linguae uasconicae* II, Bilbao 1987. “Izen geografikoak”, in *Euskera* XXXIII: 2, Bilbo 1988. *Sobre Toponimia del País Vasco Norpirenaico*, Bilbao 1990. *Miscellanea toponymica et Anthroponymica*, 1991ko apirilaren 8, Bilbao, xerokopia sistemaren bidez eskuratutako lana. *La lengua vasca en relación con la Antroponimia y otras cuestiones medievales*, Servicio editorial Universidad del País Vasco, 1983. “Sobre los Topónimos Oca y su entorno”, *Symbolae Ludovico Mitxelena septvagenario oblatae*, Vitoria 1985.

IRIZAR, Pedro de: *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*. 2 Tomo. San Sebastián 1981.

ISASTI, Lope de: *Compendio historial de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*, San Sebastián 1850.

ITURRIOZ, Fermín: *Pasajes (Resumen Histórico)*, San Sebastián 1952.

IZARO, Tristán de: “Antecedente histórico de Pasajes”, in *Pasajes y la industria guipuzcoana*, San Sebastián, dat. gabea.

JIMENO JURIO, José María: “Encuesta toponomástica”, in *Euskera* XXXIII: 1, Bilbo 1988. *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, Euskaltzaindia, Onomasticon Vasconiae I, Bilbao 1986. *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza*, Euskaltzaindia, Onomasticon Vasconiae III, Bilbao 1989. *Toponimia histórico-etnográfica de Tafalla*, Eusko Ikaskuntza, Hizkuntza eta Literatura IX, San Sebastián 1989.

LEKUONA, Manuel de: "Del Oyarzun Antiguo", *Obras Completas de D. Manuel de Lekuona* lanaren separata, Vitoria, dat. gabea.

LESPY V. eta RAYMOND P.: *Dictionnaire Béarnais Ancien et Moderne*, Montpellier 1887. Reprint, Genève, Statkine, 1970.

MADOZ, Pascual: *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España*. XII. Tom., Madrid 1849.

MICHELENA, Luis: "Algunos nombres de Contrasta", in *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* XIX: 2, Donostia 1985. *Apellidos vascos*, 3. argitarapena, San Sebastián 1973. "En torno a algunos aspectos del habla de Rentería (Guipúzcoa)", in *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* VI: 1, 1950. *Fonética histórica vasca*, 2. argitarapena, San Sebastián 1977. "Guipúzcoa en la época romana", in *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* XII, 1956. *Sobre historia de la lengua vasca*. 2 Tomo. Donostia 1988.

MUGICA, José: "Los Gascones en Guipúzcoa", in *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* XXIII, 1967ko separata.

MUGICA, Placido: *Diccionario Vasco-Castellano*. 2 Tomo. Bilbao 1981.

MUGICA, Serapio: *Geografía General del País Vasco Navarro. Provincia de Guipúzcoa*, Francisco Carreras y Candi-k zuzendutako lana, Barcelona 1911-1925. "Orígenes de San Sebastián", *RIEV* 28, 1936. "El Obispado de Bayona", *RIEV* 8, 1914-17. Bi lan hauek *Estudios sobre San Sebastián*, San Sebastián 1980, liburuan daude jasoak. "Las bateleras de Pasajes", in *Euskalerriaren Alde*, II: 2, 1912. "Los Gascones en Guipúzcoa", in *Homenaje a Carmelo de Echegaray*, San Sebastián 1928.

Nomenclátor de la provincia de Guipúzcoa, 1857. urteaz geroztikoa.

OLAECHEA, Juan B.: "Seis siglos de litigios sobre el dominio del Puerto de Pasajes", in *Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián* IX, 1975.

OTAZU, Alfonso: "El cantar de Bretaña", in *Fontes Linguae Vasconum* XIX, 1975.

PALAY, Simin: *Dictionnaire du Béarnais et du Gascon modernes*, 3. argitarapen osatua, Paris 1980.

PASAIKO UDALA: *Pasajes. Memoria. Años 1953-1955*, Pasaia 1955. *Hirigintz planarentzako diagnostiko-informazioa. Arau ordezkatzailak*. 1. Pasaia, 1983.

RAYMOND, Paul: *Dictionnaire Topographique. Bearn. Pays Basque*, Paris 1863. Reprint, Ama-Lur, Saint-Jean-de-Luz 1983.

REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA: *Diccionario Geográfico-Histórico de España, sección I, comprende el Reyno de Navarra, Señorío de Vizcaya y Provincias de Alava y Guipúzcoa*, II. Tom., Madrid 1802.

ROHLFS, Gerhard: *Le Gascon. Etudes de philologie pyrénéenne*, Pau 1977.

SAN MARTIN, Juan: "Jaizkibel mendiko izen zahar batzuk", in *Euskera* XXXIII: 1, 1988.

SEOANE Y FERRER, Ramón: *Navegantes guipuzcoanos*, Madrid 1908. "Pasajes en 1617", *Euskal-Erria* XXXVII, 1897.

SUSTETA, J.: "Un testimonio gráfico naval", *Euskaldunak-La Etnia Vasca*, I. Tom., San Sebastián 1978.

TALDE: *Pasaia. Ikerketa Sozioekonomikoa*, 1983.

TOFIÑO, Vicente: *Plano del puerto de Pasages situada su Embocadura. Levantado por el Brigadier de la Real Armada, D. Vicente Tofiño de S. Miguel, Director de las Academias de Guardias Marinas*, 1788.

TXILLARDEGI: *Euskal Fonologia*, Donostia 1980.

VILLASANTE, Luis: *Historia de la Literatura Vasca*, 2. argitarapena, Oñati, Aranzazu argitaletxea, 1979.

YARZA, Carlos: *Pasajes Ancho*, San Sebastián 1974.

7. OHARRA


Egun, Pasaiaiko herria hiru udal barrutiz dago osatuta: Pasai San Pedro, Pasai Donibane eta Pasai Antxo. Egokiago iruditu zaigu, lanean, egungo egoerari dagozkion datuak salbu, *San Juan* izena erabiltzea, erabilitako dokumentuekin hobetoxeago zetorrelakoan. Bestalde, gaur Trintxerpe auzoan kokatuko liratekeen toponimoak Pasai San Pedroko toponimoen artean sartu ditugu, haiek azaltzen diren garaiekiko begirunea gordetzeagatik.

Azkenik, eskerrak eman beharreen nago lan hau burutzen lagundu didaten guztiei. Eskerrak, erabili behar genituen mapak utzi dizkigun Gipuzkoako Foru Aldundiari eta horrexetarako erraztasun guztiak eman dizkigun José María Aranburu jaunari. Eskerrak, halaber, Oñatiko Protokolo Artxiboko ardura-duna den Inmaculada González andreari egin ohi digun harrera goxoagatik. Esker mila ere Pasaiaiko artxiboko arduraduna den José Ramón Cruz Mundet lagunari eskeini didan laguntza oparoagatik. Eskerrak era berean Ricardo Ciérbide eta Alfonso Irigoien irakasleei lana oso nezan egin dizkidaten oharrengatik nola azaldu duten jarrera xaloagatik. José María Jimeno Jurío jaunari, liburu hau zordun zaiolako neurri haundi batean. Eskerrik asko etxeko atea irekita laguntza ordainezina eman didan Patxi Salaberri irakasle nafar eta honez gero ustez adiskide ere badudanari, harenak ere baitira lanean diren zenbait ohar zuzen, okerrekoak neroni baitagozkit. Eskerrak baita ere, nola ez, argitaratzearen ardura horren prestu beren gain hartu duten Pasaiaiko alkate den Xabier Portugal eta Euskaltzaindiko Onomastika batzordearen buru den Endrike Knörr jaunei. Eskerrak, bukatzeko, gogoan ditudan eta era askotara lagundu didaten auzo eta lagun guztiei.

1. Mapa: PASAIAREN KOKAPENA



2. Mapa: PASAIA. UDAL BARRUTIAK



LEHEN PARTEA

BEREZITASUN GEOGRAFIKO-HISTORIKOAK

1. PASAIA

1.1. GEOGRAFIA FISIKOA

Kokapena. Pasaia herriak, Gipuzkoako itsas ertzean, Kantauri itsasoa du muga iparraldean; ekialdean, berriz, Hondarribia, Lezo eta Errenteria; Alzako herria, egun Donostiako auzoa, mugakide zaio hegoaldean, eta Donostia, azkenik, mendebaldean.

Bizkaiko Golkoaren barrualdean eratzen den trianguluaren muturrean aurkitzen da Pasaia portua, 1.200 metrotako luzera eta 100-200 metrotako zabalera dituen kanal batez itsasora ematen duen fiordoa bera.

Terrenoa menditsua da, Antxo eta Herrera aldekoa izan ezik, erreka eta itsaspe bait ziren oraindik asko ez dela. Izan ere, Industrializazioaren hastapenetan hasiera eman zitzaion prozesu batez kai, dike eta errepede bihurtu ziren plaia eta erreka zirenak. Atzera jo behar izan zuen itsasoak XIX garren mendean. Honela, Salinas aldeko errekek nahiz Herrera, Antxo eta Molinaokoak desagertzen dira, draga lana dela medio.

Menditsua genioen, Ulia eta Jaizkibel mendiek beren oinetan baitaukate portua, haietxen babesean sortua delarik.

Hiriguneak bata bestearengandik bereiz aurkitzen dira badiaren jiran, askotan itsasoz bidez baino motzagoa izanik egin beharreko traiektua: San Pedro

eta San Juan, kanalburuan, aurrez aurre: San Pedro, Ulia mendiaren hegoekialdean; San Juan, Jaizkibel mendiaren hegomendebaldean; Pasai Antxo, hegoaldean, portuaren barrukaldean, eta Trintxerpe, portuaren mendebaldean, Uliaren hegoaldean aurkitzen delarik.

Hidrografia. Pasaiako erreka ez dira, orohar, haundiak. Antxoko Molinao erreka dugu haundiena; gainontzeko guztiak udara partean gogotik eskasten dira. Azkeneko hauek Ulia eta Jaizkibel mendian dira. Hauetatik lauk badiara jotzen dute, gainerako hamarrek, itsasora. Mendiota erreka hauek nekazal luraren ehuneko 0,01a dira, 0,1240 hektarea, hain juxtu ere⁸.

Bestetik, orain batzu desagertu badira ere, eta besteak erabili ez, 1953. urtean bost ziren Pasaian ziren ikuztegiak, eta hainbat Jaizkibelgo askak⁹. Putzuek, berriz, 0,0053 hektarea osatzen dute¹⁰.

Portu nahiz kanaleko urek okupatzen duten superfiziea 1.000.000 metro karratutakoa da, mareen batzbestekoa kontutan harturik: Pasaiak daukan guztizko superfiziearen ehuneko hamarra, gutxi gora-behera¹¹. Azken urteotan egin diren kaiek gutxiagotu egingo lukete zertxobait superfizie hau.

Orografia. Esan bezala, menditsua dugu terrenoa, badiaren hegoaldean izan ezik. Bai kanal aldean eta bai itsaso aldean ere, malkartsua da oso. Jaizkibel mendiaren iparrekialdean malkar gaiztoak aukitzen dira, hegoaldera zertxobait leuntzen direlarik. Ulia mendiaren iparrekialdea ere oso da aldapatsua, nahiz eta Jaizkibelekoa bezainbestekoa ez den. Jaizkibelen 530 metrotako kotak har ditzakegu, Ulia mendian, berriz, 210 metrotakoak.

Bai bata, bai besteak kanalera zein itsasora ematen dute; kanalaren ahoan bi haitz muturrek, goitik behera, ezker eskubi, estutu eta bihurritu egiten dute sarbidea. San Pedro aldetik joaz, beti ere kanalean barrena, Uliako bi mendi magalek ikutzen dute portua, erdian bi senada eta hiru agergune sortuaz, itsas ertzean. San Juan aldetik, Jaizkibelpean, senada bat eta Santa Isabel gazteluaren lur-mutur edo agergunea.

Portua zabalduz batera, orografia suabeagoa egiten da hiriguneak hasten direlarik. Pasaiako auzo zaharrak mendiaren eta itsasoaren artean daude erai-kiak luze, gero eta itsasoari leku gehiago kentzen zaiola eraikitzeko erabilgariak litezkeen terreneoen faltaz.

Nekazal eraikuntzetarako terrenearen berezitasuna dela eta, malda latzetako lur sailik asko aurkitzen dugu (ehuneko hamabosta baino pendiente haundiagokoak).

8. PASAIAKO UDALA: *Hirigintz planarentzako diagnostiko-informazioa. Arau ordezkatzailak. 1. Pasaia*, 1983, or. gabe.
9. PASAIAKO UDALA: *Pasajes. Memoria. Años 1953-1955*, 1955, or. gabe.
10. PASAIAKO UDALA: *Hirigintz planarentzako...*, or. gabe.
11. PASAIAKO UDALA: *Pasajes. Memoria. Años 1953-1955...*, 19. or.

Pasaiak duen gututziko superfiziek 1.138,5605 ha. osatzen du.

Herrialdeak 111,6927 ha.

Pasai San Pedrok 34,6500 ha.

Pasai Donibanek 18,4200 ha.

Pasai Antxok 15,2760 ha.

Azkuene gainak 0,5000 ha.

Portualdeak 41,9060 ha.

Bestek 0,9407 ha.

Mendialdeak 1.026,8678 ha.¹²

Eguraldia. Atal honetan ibili ditugun datuak SERAPIO MUGICAREN lanetik hartuak dira¹³. Ezaguna da ozeanoren eragina kostaldeko tenperaturan; Gipuzkoakoan, termometroaren gorabeherak txikiagoak dira haranetakoak baino.

Kostaldeko eguraldia epel eta euritsutzat jo dezakegu. Elurra gutxitan oso egiten du, bi egunez baino luzaroago eusten ez diolarik. Termometroak oso bakanetan egiten du gradu bat edo bi zeroazpitik, eta udako egunik beroentan, hegoa denean, hogeitamazortzi gradutaraino igotzen baldin bada ere, hark ez du luzez irauten eta eguratsa freskatzen duen enbata dakar. Gipuzkoan, iparmendebaldea dugu egunik gehienetan jotzen duen haizea; neguan, hegoekialdekoa, hegoa eta hegomendebaldekoa, sarri.

Landaretza. Pasaiako mendiei buruz aurkitu ditugun erreferentzien artean, besteak beste, XIX. mendean PASCUAL MADOK bere hiztegian¹⁴ ematen diguna dago. Haren esanetan, Jaizkibel aldean apenas zuhaitzik zegoen, nahiz eta zumel eta ametzik berez hazten zen; orobat Ulia mendian. Esan ere badiosku hareazko harrobiak ugari zirela nola batean hala bestean, eta lurra sekanokoa eta ez kalitate onekoa.

Mende hartan bertan, G. DE HUMBOLDTEK¹⁵, Pasaian bidaiari, nabarmendu egiten zuen Jaizkibel mendiaren bi herenen idorra eta txillarraren ugaria; herri aldean, ordea, zenbait harizti han hemenka.

12. PASAIAKO UDALA: *Hirigintz planarentzako...*, or. gabe. Kontutan hartu Trintxerpeko datuak San Pedrokoekin batera ematen direla estatistika honetan.

13. MUGICA, S.: *Geografía General del País Vasco Navarro. Provincia de Guipúzcoa*, Barcelona, 180-194. orr.

14. MADOK, P.: *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España*, Madrid 1849. XII. tomoa, 709. orr.

15. HUMBOLDT, G. de: "Los Vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801" *RIEV* XV, 1924, 90-95. orr.

Bestela mintzo zaigu, ordea, GOROSABEL:

“El terreno es quebrado, produce trigo, poco maíz, algo de legumbres, hortaliza, manzana y castaña, y sus montes están regularmente poblados de árboles”¹⁶.

F. ITURRIOZek bere liburuan¹⁷ zera dio sagarrari buruz, alegia, haritzen ondotik sagarrondoak izan zirela gehien aldatutako zuhaitzak, beraien fruitua ia oso-osorik sagardotarako erabiltzen zela.

1940ko amilaramenduaren arabera, San Juanen zortzi ziren sagastirik zeukaten jabeak, San Pedron hiru zirelarik. Gaztainadietarako dagokienez, San Pedron hiru ziren gaztainadi jabeak, San Juanen, berriz, bat¹⁸.

Gaur eguneko egoerara hurbiltzeko, 1983ko datu batzuek baliatuko gara: landatutako lurrak eta larretarako direnak alde batera utzita, pinuek eta bestelako koniferek 394,3370 ha. suposatzen dute, nekazal lurraren ehuneko 38,40a. Azken urte hauetan pinudi berriak aldatu dira, Jaizkibel aldean gehienbat. Bestelako zuhaitzek 0,5560 ha. egiten dute, ehuneko 0,05a. Landatu nahiz arbolarik aldatu gabekoek 241,7522 ha. egiten dute, ehuneko 23,54a, alegia¹⁹.

1.2. GIZA GEOGRAFIA

Nekazaritza. Nekazaritzak ez du garrantzi handirik izan itsasoari begira bizi izan den herri honetan. Iparraldean, haizearen menpe ziren lur malkartsuetan nekez ondu zitekeen uztarik, eta hegoaldean, leku asko eta askotan, luizi beldur zen.

GOROSABELen hitzetan²⁰ ikusi dugunez, garia, artoa, sagarra, eta barazkiak ziren gehien landatzen zirenak.

1808. urtean San Juango Udalak napoleondar armadari aurkeztu behar zion estatistika batean, bertako sei-zazpi baserriko lurrek 42 anega gari, 56 arto eta 126 arroa lasto baino ez zutela eman esaten digu F. ITURRIOZek²¹.

16. GOROSABEL, P.: *Diccionario Histórico-Geográfico-Descriptivo de los Pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa con un apéndice de las cartas pueblas y otros documentos importantes*, Tolosa 1862, 398. or.
17. ITURRIOZ, F.: *Pasajes (Resumen Histórico)*, San Sebastián 1952, 124. or.
18. PAM.: *Contribución Territorial. Amillaramiento de Rústica y Pecuaria. Año de 1940*, or. gabe.
19. PASAIAKO UDALA: *Hirigintz planarentzako...*, or. gabe.
20. GOROSABEL, P.: *Diccionario Histórico...*, 398. or.
21. ITURRIOZ, F.: *Pasajes...*, 124. or.

Egungo egoeraz honako datuok dauzkagu:

Landatutako lur ureztatuek 2,4186 ha. osatzen dute, honela partiturik:

Barazkiek	2,2666 ha
Fruitudunek	0,1520 ha

Landatutako sekain lurrek 5,0671 ha

Landatutako lurraren guztizko superfiziek 7,4857 ha

Honek nekazal lurraren ehuneko 0,73a suposatuko luke²². Nimiñoa, bezaz, ateratzen den kopurua; hark nekazaritzak Pasaian duen garrantziaren neurria emango liguke.

Abeltzantza. Nekazaritzaren garrantzia handia izan ez bada, abeltzantzarena ez da askoz haundiagoa izango.

Aktibitate hau baserrietan eta bestelako abeletxetan emango da, azkeneko hauek lehenengoak baino beti ere aktibitate gutxiagokoak, noski.

Estruktura familiarrean oinarrituta dago guztiz langintza hau.

Alde batera utzirik, momentuz, artzantzaren kasua, 1940ko amilaramendua²³ ikusirik esan dezakegu bi motatako jendeak ekin diola abeltzaintzari: batetik, baserrietako jendea, behitan, bataz beste, bost-sei buru zuena eta bere bizimodua gehienik hemendik ateratzen zuena; bestetik, borda nahiz txaboletan, etxerako lagungarri gisa, aritutako kaletarra: txerritan bizipahiru eta, inoizka, behi bakarrak azaltzen zaiguna. Zentsatutako berrogeitamar jabeen artean 134 behi ateratzen dira 1940an. Behiak, ikuilu eta esnetakoak kasu gehienetan.

1955ean Pasaiaiko Udalak ateratako txostenean²⁴, udalerrian 100en bat behi, 500en bat ardi (ahuntzak eta, barne) eta 50en bat zaldi direla irakurtzen da.

Egun, hamar jaberren artean, tartean zortzi baserri direlarik (bi San Pedroko eta sei San Juango), 70 behi kontatzen dira²⁵.

Azken urteotan eman den baserri urritzeak zer ikusi handia dauka abeltzantzan ikusten den atzera jotze honekin.

22. PASAIAKO UDALA: *Hirigintz planarentzako...*, or. gabe.

23. PAM.: *Contribución Territorial. Amillaramiento de Rústica y Pecuaria. Año de 1940.* Or. gabe.

24. PASAIAKO UDALA: *Pasajes. Memoria. (1953-1955)...*, 27. or.

25. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: *Registro de Explotaciones Ganaderas de Pasaia, 1989*, 209. or.

Zelai eta larretako superfiziea 144,6700 hektareatakoa da, nekazal lurraren ehuneko 14,09a²⁶. Jaizkibel mendiko baserriak aritu dira gehien artzantzan, gaurko egoera, ardi kopuruari dagokionez, eta 1955ekoarekin konparatuz, antzeko samarra delarik. 1955ean 500en bat ardi egongo zela bagenioen, 1989an 439 kontatzen dira²⁷.

Arrantza. Kanalaren alde banatan astiro-astiro hazten ari zen gizatalde hura arrantzale komunitate bat zen. Badia barruan lehenengo, hartaz haruntza joko zuten gero, XII. mendeaz geroztik agertzen hasi zen balearen atzetik.

1599. urtean, arrantzaren egoera larriaz oharturik, Gipuzkoako korrejido-reak deituta pasaitarrek egindako azalpenetan²⁸ zera irakurtzen da: portu barruan nahiz kanpoaldean, batzutan hiruzpalau egun bide eginik, legatza, bixigu, txitxarro, perloi, mielka, kongrio, lamote, arraia, otarrain, sardina, mihia-rrain eta barbarinak harrapatzen zirela, guztietan ugariena legatza zelarik. Esan ere esaten da kantitatea ez ohi zela oso haundia.

XV eta XVI. mendeetan, armaden industria zela eta, bete betean eman zitzaion itsasuntzigintzari. Hark behera jotzean, balea gure talaietatik urrundu zen; haren atzetik joatean, noiz baleaz, noiz makailaoz porturatzen ikusten ditugu, ez, ordea, trabarik gabe, zeren Donostiak, hamaika pleito zirela medio, haraxe emanarazten baitzien, zenbaitetan, harrapatua:

“Y de aqui se infiere con total evidencia que aunque pesquen los del Pasage de allende vallas y otros pescados grandes del genero, por ser pezcados como todos los demas del mar, no se pueden vender en los Pasaxes de allende ni de aquende sino traerlos a San Sebastian para su venta...”²⁹.

Bale arrantzak XVII garren mendean, oraindik orain, irabazpide polita suposatzen bazuen ere, hurrengo mendean dena maldabehera izango da, 1732. urtean Felipe V garrenak bale arrantzaren zuzpertzera sortu zuen konpainiak ezer gutxi ahal zuelarik. Garai hartakoak dira San Pedroko Codomaste-ko hondartzan labea egiteko, urtze lanetarako hain zuzen ere, aipatu konpainiak eskatu zituen baimenak:

“Memorial por los Directores de la Compañía de Ballenas para que se les dexasse hacer hornos y derritir 180 barricas de chinga en el sitio de Codomaste de Passages, decretado favorablemente por la Ciudad en 29 de Agosto de 1734”³⁰.

26. PASAIAKO UDALA: *Hirigintz planarentzako...*, or. gabe.

27. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: *Registro de Explotaciones...*, or. gabe.

28. ITURRIOZ, F.: *Pasajes...*, 129-133. orr.

29. DAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 1. Exp., 39. or. g.

30. IMA.: *Vargas Ponceren dokumentu bilduma*, III. Tomoa, 115. dok.

Hemeretzigarren mendearen bukaeran, bapozeko itsasuntzien sorrerarekin batera, *Mamelena* etxeko jabeak Pasai Donibane hartzen du kokaleku: harekin batera, arrantzaren urrezko garaia etorriko da.

1919an *Muelles y Almacenes para Vapores de Pesca* elkarteak sortzen da Pasai San Pedron, San Pedrotik Herrerako errepide berrian. Hark erreka edo itsaspe zirenak berreskuratu eta kai berriak egitea suposatzen du. Etxeak eraikita, gerora Pasaiako auzo jendetsuena izango dena, hots, Trintxerpe, antzaldatu egiten da zeharo. Geroago, 1927an, PYSBE "*Pesquerías y Secaderos de Bacalao de España*", Donibanen. Enpresa honen barkuek bost hilabeteko bina kanpaina egiten zituzten Canadian. 1930. urtean MEIPI "*Muelles e Instalaciones de Pesca e Industria*" sortu zen porturatzen ziren itsasuntzien zereginei heltzeko asmotan.

1955ean 58 altura haundiko itsasuntzi aurkitzen dira Pasaietan; Ternua, Groenlandia eta Eskozian makailaotan ibiltzen dira. Alturakoak, Grand Sole-n eta Petit Sole-n legatzetan aritu eta beren kai lanetarako normalean Pasaiara jotzen dutenak, 104 dira.

Egun krisialdi gorrian sarturik dago sektorea. Pasaiako portua utzi eta beste portutara joana dago hainbat eta hainbat armadore, flota erruz urritua dagoela. Makailao arrantzak Groenlandian jarriak ditu bere esperantzak.

Populazioa. Zaila zaigu oso XIX garren mendera arteko populazioaren berri ematen. Hartarako, han-hemenka aurkitu ditugun datuez baliatuko gara. Aurrez esaten dugu, ordea, datu zehatzagorik ezean, eta ditugun hutsuneak ditugula, hurbiltze saio bat baino ez dela izango.

Daturik zaharrena, San Juani buruz, GONZALO MORO doktoreak ematen digu³¹, XIV. mendean emandako sententzia zela eta. Hain zuzen ere, 1399 garren urtean apenas dozena bat etxe zegoen bertan.

San Pedroko biztanleriari buruzko daturik zaharrena, agian, zeharkakoa bada ere, eliza zaharra egin zeneko auzoen zerrendatik atera dezakegu. 1457ko abenduaren 31ean³² 46 ziren auzo bezala azaltzen zirenak, batzu falta zirela esaten zen arren. Zilegi balekigu auzo bakoitzeko 5 biztanle jotzea, 230 izango ziren, gutxi gora-behera, herritarrak mende inguru izango zukeen garai hartako San Pedron.

Geroagoko berririk TARSICIO DE AZCONAk dakarkigu³³. 1584-1587.

31. RAH.: *Diccionario Geográfico-Histórico de España, sección I, comprende el Reyno de Navarra, Señorío de Vizcaya y Provincias de Alava y Guipúzcoa*, Madrid 1802. II. Tomoa, 241. or.
32. GOÑI GAZTAMBIDE, J.: "Fundación de la iglesia de San Pedro de Pasajes (1457-1458)", *BEHSS* II, 1968, 7-19. orr.
33. AZCONA, Tarsicio de: *Un pleito perdido por San Sebastián (1623-1627)*, San Sebastián 1978, 22-24. orr.

urteetan Iruñeko apezpikutegiak egindako auzo zentsu batean, Hondarribiko Pasaia 150 auzo zituen eta Donostiako Pasaia, 100. Berak auzoko 5 biztanle ematen digunez, 750 biztanle izango lituzke San Juanek eta 500 San Pedrok, batz bestea. Kopuruen borobila, TARSICIO DE AZCONA nabarmentzen duen bezala, deitoragarria da, beraz, erreferentzia gisa hartu beharko litzateke hau.

Hamazazpigarren mendean, 1625. urtean, hain zuzen ere, 240 auzo, 1.200en bat biztanle beraz, ziren, ISASTI dioenez³⁴, San Juanen.

Mende honetan San Pedroko biztanleriaren berri zuzenik ez dago, bai ordea, etxe kopuruarena. 1617an DIEGO DE VILLALOBOS Y BENABIDE jaunak, Pasaiari buruzko txostena egiteko bereziki Erregek aukeratuak³⁵, San Pedron 124 etxe direla dio, haietatik 9 hutsik direlarik. San Juanen, berriz, 183; haietatik, 48 hondaturik eta 47 hutsik.

Bat baino gehiago dira kanpotar jendeaz osatutako populazioaren haundia, T. DE AZCONA kasu, azpimarratzen dutenak; zenbaitetan are astetan ere, untzietan nahiz lehorrean, egongo ziren marinela, soldadu eta merkatariz osatua zegokeen berau³⁶.

Hemezortzigarren mendearen erdi aldera, Pasaia murgilduta dagoen krisialdiak eragin bortitza du populazioan, eta behera egingo du orain arte gorunzkoa zen grafikoaren marrak. GOROSABELek³⁷ 1770ean 150 auzo, 750en bat biztanle, alegia, jotzen ditu San Juanerako. VARGAS PONCEk bere txosten ospetsuan³⁸, Pasaiak bizi zuen hondamendiaz asaldaturik, San Pedrok 1776an 655 biztanle zituela diosku eta artean, txostenaren garaian, hain zuzen ere 1804ean, 417 baino ez. Urte berean, VARGAS PONCEren ustetan, 590 dira San Juanek dituenak. 1821ean San Juanen 125 etxe dira eta San Pedron, 80³⁹.

Hemeretzigarren mendean sarturik, beraz, aurrera dirau oraindik ere beherakadak. MADOZEK⁴⁰ 1849an bi Pasaien artean zegoen biztanle kopurua 961ekoa zela dio. Mendearen bukaerara arte itxoin beharko da populazioa bikoiztua ikusteko. Hurrengo mendean industria berrien sortzeaz ikaragarri haziko da, populazioaren gehiengoa auzo berrietan kokatuko delarik.

34. ISASTI, Lope de: *Compendio historial de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*, San Sebastián 1850, 494. or.
35. SEOANE y FERRER, Ramón: "Pasajes en 1617" *Euskal-Erria* XXXVII, 1897, 388. or.
36. AZCONA, Tarsicio de: *Un pleito perdido...*, 24. or.
37. GOROSABEL, P.: *Diccionario Histórico...*, 406. or.
38. OLAECHEA, J. B.: "Seis siglos de litigios sobre el dominio del Puerto de Pasajes", *BEHSS* IX, 1975, 255. or.
39. Ikus J. R. CRUZ MUNDET, "San Pedro. Introducción Histórica", Pasaiako Udala burutzen ari den *Plan Partziala*-ren eranskin historiko gisa.
40. MADOZ, P.: *Diccionario geográfico...*, 711. or.

Garai honetako datuak bi iturritatik atera ditugu: 1860, 1900 eta 1910. urteetakoak, *Geografía General del País Vasco Navarro* bildumatik⁴¹; 1930, 1960, 1975 eta 1981. urteetakoak, *Pasaia. Ikerketa Sozioekonomikoa*-tik⁴².

Pasaia

Urtea.....	Biztanleak
1860	1.266
1900	2.856
1910	3.571
1930	7.519
1960	15.036
1975	22.501
1981	20.709

Azken urte honetakoak, 1981, honela partitzen dira auzoka: Pasai San Pedrok: 2.090; Pasai Donibanek: 3.179; Pasai Antxok: 5.270; Trintxerpek: 10.170.

Merkataritza eta Industrigintza. Pasaiaiko portua Gipuzkoako kostaldeko porturik seguruenen izan da.

Erromatarrek erabili izanak haren aintzinasunaz oharrarazten digu. Arditurriko meatzeetatik ateratzen zen galera argentiferoa *Oiarso*ko portu-tik aterako zuten, seguruenik.

XII garren mendean Antso Jakitunak Donostiako herri sortu berriari eman zion lurraren barruan egoteak uste ez bezalako korapiloa suposatuko die Pasaiaiko merkataritza eta industrigintzari, XIX. mendera arte hazten utziko ez dion auzi batean egongo baita Pasaia.

XV. ean, Nafarroako ardoak eta Aragoi nahiz Gaztelako artilea Donostia eta Pasaiaiko portuetatik itsasoratzen dira.

Ez zuen luzaro jo, alabaina, merkatal giro bizi hark porrot egin gabe, Enrike IV garrenak debekatzen baitu artile produkzio osoaren bi heren baino gehiago esportatzea. Hark abiatu egingo du gerora etorriko zen garai beltza. Merkatal portu baino gerra portu gisa ikusiko dugu.

41. MUGICA, S.: *Geografía General...*, 236. or.
 42. TALDE: *Pasaia. Ikerketa Sozioekonomikoa*, 1983, 9-10. orr.

XIII eta XIV. mendeetan trebatuz zihoan euskal untzigintzak goia jo zuen XV. ean.

Errege Katolikoek untzigintzari bultzada berria eman nahi diote, noiz eta honek Armada untziz osatzeko balio dezakeen. Hartarako, erret astileroak bultzatuko dira. Garai hartakoak dira 1597an, San Juanen, Bordialordan jarritakoak.

XVI. mendetik XX garrenaren hasierara arte egon zen San Juanen, Bizkaiko astileroetatik Bordialordakoetaraino zabaltzen zela, Kordeleri eder bat⁴³.

XVII garrenean, Felipe III garrenak erret astilero berriak sortu nahi ditu. TRISTAN DE IZAROn ustetan⁴⁴, garai hartakoak izan daitezke San Pedroko erret astileroak. R. SEOANE Y FERRERen ⁴⁵ iritziz, bi ziren San Pedron ziren astileroak: Estatuarena eta partikularrena, bestea; San Juanen, beste bi: Bordialordako erret astileroa, eta Bizkaian egongo zena. Esan ere badio San Pedroko Torreatze eta Condemasti-n untzi haundiak armatu eta artilatu egiten zirela. San Juango Alabortza eta Plazakoak ez ziren inportantzia haundikoak izan.

Hogeitamar urtetako Gerra-n frantsesen erasoak jasan zuen gerra-portu bilakaturik zegoen Pasaiak. Orduko Pasaiako merkatal bizitza hutsaren hurrengo zela esan dezakegu. Hura gutxi balitz, erret zerga batek artile merkatalgoa seko jota utzi zuen.

XVIII. mendean berpiztu zen zertxobait itsasuntzigintza, garai ona izatera iritsi ez bazen ere. 1728an, *Real Compañía de Caracas* sortu zen Donostian, Cádiz, Caracas eta Pasaian jarri ordezkaritzak. Hark markatuko du biziro Pasaiako portuaren geroa. Venezuelarekiko trafikoak Gipuzkoako porturik garrantzitsuen bilakatuko du, gerora ere galduko ez zuen postua.

Konpainiak Pasai Donibanen, San Roqueren elizaxoaren aurrean, Barran-koeneko parean, astilero batzu martxan jarri zituen. Flota haundi bat egin eta urteetan, Donostiaren zabarkeriaz edo, badia erabilgaitz egiten ari zen lohitzeari gogor ekitea izan ziren, besteak beste, konpainiak burutu nahi izan zituen asmoak.

1740. urte aldera, gauzak okertzen hasten dira. 1778an, *Compañía de Filipinas*-ekin bat egiten du. Hemeretzigarren mendearen hasieran hura ere desagertuko da.

43. ITURRIOZ, F.: *Pasajes...*, 139. or.

44. IZARO, Tristán de: "Antecedente histórico de Pasajes", *Pasajes y la industria guipuzcoana*, VII. or. Rafael Guerrak argitaratua, San Sebastián, dat. gabea.

45. SEOANE Y FERRER, R.: *Navegantes guipuzcoanos*, Madrid 1908, 72. or.

Pasai San Pedron burdinazko puntak egiten dituen fabrika bat aurkitzen dugu⁴⁶.

1855ean, San Pedrotik, bertako hondartza zeharkatuz, bide berri bat zabaltzen da Herrera eta Erreteriarako bidean egongo zen Norteko Ferrokarrileraino.

1858an, Baignol anaiek portzelana fabrika bat jartzen dute Arizabalo almirantearen etxe inguruan.

Pasai Donibanetik Lezorako bidea 1881ean egin zen. Lehen zegoen galtzadak Kabite-Monzon baserritik, Errotetatik barrena, zubia pasatuz, Bordandia aldera jotzen zuen, handik, beti behetik, Arizabalo-eneko pareraino, kalea topatuz⁴⁷.

1915ean, SERAPIO MUGICAK honako deskripzio hau egiten digu Pasaiako lantegiei buruz:

“Pasages: un taller de ajustaje; dos astilleros; una fábrica de colas; una de cuerdas; una de gaseosas; una fundición y ajustaje; una refinería de petróleo; una serrería para envases; una fábrica de tapices; una de tapiocas; una de tinta para el cabello”⁴⁸.

1870ean Estatuak Probintziaren esku utziko du portua lauogeitamar urtetarako. Ondorioz, *Sociedad de Fomento del puerto de Pasajes* sortuko da. 1884ean, hura desegin eta *Sociedad General* sortu. Urte batzu geroago Estatuak berreskuratuko du.

Gauden mende honen erdi aldera, Pasaiak indar ikaragarria hartuko du merkatal munduan inportazio-espertazio lanetan, bere kai berrietan karga, deskarga eta garraio lanek mugimendu izugarria suposatzen dutelarik. Aldi berean, lehorreko lanak indartuz doaz; tartean metalurgian ari diren zenbait enpresa haundi aurkitzen dira; hauen arrimoan, tarteoak eta txikiak. Guztira, 8.000 langile eta enplegat⁴⁹, hauetako asko ondoko herrietatik datozelarik.

Egungo egoera arras bestelakoa da, arrantza munduak bizi duen krisialdia honi guztiari urrutiko ez zaiola.

Nonbait esana dugu hiriguneak elkarrengandik (San Pedro eta Trintxerpe salbu) bereizirik direla. Lehorrez nahiz itsasoz ematen da komunikazioa. Itsasoz nahi izanez gero, etengabeko trafikoa eskaintzen duten txalupa batzu aur-

46. OPA.: *Pasaiako Eskribaniak*, 2.338. Leg. (1846), 250. or. g.

47. ITURRIOZ, F.: *Pasajes...*, 110. or.

48. MUGICA, S.: *Geografía General...*, 498. or.

49. PASAIAKO UDALA: *Pasajes. Memoria. (1953-1955)...*, 26. or.

kitzen dira egunez. Udalerriaren hegoaldetik Madril-Irun errepidea igarotzen da, Pasai San Pedrotik abiatzen denak harekin bat egiten duelarik. Donibanetik, Jaizkibeldik barrena, Hondarribira jotzen du beste batek.

1. 3. BERRI HISTORIKOAK

Hemen, Pasaiaren bilakaeran nolabaiteko eragina izan duten egoera eta gertakariak jasotzea ez besterik izan da gure asmoa.

Bailara honetako urrutiko arbasoetara jo nahi izatekotan, Errenteriako Paleolitiko garaiko Aitzbitarteko kobazuloak beharko lirateke aipatu, lehen-lehenik. Geroagoko garaietarako, eta guregandik gertuago, Jaizkibelen den ingurune megalitikoak.

PTOLOMEO geografoak *Oiasso* hiria baskoinen lurralde barruan sartu zuenetik, mordoxka dira hura identifikatzen jo diren saioak. Askok, gehienak agian, gaurko Oiartzunen ikusi uste izan dute harako *Oiasson*, *Olarso* edota *Oidasoïna*⁵⁰. CAMINO-eta, berriz, Donostia izan zitekeelakoan ziren⁵¹. KOLDO MITXELENaren ustez, aintzinako Oiartzungo haranaren lurretan beharko luke, ezpairik gabe⁵².

Nolanahi ere den, badirudi denak bat datozela esatean erromatarren garaiko *Oiarsoko portua* gaur Pasaia izenez ezagutzen dugun bera dela, garai haietan ia Oiartzungo lurretaraino heltzen zelarik. SERAPIO MUGICAREN usteetan, *Oiarsoko portua*, edota hurrengo mendeetan *Oiartzungo portua* izango zena, Oiartzungo bailara barruan kokatuko litzateke XII garren mendearen erdi aldera arte⁵³.

1150 eta 1194. urte bitartean, Nafarroako errege Antso Jakitunak, zeinen erresumaren barruan sartzten baitzen Gipuzkoa artean, neurri handi batez frankoz populatua zegoen Donostiako auzoei foru ematen die. Urgullpeko Donostia berriko lehenengo biztanle haiek gaskoinak izan ziren, Lapurditik etorritako gaskoinak, seguruenik⁵⁴.

Donostiako aforamenduko fundapen-gutunaren jurisdikzio barruan sartzten da bete betean Pasaiako badia, edo hala uste izan ohi da, behinik behin, orohar. 1203an, Hondarribia fundatzean, Bidasoatik Pasaiarainoko lurraldea

50. LEKUONA, Manuel de: "Del Oyarzun Antiguo", *Obras Completas de D. Manuel de Lekuona* lanaren separata, Vitoria, 23. or.

51. CAMINO, J.: *Historia civil-diplomático-eclesiástica de San Sebastián*, 4. argitarapena, San Sebastián 1963, 18. or.

52. MICHELENA, L.: "Guipúzcoa en la época romana", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* XII, 1956, 70. or.

53. MUGICA, S.: *Geografía General...*, 279. or.

54. MUGICA, S.: "Orígenes de San Sebastián", *Estudios sobre San Sebastián*, San Sebastián 1980, 178. or.

ematen zaio; bertan kanalaren ekialdea sartu egiten da, mendebaldea eta portua bera Donostiaren esku gelditzen dira. Orduetik bertatik abiatuko da zenbaitean are odol jariorik ere ekarriko duen amaierarik gabeko auzibidea. Izan ere, Donostia eta Hondarribiak lehenengo, eta haiekin batera Oiartzun, Lezo eta Errenteriak ere bai gero, zeinek baino zeinek eskubide gehiago eduki uste izango baitute Pasaiako portuaz. Errenteriak aurre sutsuki egin zion arren, Donostiak ez du Pasaiako portuaz kontrolik galduko XIX. mendearen hasierara arte.

Izendatu *Puerto de Oiarso* edota *Puerto de Oyarço* bezala izan zen izen-datua erret dokumentu dexentetan. Hona GOROSABELen hitzak:

“Así se le nombra en el privilegio de fundación de la villa de Fuenterrabía del año de 1203, como podrá verse en el apéndice. Igual nombre le da el diploma expedido por D. Alonso [sic] en Dueñas a 6 de junio de 1318; pues, hablando en él de los puertos de San Sebastián y sitios donde debían anclar los barcos, expresa el canal de Oiarso. Lo propio hace la sentencia que D. Enrique II pronunció en Sevilla a 18 de abril de 1376; de la que luego se hablará. Otro tanto resulta de un privilegio dado por D. Enrique III en Segovia a 2 de agosto de 1401, para que los mercaderes navarros pudiesen hacer sus cargas y descargar en el puerto de Oiarso”⁵⁵.

Eta honela darrai:

“Se ve, por consiguiente, que la denominación de puerto de Pasajes es de tiempo posterior; aplicada sin duda desde que los dos barrios de que consta actualmente la villa, fueron aumentando su población e importancia”⁵⁶.

XV. mendearen lehen hamarkadetako dokumenturik gehienetan *puerto de Oyarço* esanaz aipu egiten baldin bazaio ere, horra XIV. mendean *el Pasaje* azaldu 1374ko dokumentu honetan:

“Otrosy, mostraron otra nuestra carta de confirmación en que confirmamos una carta del rey don Alfonso nuestro padre que Dios perdone, en que fase francos e libres e quitos a los ferreros e mercaderes e otros omes que traxiesen viandas para las ferrerías e para su mantenimiento, e que les non enbarguen en la canal de Fuenterrabia nin en el Pasaje, nin en el puerto de Oyarço, nin en

55. GOROSABEL, Pablo de: *Diccionario Histórico Geográfico...*, 400. or. M. DE LEKUONAK zuzendu egiten dio 1203koa esanez Alfonso VIIIgarrena ez dela portuaz mintzo, ibaiaz baizik: *ribo de Ojarzum* (LEKUONA, M. de: *Del Oyarzum...*, 47. or.).

56. GOROSABEL, Pablo de: *Diccionario Histórico Geográfico...*, 401. or.

que sean francos e quitos e que non pagasen costunbre, nin peaje nin sisa, nin saca, nin les fesiesen embargo alguno por ello, en maguer manera pagando los derechos del Rey e el fuero segunt se solia pagar”⁵⁷ (1374).

Honunzko eta harunzko Pasaia hazi ahala, bada, *el pasaje* (edota *el pasaje*) ere sortuko da. Bai eta sortu ere, GAMONen ustetan⁵⁸, XIV. mendean Donostiatik arrantza egitera, hasiera batean Donostiako Pasaia eta handik gutxira bai Hondarririkora ere, etorri zen gaskoin jendearen eskutik. Garai bateko Mirall mendiaren babesean (egun Ulia mendia) 1457an eliza eraikiko dute. Eliza hau eraiki zeneko gutunean, 1457ko abenduaren 31ean hain zuzen ere, berriz ere *el Pasaje*:

“E yo Johan de Sarasti e yo Martín de Çarauz et Miqueleto de Laçon, llamado sobrenombre de Pes, et Esteban de Laborda, moradores que somos en el Pasaje de aquende, término e jurisdicción de la villa de San Sebastián...”⁵⁹.

Garaioan, Donostia, Urumean dituen arazoak direla eta, erreparaka ari zaio bigarren portutzat duen Pasaia. Bere jabetasunaren ezaugarri edo, gaztelu bat eraikiarazi zuen kanal aldean. XV garren mendearen hasieran gaztelua, hondatuta zegoelako edo, bota eta haren ordeztu, 1508an hasiko zen egiten CAMINOren ustez⁶⁰, harlanduzko torre borobila altxa, bertan bere interesak defendatuko zituen portuzaina jarririk⁶¹. Donostiak, lehia honetan, portura ematen duten gainontzeko herriez gainera eta gainetik, Errege, Estatua izango ditu lehia-kide, haiek ere portuaz ustez zituzten eskubideak aldarrikatzen baitzituzten.

Pasaia, bere kondizio bereziak direla eta, kostaldeko ondoko portuen gainetik nabarmentzen hasten da. Hona hemen berriz azaldu *Passage* izena Salinas kondeak Britainiara gidatu zuen euskal espedizio baten berri ematen duten 1491 inguruko bertso batzuetan:

*Juntaduditu laster: Donostiaco yrian
Passagen embarcatu: Onci andiac chipiaquin* ⁶²

1545. urterako, kanalaz bestaldean, uhertzean, eliza bat eraikia zen. San Pedroren adoraziopean jarri zen eliza Iruñeko Apezpikutegiaren barruan zen; San Juanen adoraziopekoa, Baionakoarenean. Harako bidea ez da, ordea, beti

57. EAM.: *B Sekz.*, 1. Negoz., 1. Libur., 9. Exp., pergaminoaren 37, 38 eta 39. lerroak.

58. GAMON J. I.: *Noticias históricas de Rentería, prólogo y notas de Serapio Múgica*, San Sebastián 1930, 226. or.

59. GOÑI GAZTAMBIDE, J.: “Fundación de la iglesia de San Pedro...”, 11. or.

60. CAMINO, J. A.: *Historia...*, 215. or.

61. IZARO, T. de: *Antecedente histórico...*, V. or.

62. OTAZU, A.: “El cantar de Bretaña”, *FLV* 19, 1975, 43-70. orr, 7 eta 8 garren bertsoak artikulugilearen azterketaren arabera.

San Juanen adoraziopekoa, Baionakoarenean. Harako bidea ez da, ordea, beti lineala izan: XI garren mendean eta XII. ean noiz Baionakoan, noiz Iruñekoan ikusten dugu bizi garen bailara. 1194ean, Celestino III. aren bula pontifizioa dela medio, *Oyarzun* bailara, Donostiako mugetaraino, Baionako eliz barrutian sartuko da. Banaketa haren ondorioz, San Juan, Hondarribiko Artzapeztegiaren barruan, Baionako Apezpikutegiari zegokion; San Pedro, Artzapeztegi Nagusiaren barruan, Iruñeko Apezpikutegiari. Banakuntza honek atentzio eman izan dio autore zenbaiti. CARMELO DE ECHEGARAY-k, S. MUGICAK dioenez, nolabaiteko batasuna ikusi uste izan zuen eliz mugen eta hizkuntz mugen artean. Alegia, mendebaldeko goi-nafarreraz ari ziren herriak Baionako eliz barrutian sartzen ziren; gipuzkeraz ari zirenak, berriz, Iruñekoan. Bestetik, badirudi garai haietan Donostiako jendeak, eliz kontutarako, Baionarako zuen joeraz zer ikusi handia zutela bertan jarritako gaskoinek.

Kontuak kontu, egoera hark bere hartan jarraitu zuen, Hondarribiko Artzapeztegiaren inoizkako txandatzek gora behera, Gipuzkoako herri hauek Baionako Apezpikutegitik 1712an bereizi ziren arte⁶³.

1600. urtetik, Donostiako udalbatza osatzen zuten lau erregidoreak, hiru hilabeteko txandatan, ziren portuko dorreaz arduratzen zirenak; han bizi ziren aldietan Donostiako Pasaia eta Altzako auzoen kapitaina ziren. Zuten soldatatz aparte, hamaika ziren kargua desiragarri egiten zutenak. Hots, lastra batel bakoitzeko kobratzen zuten zerga; ehun anega gatzeko hartzen zuten ezkutua; kai zerga eta abar eta abar.

1617an, Villalobos kapitainak, portuari buruzko txostena egiteko agindua rekin etorrita, eta ikusiak ikusi, Erregek portua berreskuratu behar zuenaren iritzia eman zuen, Donostiaren eskuetatik kenduta eta badiara ematen duten herriei, despopulatuak beren uretaz gozatzen ez zutelako, behar beharrezkoa zuten komertzio librearen emanaz. Ez zen, ordea, horrela gertatuko.

Aspaldi hartatik ere jasan ditu Pasaia soldadu taldeen erasoak. 1638an frantses soldaduak portuaz jabetzen dira, triskantza haundia eginez muga herrietan. 1719an frantsesak, berriz ere. 1770ean San Juan, Hondarribitik bereizirik, herri independente egiten da, urtetako auzi luze eta latz baten ondoren. 1794ean, Konbentzioaren Gerra; frantsesei aurre egiteko eskas gertatzen dira bitartekoak. 1804ean Estatuak, berriz ere, beste txosten bat agintzen du, oraingo honetan José de Vargas Ponceri⁶⁴. Delako txostenean, portuaren bilakaeraz eta Pasaia auzoek jasandako bidegabekeriez kontu eginik, Pasai San Pedro Donostiatik bereizi eta San Juanekin bat egitea aholkatzen da, bai eta ere badiako gainontzeko herriek portuaz dituzten eskubideak onartu eta portuaz Erre-

63. MUGICA, S.: "El Obispado de Bayona", *Estudios sobre San Sebastián*, San Sebastián 1980, 99-147. orr.

64. OLAECHEA LABAYEN, J. B.: "Seis siglos de litigios...", 218-270. orr.

gek jabetu beharra. 1808an Napoleonen armada sartzen da; San Pedro, atzera berriz, Donostiaren agintepean sarrerazi, harik eta gobernu erortzen den arte. Berrero ere bilduta, gaurdaino herri bat osatzen dute.

1805ean dorre-erregidoreek utzi zutenetik portuko kapitainen bizilekua zen dorrea, 1835eko lehenengo karlista gerran guztiz hondatua gelditu zen.

2. HIRIGUNEA

Labur bada ere, Pasaiako auzoen bizitzaz zer ikusi zuzenik izan dutelako beraien historia txikia osatzen duten zenbait gertakari ikusi nahi genuke oraingo honetan, ikuspegi orokorraren osagarri gisa.

San Pedro

1457an eraiki zen elizak Donostiako apezgoarekiko gorde behar zituen baldintzen komenioa egiteko bildu ziren auzoek ez zuten asko pentsatuko hura horren estua izango zenik. J. GOÑI GAZTAMBIDEk:

“El 20 de marzo de 1458 ambas partes suscribían un convenio, en el que imponía unas férreas condiciones el cabildo donostiarra: un clérigo del cabildo de San Sebastián garantizaría la misa en los domingos y fiestas; fuera de los días señalados tal servicio correría a cuenta de los pasaitarras. Estos habían de recibir los sacramentos en las parroquias donostiarras, o en caso contrario con licencia del Vicario de Santa María. En algunas grandes solemnidades señaladas era preceptivo oír la misa en San Vicente y en Santa María y en otras había de acudir a las citadas parroquias algún miembro de la familia. La iglesia de San Pedro nacía como aneja de las de San Sebastián y las ofrendas hechas en aquella pertenecían a éstas. En San Pedro se harían no más de tres altares, se reservaría el Santísimo Sacramento, en principio no se enterraría en ella a los difuntos, se pasaría el bacín para las iglesias de San Sebastián, etc.”⁶⁵.

Donostiako Santa María eta San Vicente elizen filiala jaio zen San Pedroko hau egun kanposantua dagoen mendi magalean egon zen kokaturik. Garai zahar haien azterrenak, kanposanturako sarbidea ematen digun gotikoruntzko transizio portikoa eta zerbait eskubirago dagoen ate erromaniko hormatua:

65. GOÑI GAZTAMBIDE, J.: “Fundación de la iglesia de San Pedro...”, 7. or.

“Oso ate fina da, dotorea, artxiboltak eta pilareak kapitelez erre-mataturik dituelarik. Tutu antza du ateak, abozinatua da alegia, eta puntu erdiari bagagozkio, erabat erromanikoa”⁶⁶.

San Pedroko artxiboko liburuetan ordutik bertatik, 1458, azaltzen zaigu: *iglesia de San Pedro del Pasage*⁶⁷.

1539an Carlos V garrena hura ikusten egon zenetik indar berria hartzen du Donostiako bandako Pasaiak zuen dorreak. 1651ean, Donostiako udalbatzak lau artileri pieza erosten ditu dorrerako. 1653an, Gipuzkoako Kapitain Jeneral Batevilleko baroiak Cataniako Amabirjinaren elizatzoxa eraikitzen du dorre ondoko plazan⁶⁸. Dorreko egoileak jaun eta jabe azaltzen dira. Haren ondorioz sortuko den dinamikak markatzen du, neurri haundi batean, aldi luze bateko sanpedrotarren bizimodua: 1695an, Pedro de Lezo herriko “cargohabiente”ak deituta Donostiarekiko zituzten auzietan xahutu beharreko dirutzari aurre egiteko, herriko jabetzak eta, bilerara bildutako 29 lagunek, bera tartean, nork bere etxea hipotekatzea erabakitzen da:

“...ypotecando para la seguridad y paga de ellos, esasauer, como vienes de este dicho lugar y su conzejo, todo quanto se allare ser suio, y como uienes del dicho Don Pedro de Lezo,... la casa donde tiene su auitazion, que linda por una parte con la casa llamada de Tristan sita en este dicho lugar;... como uienes de mi el dicho Antonio de Cobarrubias, la casa llamada el Sableo con un pedazo de tierra roble dal perteneciente a ella junto a la parrochial de este dicho lugar,... y como vienes de mi el dicho Capitan Francisco de Artia, un molino con su casa de auitacion, roble dal y demas pertenecidos, sita en la feligresia de este dicho lugar sobre el camino por donde desde el dicho lugar, se ba para la dicha Zuidad de San Sebastian y sobre la caseria llamada Araneder sita en la misma feligresia...”⁶⁹.

1774ean, eliza berria eraikitzen da. Zaharra, toki aldapatsu eta haize agerian, utzi beharra zen.

1799an, kontzeju etxea egiten da; kontzejupean, ardandegia⁷⁰.

Dorre-alkatearekin gertatutako istiluen neurria ematen digu 1801eko san-

66. ARRAZOLA, M. A.: *Erromanikoa Gipuzkoan*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Donostia 1978, or. gabe.

67. PAM.: *E Sekz.*, 4. Negoz., 1. Sail., 1. Exp., 17. Piez., 11. or.

68. RAH.: *Diccionario Geográfico-Histórico de España...*, 241. or.

69. PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 24-29. orr., (P. San Pedro).

70. PAM.: *Actas del Ayuntamiento (Años 1765-1869)*, or. gabe, (P. San Pedro).

pedrotan gertatutako pasadizoak. Ustez bera alkatemakilaz gonbidatua egon behar zuen plazako zezenketa batean hala ez gertatzean, dorrezain zegoen Juan Angel de Iñarramendi agertu eta jendea sakabanarazirik, indarrez debekatzen du. Herriko "cargohabiente"ak eta zenbait auzo, Donostiara eramanda, giltzaperatu egiten dituzte hirurogei egunez⁷¹.

1802ko Abenduaren 23an egindako udalbatzarraren agirian zera irakurtzen da:

"...luego se paso a tener consideracion de que desde que dan noticia los fragmentos del archivo de este Lugar que ha estado tan expuesto a varias invasiones, y entran desde mediados del siglo diez y seis, han sido muchas las epocas en que este Pueblo, sus vecinos y moradores han sido tratados con el maior vigor por la Justicia de dicha Ciudad de San Sevastian, sobstenida sobre sus gruesos fondos, ya aprisionandolos, ya amenazando, perturbandolos, ya con continuos, largos y costosos litigios"⁷².

Auzi haiek, beraz, garrantzizko auziak izan ziren. Halaxe izan ziren baita ere, testuan esaten zaigun bezala, San Pedroko artxiboak jasandako erreketak. Guk, besteak beste, Napoleonen inbasioan eta gerra karlistetan egindakoen berri dakigu. Hona hemen haietako bat:

"Muchos papeles del archivo de este Lugar perdidos en la ultima invasion francesa"⁷³.

1805ean, Donostiatik bereiz egiten da.

San Juan

Hondarribiko udal barrutian sartzen zen honek gozatu ahal izan zuen halako askatasunaz herri barruko gauzetan. Izan ere, erregidoreak aukeratu eta bere errentak administratzea, besteak beste direla, bere esku baitzituen. Portuan, ordea, hura eta bertako mareak noraino, haraino heltzen zen Donostiako jurisdikzioa.

1549tik, horra hor *la iglesia parroquial de San Juan de Larrivera* dokumentuetan⁷⁴.

Pasaiako herriaren kutizia izan den zezen festak 1595. urterako bazuen estimaziorik:

71. PAM.: *Actas del Ayuntamiento (1765-1869)*, A Sekz., 1. Negoz., 1. Leg., 1. Exp., or. gabe, (P. San Pedro).

72. *Ibid.*, or. gabe.

73. PAM.: *Cuentas Correspondientes a los años de 1764 a 1844*, (P. San Pedro), 134. or. a.

74. PAM.: C Sekz., 5. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 3. Exp., 402. or. a., *Venta de Catalina de Lezo de una huerta que la compró la iglesia del Pasaje*.

“...la muger de Bartolome de Arbide y la muger de la Tor me han pedido les alquile una bentana para ber los toros y no he podido menos azer...”⁷⁵.

1597-1598. urteetako izurriteak gaitz eraso zion San Juani, ia populazioaren erdia hilaz. Hark egoera ekonomiko latz batean utziko zuen herria⁷⁶.

1621ean, Santa Isabel gazteluaren lehen harria jartzen da. Handik piska batera:

“...antes pasan por la proximidad de su Castillo de Santa Isabel, que, como llave y defensa de dicho Puerto, se mantiene armado con tropa y guarnicion”⁷⁷.

Ugari dira merkatu librea ukatu izanagatik ematen diren pleitoak:

“Informe hecho por el Coronel e Ingeniero en Gefe D. Phe. Crame en 28 de Junio de 1760 en virtud de Provision... obtenida en 14 de Enero del presente año por la expresada villa del Pasage contra San Sebastian, y para que esta Ciudad no prohiva a las personas de Lasarte, ni otras Republicas de esta Provincia, comprar trigo y venderlo en pan cocido a los individuos de la mencionada villa del Pasage, ni de otros pueblos del Reyno”⁷⁸.

Eta ez gutxi arrain saltzaileek, aginduz, saldu behar ez zuten tokietara saltzeagatik beren burua sarturik ikusten duten liskarrak:

“...el haber dicha Brigida conducido a Renteria seis arrobas de merluza que para el fin la entregaron las benderesas de la villa del Pasage”⁷⁹.

Iskanbila haietan ez zen faltako piperra eta gatza jarriko zituenik, nahiz eta gero kronistak txantxabidea kendu nahi izan. Ikus, bestela, 1556ko ekainaren 14ean Gipuzkoako korregidore Mandojana jaunak bi mugarriri egindako bisitaldiaren berri XVIII garren mendeko kronistak emana:

“Señor Corregidor Mandejana sobre el repaso de los mojones el uno, en el lugar de Lezo, y, el otro, en el Pasaje de allende, junto a la casa de Martisco de Villaviciosa. Y ante señor corregidor le trabucan su apellido de Mandejana en termino vascongado de *Mandojana*, que quiere decir en idioma vascongado *mordisco de macho*, o *comido*

75. PAM.: *Relaciones del Ayuntamiento (1525-1899)*, E Sekz., 8. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 1. Exp., or. gabe (27 de Junio de 1595).

76. IMAZ, J. M.: “La peste en Pasajes”, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País II*, San Sebastián 1946, 105-108. orr.

77. DAM.: C Sekz., 5. Negoz., 1. Sail., 3. Libur., 1. Exp., 16. or. a., *Documentación referente al pleito litigado entre esta ciudad y la villa de Pasajes (1771)*.

78. *Ibid.*, 47. or. g.

79. *Ibid.*, 20. or. a.

de macho, vilipendiando con la mudanza de la *e* en la *o* una persona tan respetable de Justicia y autoridad, de que se deja conocer a lo que se atreberan con San Sebastian y sus Alcaldes⁸⁰.

1643an, parrokia berria eraikitzen da barnekaldean, itsas ertzetik haratago, ondoan egoteak zekarzkien arazoei saihestuta.

Ondoko mendeetan, diru kontuak direla bide, herri lurrak pixkana-pixkana salduz doaz:

“...desde el dia siete de Junio ultimo en adelante se havilito a esta dicha villa... para la venta de propiedades y terrenos concegiles e imposiciones de sisas para la satisfaccion de cuotas señaladas en los repartos hechos por la nominada Provincia, para ocurrir a los gastos que ocasionan las tropas francesas en su distrito⁸¹.”

Harez gainera, zenbait baserriren hondamendiak kaxkartu zuen oraindik ere gehiago nekazal bizitza: 1833ko karlista gerran lur jota gelditutako baserrien zerrenda ez da nolana hikoia, alajaina:

“Bordalaborda, enteramente derruida; Bordandia, desvaratada; Arriender, enteramente derruida con sus tierras; Vidagurutzeta, idem; Gaztelucho, desvaratada; Vidagaray, con su campo destruido; Buena Vista, inhabitable, idem; Eyro, con su campo destruido, idem; Puscazarreta, idem, idem; Izubideta, enteramente arruinada, idem; Charticu, idem, idem; Buenos Aires, idem, idem; Londres, aunque bastante desvaratada, ocupa un inquilino, idem⁸².”

Antxo eta Trintxerpe

XIX garren mendearen bukaeran, baserri eta etxe txikiz osaturiko paraje haiek haziz joango dira auzo galanta bihurtzeraino.

Antxo

Badiaren hegoaldean, egungo Antxo dagoen lurra Altzako udal barrutian barrena sartzen zen itsas mutur bat zen, Molinao izeneko senada sortuaz; mareabeheran, agerian geratzen zen itsaspea, mareagoran, urpekoa.

Errepide nagusia eta trenbidea egitean, lursail hau badiatik bereizita gelditzen da, Molinao erreka tunelak badiarako bidea ematen duela. Arian-arian eraikigarri bihurtzen dira hango lurrak.

Hemen ere auzi luzerik aipatu behar, horratik. Altzako udala eta bi Pa-

80. DAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 1. Libur., 1. Exp., 37. or. g.

81. OPA.: *Pasaiako Eskribaniak*, 2.321b Leg., 31. or. a.

82. PAM.: *D Sekz.*, 2. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 1. Exp., or. gabe.

saiena nork eskubide gehiago itsasoari irabazitako lurrotaz ari ziren. 1890eko ekainaren 21eko sententzia batek bi Pasaiei ematen die arrazoi.

1896an, elizarako lehen harria jartzen da. Lanak aurreratu samarrak direla, terrenoaren lohitsuagatik erori egiten da. Eliza berria 1913an eraikiko da. 1928an, Alameda eta abasto merkatua⁸³.

Altza aldeko baserri batetik hartua dirudien auzo honen izenaz erlazonaturik legokeen dokumentazioa ez da haundia. San Juango lehen bataio liburuan, *Joanes de Anso* irakurtzen da 1587an: "En veinte y cinco del mismo se bautizo Joanes de Anso, hijo legitimo de los de Anso y Maria Doreayn"⁸⁴. 1630eko taberna kontribuzio batean, "Taberna de la de Anso, pipa de andaluz, dieciseis reales"⁸⁵. 1771ean, San Pedroko baserri izen batzurekin batera: "...nos vimos en la obligacion de requerir a Maria Thomasa de Azcue para que no permitiera entrada alguna en su casa a Manuel de Anzo ni otra persona alguna"⁸⁶.

Geroago, 1800. urtean:

"Manuela de Casares, vecina de la Poblacion de Alza, declara que es dueña de la casa de Ancho, con su manzanal y huerta, sita en esta Población"⁸⁷.

Hemen, beraz, zaharrena *Anso* euskal pertsona-izena genuke, erromantzezko *Sancho*⁸⁸. *SAN(T)SO* egingo litzateke lehenengo, bi txistukarien artikulazio-puntuarekiko asimilazioz; ondoren, hitz hasierako kontsonantea disimilazioz galdurik, *Anso*⁸⁹.

Orain bada, *Santxo* eta *Sanso* izen beraren aldagarriak besterik ez zirela kontutan harturik, eta eskribauen artean problema gehiegirik gabe trukutzen zirela jakinik, toponimoaren esplikazio zuzenagoa *Santxo* pertsona-izenetik txistukariaren disimilazioz sorturikoa dela esanez egin liteke⁹⁰.

Trintxerpe

Mende hasieran, baserriz hornituriko San Pedroko auzo honetan, lehenengo arrantzale etxeak eraikitzen dira Pescadería kalearen hasieran. Herrera-ko senada gaituz doa geroxeago etorriko ziren garaietarako.

83. YARZA, C.: *Pasajes Ancho*, San Sebastián 1974, 30. or.

84. EA.: *Parrokia liburua* (P. San Juan), 1. Liburua (1587-1611 Bataiatuak), 3. or. g. Altzakoa izanik ere kanpoan, Erreterian kasu honetan hain zuzen ere, bataiatu zen baita ere *Molinao*-ko errotarien semea. Ikus lan honetan bertan MOLINAO.

85. PAM.: C Sekz., 2. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 3. Exp., 50. or. a., *Libro de Cuentas (Años 1625-1646)*. San Juango kontribuzio liburu batean bertakoa ez denik azaltzea ez da harriztekoa, San Pedroko tabernaririk ere azaltzen delako bertan.

86. PAM.: A Sekz., 1. Negoz., 1. Leg., 1. Exp., or. gabe.

87. OPA.: *Pasaiako Eskribaniak*, 2.316. Leg., 122. or. a.

88. MICHELENA, L.: "Nombres vascos de persona", *Sobre historia de la lengua vasca*, 2. Tom., Donostia 1988, 584. or.

89. MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 58. zenb.

90. IRIGOIEN, A.: *Miscellanea Toponymica et Anthroponymica (I)*, 1991ko apirilaren 8, Bilbao, 9. or. Xerokopia sistemaren bidez eskuratutako lana.

1930. urteetan arrantza giroak gora egiten du. 1931ean, Francisco Ando-naegik Araneder baserriaren lurretan eraikitzeko baimena lortzen du. Lau hila-bete geroago, Pescadería kalean bost etxe egiteari ekingo dio⁹¹.

1936. urtetik areagotu egingo da populaketa, Galizatik etorritako etorki-nez gehienbat. Bera arautu zezakeen bitartekorik eza batetik, eta prozesuaren beraren azkarra bestetik, 1953an jada erdiraino heldua zen. *Poblado* auzoa dagoeneko egina dago, bai eta Trintxerpeko eliza ere.

Baserriz osatutako auzoa zela genioen arestian; Pasai San Pedroko lehen bataiatu eta ezkondu liburuan haietako batzu azaltzen zaizkigu jaino eta ezkon-du berrien sortetxe:

“Joanes de Martinbono (1541); Marota de Araneder (1546); Jua-nes de Ascue (1561); Donmin de Trencher (1581); Marta de Illumbe (1586)”⁹².

TRENCHER, beraz, 1581ean: *Donmin de Trencher*. Bai eta 1625ean ere LOPE DE ISASTIk emana, Donostiako Pasaiako jatorrizko etxeen izenak komentatzerakoan: “La casa de Trencher”⁹³.

1658an, “caseria Trincher”⁹⁴.

Alternantzia, berriz ere, 1705ean:

“En 13 de abril de 1705, segun las Ceremonias que dispone el Manual Romano, a una hija legitima de Pedro de Verecochea, vecino de aqui y vive en Trencher, y de Theresa de Alonso, vecino deste lugar, pusieronla el nombre de Maria Manuela de Verecochea”⁹⁵.

Gaskoin jatorriko toponimoez ari zirela, *Trencher* toponimoaren galde eginiak SERAPIO MUGICAK zuzendutako gutunari erantzunez, FRANCIS- CO CARRERAS Y CANDIk, 1921ean, katalaneraz *Trincher* eta *Trinchería* leinu izen zaharrak bazirela zioen⁹⁶.

91. PASAIKAKO UDALA: *Hirigintz planarentzako...*, or. gabe.

92. EA.: *Parrokia liburuak (P. San Pedro)*, 1. Liburua (1541-1591 Bataiatuak; 1565-1580 Ezkon-duak), 2. or. g., 8. or. a., 32. or. g., 54. or. a. eta 59. or. a., hurrenez hurren.

93. ISASTI, Lope de: *Compendio historial...*, 95. or.

94. PAM.: E Sekz., 4. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 1. Exp., 17. Piez., 17. or. a. *Escritura de censo de mil ducados de principal y cincuenta de venta anual sobre bienes del lugar y en favor de doña Petronila de Londres*.

95. EA.: *Parrokia liburuak (P. San Pedro)*, 4. Liburua (1694-1727 Bataiatuak), 25. or.

96. MUGICA, J.: “Los Gascones en Guipúzcoa”, *BRSVAP XXIII*, 1967ko separat., 10. or.

3. EUSKAL ETA GASKOIN HIZKUNTZAK

Ezin lehen parte hau utzi bi hitz, bederen, egin gabe Pasaiako toponimian partaide zuzenak izan diren bi hizkuntzoz.

Esana dago zenbaitek halako batasuna ikusi ohi duela apezpikutegien eta euskalkien mugen artean, bailara honi dagokionez.

BONAPARTErentzat, berriz, bi Pasaiak gipuzkoarrak ziren hizkuntz kontuan⁹⁷. Iritzi honetakoa da KOLDO MITXELENA ere: hara zer dioen PEDRO DE YRIZARrek MITXELENAREN iritziaz, gai honetaz:

“Para él —y su opinión es doblemente autorizada en este punto, por ser natural de Rentería— en su pueblo natal se habla prácticamente igual que en Lezo y muy distinto que en ambos Pasajes, cuyas hablas se asemejan más a la de San Sebastián, incluso en el caso de Pasajes de San Juan, que se encuentra separada por la bocana del puerto y relativamente lejos de San Sebastián, por lo cual sería lógico esperar una mayor semejanza de su habla con la de su vecino Lezo que con la de San Sebastián”⁹⁸.

Lurrotara, Antso Jakitunak emandako foruak erakarrita, etorri zen Baiona aldeko gaskoin jendeak ekarri zuen mintzairaren eraginaz orain baino lehen mintzatu zaigunik bada: GAMON, CAMINO, SORALUCE eta SERAPIO MUGICA kasu. Azken honek, 1922an oraindik ere, behinolako Pasaiako gaskoin hizketaren hondar zenbait jasotzeko abagunea du, gai honetaz arduraturik dabilela.

XIV eta XV. mendeetakoak dira eragin haren poderioz gauzatu eta guk Pasaian ezagutzen ditugun lehen gaskoin toponimoak, tartean gerora herriari izena emango ziona. 1374ko dokumentuan, esan bezala, *el Pasaje* eta baita *el puerto del Pasaie* ere azaltzen zaigu:

“...quel dicho conçeio de Oyarço que conosçian e otorgavan manifestamente quel puerto del Pasaie llamado de Oyarço que de sienpre aca sin contrario de memoria de omes nin de previlleios nin de cartas fuera e era termino e de su termino e jurediçion del dicho conçeio de Sant Sevastian e que commo suyo propio lo avia tenido e poseydo e tenia e poseyere...”⁹⁹ (1374).

S. MUGICAK Pasaiak duen herri-izenaren galde eginda, zera erantzuten zion H. GAVELek:

“Ninguno de los gascones a quienes he consultado tiene noticia de que la palabra *passadye*, que es el equivalente de la forma castellana *pasaje* tenga o haya tenido el significado de puerto, siendo su acep-

97. YRIZAR, Pedro de: *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, 2. Tom., San Sebastián 1981, 250. or.

98. *Ibid.*

99. EAM.: *B Sekz.*, 1. Negoz., 1. Libur., 9. Exp., pergaminoaren 49 eta 50. lerroak.

ción usual la de *paso* o *pasadizo*, o sea ‘acto de pasar’ o ‘sitio conveniente para pasar’. De esta última acepción pudo derivarse el nombre de *Pasajes*. Es posible, después de todo, que en el gascón de Pasajes la misma palabra haya tomado el significado de *puerto* pues semejante extensión de sentido no tendría nada de inverosímil y no sería difícil de explicar.

La palabra *passadye* se solía escribir *passage* en gascón antiguo. En el gascón de hoy se escribe, según las regiones, *passadye* o *passadje* conforme a la pronunciación, pues existen efectivamente las dos maneras de pronunciar según las variedades dialectales: (la *j* representa casi el mismo sonido que en francés, de manera que la combinación *dj* representa un sonido que también existe en muchas variedades del dialecto vizcaíno; en cuanto a la combinación *dy*, representa un sonido análogo al de la *d* palatalizada o de muchos dialectos vascos). Se puede afirmar que la *g* de la antigua grafía gascona *passa-* expresaba ya estos dos mismos sonidos”¹⁰⁰.

SIMIN PALAYen hiztegian honako hau irakurtzen da: *passàdje* ‘Passage, défilé; chose qui passe; action de passer, traversée, voie’¹⁰¹.

GOÑI GAZTAMBIDEk, aipatutako artikuluan, XV. mendeko Pasai San Pedroko auzoen artean zegoen gaskoin jatorriko konponentez atentzio ematen du¹⁰².

Eman ere atentzio ematen du, indarrean zegoen mintzaira baten adierazgarri agian, euskal jatorrikoen artean ere gaskoin izendun zenbait ikusteak. Esaterako, 1555ean Valladolideko kortearen alkatea zen Palomaresek egindako amojonamenduan izenok azaltzen zaizkigu San Juanen:

“...Marota de Diaçabal, su muger,... e de Joanicot de Ydiaçabal,... e la casa de Jaumot de Çelay,... e la casa de los herederos de Joanot de Ygueldo,... e la casa de Mingot Decheberri,... e la casa de Joaneta de Gabiria....”¹⁰³.

XVIII. mendearen bukaeran CAMINOk, gai honetaz ari zela:

“...pues sólo ha quedado y es usual dicho dialecto en ambos Pasajes, y de allí a menos de un cuarto de legua, nada entienden semejante idioma”¹⁰⁴.

100. MUGICA, J.: *Los Gascones en Guipúzcoa...*, 19. or.

101. PALAY, S.: *Dictionnaire du Béarnais et du Gascon modernes*, 3. edizio osatua, Paris 1980. Ikus PASSADJE.

102. GOÑI GAZTAMBIDE, J.: “Fundación de la iglesia de San Pedro...”, 7. or.

103. DAM.: B Sekz., 1. Negoz., 1. Libur., 2. Exp., 137. or. a. eta or. g., *Mojonamiento que hizo el Alcalde Palomares sobre la Jurisdicción de los Pasajes con esta villa de San Sebastian y la de Fuenterrabía*. MARCEL-FRANÇOIS BERGANTONEk *Mingot* ematen digu, besteak beste, DOMINGOren kide gaskointzat; JUANA eta JUANenak: *Johanete, Joanicot, Joanot*; MARIArenak: *Marote*; SANTIAGOrenak: *Jacmot* (BERGANTON, M. F.: *Le dérivé du nom individuel au moyen âge en Béarn et en Bigorre*, Paris 1977, 209, 236-237, 241 eta 236. orrialdeak, hurrenez hurren).

104. CAMINO, J. A.: *Historia...*, 56. or.

BIGARREN PARTEA

TOPONIMIA

1. ARDANDEGIAK (BATELARI, TABERNARI ETA BESTE).

“La population de ce bourg n’a qu’une industrie, le travail sur l’eau. Les deux sexes se sont partagé ce travail selon leurs forces. L’homme a le navire, la femme a la barque; l’homme a la mer, la femme a la baie; l’homme va à la pêche et sort du golfe, la femme reste dans le golfe et “passe” tous ceux qu’une affaire ou un intérêt amène de Saint-Sébastien. De là les bateleras”¹⁰⁵. (Victor Hugo)

Pasaiaiko toponimiak (agian antroponimiak) ez luke ikuspegi zabalik izango, 1625ean jadanik, LOPE DE ISASTI¹⁰⁶ oharrarazten zuen batelarien izatearen aipamenik egin gabe. Izan ere, 1662an Pasaiara egindako bidaia baten ostean, Felipe IV. ak Madrileko El Retiro parkean arraunean egitera eraman nahi izan zituen San Pedroko hamabi batelera haiek zein San Juango hamabiak partaide zireneko kolektiboa ez baitzen nolanhikoa¹⁰⁷. Ez da lan honen zere-

105. HUGO, V.: *Fragmento de LES PYRENEES de Victor Hugo*, Parisen inprimatutako *En voyage. Alpes et Pyrénées* argitarapenetik hartua, Nueva Editorial S. A., San Sebastián, dat.gabea, 54. or.

106. ISASTI, Lope de: *Compendio historial...*, 504. or.

107. MUGICA, S.: “Las bateleras de Pasajes”, *Euskalerraren Alde*, II: 2, 1912, 174-179. orrialdeak.

gina, ordea, fenomeno honi heltzea eskuartean daukagun gaiari lagungarri dakiokkeen neurrian baino.

1679an, San Juanen “chalupa de Marigozo” aurkitzen dugu¹⁰⁸.

Batelariok garraio lanak, eta ez beti horratik samurrak, egiten zituzten:

“...pague a la barquera por la conduccion de todo el dicho ladrillo desde la Errera y demás parages”¹⁰⁹ (1736).

1739an San Pedroko *Monteronea*-ko emakumeekin, *Talaia*-ko zuhaitzak eta lursaila bera direla eta, izandako auzia aipatzen da¹¹⁰. 1821ean zera irakurtzen da etxe honi buruz:

“El Procurador Sindico expone a Usted ha notado que en este indicado Barrio de San Pedro la casa llamada Monteronea, en la inmediacion de la Torre y junto a la fuente de agua dulce, se halla en inminente peligro, habiendose caido tambien una porcion de argomasa a la parte de la mar y en el sitio en donde ordinariamente se detienen las barquillas que se ocupan en el paso de gentes...”¹¹¹.

1770ko dokumentu batean:

“...dijo que se llama como arriba se menciona, Brixida de Igarza, es natural y vecina de la Villa del Pasaxe, de edad de sesenta años poco mas o menos, su modo de vivir es el de ocuparse en conducir gentes y demas que ofrezca en batel...”¹¹².

Gehiago garraio lanaz:

“Que igualmente dicho Regidor de propia autoridad... sin querer permitir a los capitanes de los navios enlastrarlos con su gente, y embarcaciones menores, y si lo egecuten solo las barqueras de dicho Pasage de San Sebastian, con exclusion de las de esta villa”¹¹³ (1771).

108. PAM.: C Sekz., 2. Negoz., 1. Sail., 2. Leg., 3. Exp., 93. or. g., *Libro de Cuentas*.

109. PAM.: D Sekz., 1. Negoz., 1. Leg., 1. Exp., 14. or. g., *Obras públicas (1746-1887)*.

110. PAM.: C Sekz., 6. Negoz., 1. Leg., 1. Exp., 119. or. g. (P. San Pedro), *Cuentas municipales correspondientes a los años de 1706-1758*.

111. PAM.: D Sekz., 2. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 1. Exp., or. gabe, *Obras. Edificios Particulares*.

112. PAM.: C Sekz., 5. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 3. Exp., or. gabe.

113. DAM.: C Sekz., 5. Negoz., 1. Sail., 3. Libur., 1. Exp., 14. or. g., *Documentación referente al pleito litigado entre esta ciudad y la villa de Pasajes*.

Auzi-mauzirik ez da falta haien inguruan:

“Señor Alcalde. Muy Estimado y Señor mio de mi mayor atencion: con toda ingenuidad y verdad le aseguro a Usted me es imposible poder aguantar las insolencias, gritos y burlas que en mitad de la calle me hacen las mugeres que embia Juana la Barquillera, ama de la casa que tengo en esa Villa. Juan Antonio Macia”¹¹⁴ (1798).

“Al soldado que viene con la comida y cena para los que estan en servicio en esta Torre, parece que las barqueras de essa no le quieren pasar, por lo que estimare a Usted las encargue estrechamente a fin de que puntualmente lo conduzcan i luego se presente en la Piedad o otro sitio de su jurisdicion...”¹¹⁵ (1801).

Dorrezaina tartean sartutakorik asko dago, garraiatutakoa dela eta:

“Las barqueras Rosa de Enseñat, Agustina, por mote Franca, y su hija Agustina, y las hijas de la Concholada, Chiquicho y Zampada estan advertidas para que mañana se presenten a Usted... Tengo noticias que entre estas son llamadas algunas por piedra que recojieron en Barrancos...”¹¹⁶ (1801).

Oso bestelako aipamenetan ere ikusten ditugu, esate baterako, San Pedroko batelariak herriko festetako zezenketaren laguntzaile izan zirenekoan:

“...la funcion pública que conforme a costumbre se esta en hacer esta tarde, con tres novillos que han de correr asalariados por el proveedor de carnes y las mozas bateleras del Pueblo, que los dan gratuitamente (Ayuntamiento del Lugar del Pasage de 29 de Junio de 1801)”¹¹⁷.

1826an, Diputazioak Kapitain Jeneralari Pasaian egingo zen egunpasa baten gonbidapena luzatzean, Herrerako kaira bila joan behar zuten San Juango *Mocorrenea*-ko *damak* aipatzen dira¹¹⁸.

1831. urterako jarrita zegoen Altzako alkateak, hartaz haruntza ez igaro-

114. PAM.: E Sekz., 8. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., or. gabe, *Relaciones del Ayuntamiento con varios. Correspondencia. (Año 1521-1807)*.

115. *Ibid.*, or. gabe.

116. *Ibid.*, or. gabe.

117. PAM.: A Sekz., 1. Negoz., 1. Leg., 1. Exp., or. gabe, *Actas del Ayuntamiento (P. San Pedro)*.

118. PAM.: E Sekz., 8. Negoz., 2. Sail., 2. Leg., 1. Exp., or. gabe. *Relaciones del Ayuntamiento. Correspondencia. (Año 1808-1826)*.

tzeko aginduarekin, Herrerako kaian Pasaiaiko batelariei ipini zien marra. Zala-parta ugari eta ez beti giro, beraz:

“Sr. Alcalde de la Villa de Pasages... devo decirle que, habiendo experimentado una novedad tan escandalosa en el punto de la Herrera por medio de las barqueras de una banda y de la otra de esos dos Barrios, tuve a bien de presentarme con dos mozos armados en el indicado punto y conducirles a esta a tres de ellas; fueron pagando a ocho reales de multa cada una, y al dia siguiente a unas pocas que llegaron al mismo punto las hice pagar cuatro reales a cada una, por el motivo que pasaron por la raya que tenian señalada a criticar y embarazar a los viajeros...”¹¹⁹.

1839ko gutun batean *Naparrak* izeneko sanjuandar batelariak azaltzen dira:

“Muy Señor mio teniendo en la calle de Bonanza de hesa villa un piso halto de mi propiedad, que hoy lo ocupan las Bateleras Naparras, quiero que cuando se cumpla un mes de halquiler entre a ocuparlo mi sobrina Estefania de Manterola...”¹²⁰.

1843an, aipatutako muga-marraz zerbait gehiago:

“...exigí a las demandadas la multa de diez reales de vellon señalado a todas las barqueras que traspasan la raya que este Gobierno las tiene marcadas... Acto continuo baje a la Herrera a abrazar más la raya y reconvenir de nuevo a las barqueras...”¹²¹.



Lanean zehar orain arte ikusten saiatu garen ezaugarriak dituen portuan, gogora dezagun, besteak beste, populazio flotantearen garrantzia (*Taberna de los irlandeses* irakurtzen da 1654ean: “Taberna de los irlandeses. Haver recibido de los dichos yrlandeses...”¹²²), taberna edo ardandegiek aparteko garrantzia eduki behar.

“...proveída de vinos de Navarra, de Galicia, de Burdeos, y algunas veces de Andalucía y de la isla de Canaria”¹²³.

San Juango kontu liburuetan (San Pedrokoetan ez dugu halakorik aurkitu,

119. Ibid., or. gabe. *Juan Francisco de Arzac, Alza, Julio 22 de 1831.*

120. Ibid., or. gabe. *San Juan de Luz, 10 de Junio de 1839, José Ramón Suertegaray.*

121. Ibid., or. gabe. *Alza 4 de Junio de 1843. Pedro Olarreaga.*

122. PAM.: C Sekz., 2. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 4. Exp., 81. or. a., *Libro de Cuentas (Año 1647-1678).*

123. ISASTI, Lope de: *Compendio historial...*, 495. or.

beste askorekin batera galduta agian) taberna izen zenbait azaltzen zaigu. Interresgarria iruditu zaigu haien berri ematea toponimo, beharbada antroponimo, eta beti ere aipatu ditugun hizkuntzen isladatxo diren aldetik.

Alfabetikoki ordenatu beharrean, gainontzeko toponimoekin egingo dugun bezala, interesgarriago eritzi diogu kronologikoki egiteari, hizkuntzen noiz-nolakoak hobeto ikus daitezten. 1591tik 1736ra arte luzatzen den aldi honetako taberna izenetatik alde batera utzi ditugu hizkuntz aldetik guretzat interesik ez zutenak, izen-deitura soilez osatuak zirela iruditu zaizkigunak, alegia.

1591. *CHAPAR*: “Cobrado de tabernas. En el dicho dia se recivio de la muger de Chapar, de tres pipas de sidra, tres reales”¹²⁴.

1591. *CHICOTA*: “Cobrado de tabernas. El dicho dia se recivio de Chicota, de seis cueros de vinos, seis reales”¹²⁵.

1591. *CHICOTA DE ARCAYN*: “Cobrado de tabernas. De Chicota de Arcayn, cinco reales”¹²⁶.

1591. *CHICOTA DE MAER*: “Cobrado de tabernas. De Chicota de Maer, treinta y un reales”¹²⁷.

1591. *MARIA GOXO*: “Cobrado de tabernas. De Maria Gocho, ciento y un reales”¹²⁸.

1626. *TONTORRO*: “Taberna de Tontorro, por nabarros recibieron diez reales”¹²⁹.

1628. *NAFARRA*: “Taberna de Nafarra, por derecho de nabarros, nueve reales”¹³⁰.

124. PAM.: C Sekz., 2. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 1. Exp., 1. or. a., *Libro de Cuentas del Noble Lugar del Pasage de la parte de Fuenterravia que tubo principio en el año de 1591 y acabo en el de 1600*.

125. *Ibid.*

126. *Ibid.*, 2. or. g.

127. *Ibid.*, 34. or. a.

128. *Ibid.*

129. PAM.: C Sekz., 2. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 3. Exp., 11. or. g., *Libro de Cuentas del Lugar del Passaje de la Parte de la villa de Fuenterrabia. Año 1625*.

130. *Ibid.*, 32. or. g.

1628. *MARIBONA*: "Taberna de Maribona, por derecho de nabarros recibimos treinta y cuatro reales"¹³¹.

1628. *CATALINA LODIA*: "Taberna de Catalina Lodia, por derechos de nabarro recibimos dos reales y medio"¹³².

1628. *DOMINICE*: "Taberna de Dominice, por derechos de nabarros, dos reales y medio"¹³³.

1630. *ANSO*: "Taberna de la de Anso, pipa de andaluz, diez y seis reales"¹³⁴.

1630. *MARI BONA DE PILAN*: "Taberna de Mari Bona de Pilan, vino de Navarra, cien reales"¹³⁵.

1632. *PUNCHIT*: "Taberna de Punchit, por derechos de nabarros, treinta y siete reales y medio"¹³⁶.

1632. *TENDARITXO*: "Taberna de Tendaricho, por derechos de vinos de Ribadabia, dieciocho reales y medio"¹³⁷.

1634. *TXURIA*: "Tabernas. Arrendamiento del bino de Burdeos. Churia, por derechos de burdeos, ciento diez reales"¹³⁸.

1634. *CATALINA ANDIA*: "Tabernas. Catalina Andia, por derechos de burdeos, ocho reales"¹³⁹.

1634. *MARIA LA BONA*: "Tabernas. Maria la Bona, por derecho de burdeos, cuatro reales"¹⁴⁰.

1635. *CATALINTXOA*: "Taberna de Catalinchoa, por derechos de binos de Burdeus, diecinueve reales"¹⁴¹.

131. *Ibid.*

132. *Ibid.*

133. *Ibid.*

134. *Ibid.*, 50. or. g.

135. *Ibid.*, 49. or. g.

136. *Ibid.*, 64. or. a.

137. *Ibid.*

138. *Ibid.*, 73. or. g.

139. *Ibid.*

140. *Ibid.*, 74. or. a.

141. *Ibid.*, 78. or. g.

1637. *MARIJUANTO*: “Taberna de Marijuanto, por derechos de binos de Nabarra y por una pipa de Ribedabia, cuarenta y tres reales”¹⁴².

1637. *AMONA DE PUNTIT*: “Taberna de Puntit. Recevimos de Amona de Puntit, de derechos de bino de Nabarra, diez y seis reales y tres quartillos”¹⁴³.

1638. *CATALINBONA DE ITXEBERRI*: “Tabernas. Catalinbona de Ycheberri, por vinos de Nabarra, ciento treinta y dos reales”¹⁴⁴.

1652. *CHIQUIRRI*: “Taberna de Chiquirri. Aber recebido de Cquiquirri, por vinos de Nabarra, dos reales y tres quartillos”¹⁴⁵.

1654. *MARIA BONACHO*: “Tabernas. Haber recebido de Mariabonacho, por derechos de sidras, doce reales”¹⁴⁶.

1705. *MARIA NESKATXA*: “Tabernas. Aguardiente. Recevidos de la francesa Maria Nescacha, treinta y tres reales”¹⁴⁷.

1705. *ANDREGAI*: “Tabernas. Aguardiente. Recevidos de la francesa Andregai, treinta y seis reales”¹⁴⁸.

1706. *JOANATXO*: “Tabernas. Aguardientes. Recividos de Joanacho la francesa, cuarenta y cinco reales”¹⁴⁹.

1707. *LUISA*: “Tabernas. Ochenta reales recevidos de Luyza de la banda dEspaña”¹⁵⁰.

1711. *TOPEA*: “Tabernas. Recividos de la francesa del Topea, diez y nueve reales”¹⁵¹.

142. *Ibid.*

143. *Ibid.*, 91. or. a.

144. *Ibid.*, 99. or. a.

145. PAM.: C Sekz., 2. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 4. Exp., 32. or. g., *Libro de Cuentas (Año 1647-1678)*.

146. *Ibid.*, 81. or. a.

147. PAM.: C Sekz., 2. Negoz., 1. Sail., 2. Leg., 3. Exp., 140. or. g., *Libro de Cuentas desde 1682 hasta 1741*.

148. *Ibid.*

149. *Ibid.*, 146. or. a.

150. *Ibid.*, 153. or. a.

151. *Ibid.*, 178. or. g.

1711. *AUR XUME*: "Tabernas. Recibidos de Aur Chume, por lo mismo, aguardiente, ochenta y cuatro reales"¹⁵².

1713. *BORDATXO*: "Tabernas. Recibidos de la de Bordacho por aguardiente, ocho reales y medio"¹⁵³.

1713. *MARI BONATXO*: "Tabernas. Recibido de la de Mari Bonacho, ocho reales y cuarto"¹⁵⁴.

1714. *POLERO*: "Tabernas. Recibido de la del Polero, doscientos treinta reales"¹⁵⁵.

1714. *CHIQUIRRITA*: "Tabernas. Vino de Francia. Recibido de Chiquirrita"¹⁵⁶.

1720. *MARIA MAITE*: "Tabernas. Por el producto de la sissa del vino de Navarra, recibe de Maria Maite, ducientos y setenta y seis reales"¹⁵⁷.

1735. *MARIA HAURRA*: "Tabernas. Derechos de aguardiente. Hemos cobrado de Maria Haurra de la Rolet, quinientos treinta y un reales"¹⁵⁸.

1736. *MARIA BILDOTS*: "Tabernas. Recibidos de Maria Bildos por lo mismo, doscientos sesenta y dos reales"¹⁵⁹.

Aldi honetako taberna izenen artean, eta konkretuki hipokoristikoetan¹⁶⁰, gaskoineraren eta euskararen presentzia nabaria da. Gaskoin jatorrikoen artean, CHICOTA eta BONA direlarik berauetan izengoititarako gehien erabi-

152. *Ibid.*, 179. or. a.

153. *Ibid.*, 188. or. a.

154. *Ibid.*, 188. or. g.

155. *Ibid.*, 195. or. g.

156. *Ibid.*

157. *Ibid.*, 233. or. a.

158. *Ibid.*, 344. or. g.

159. *Ibid.*, 350. or. a.

160. Hipokoristikook herri barruko hizkuntz erabilpenaren emaitzak dira. Esate baterako, Hondarribiko alkatea zen Pedro Ignacio de Zuloagak, 1728an, San Juango harategi, arlandegi eta bestelakoetara egindako bisitan bakarrak hartzen du izengoitia (*Maria Ederra*); gainontzeko guztiak beren izen-deituraz aipatuak dira. Hona hemen 1728ko San Juango tabernari eta dendarien izenak: Aguardienteak: Juana de Zubigaray, Dominica de Hernaut, Isabel de Aguirre, Maria de Larroleta; Ardo Naparra: Maria de Agramont, Maria Ventura de Sara, Catalina de los Reyes; Sagardoa: María Antonia de Zuaeseta, María Bautista de Arrambide, Cristina de Zubizarreta; Dendariak eta: María Vizenta de Otarc, María de Oyarzabal, María de Aguirre, María Clara de Elizondo, María Conzesa de Miner (okina), María Pérez de Lorca, Bernarda de Lazcano, Magdalena de Salaberria, María de Machico Sansena, Ursula de Iribarren, María de Azdoy, María Nicolasa de Piñar, Maria Ederra, Josefa de Larrondo, Catalina Josefa de Iribarren (okina) (HAM.: C Sekz., 5. Negoz., 1. Sail., 23. Libur., 10. Exp., 4-6. orrialdeak, Año de 1728. *Autos de visita en el Lugar del Pasage, por el Señor Alcalde Don Ignacio de Zuloaga con comisión de esta Ciudad de Fuenterrabía*).

litakoak, izen berezi gehi izenondo sortutakoak, MARI BONA kasu, azpimarratuko genituzke. Bigarrengeotan, euskaldunetan alegia, izen eta izenondo batez sortutakoak ere ugari dira: MARIA GOXO. Bi hizkuntzon gurutzatzeaz sortutakorik ez da faltako: MARI BONATXO.

Izenok indarrean zeudekeen bi hizkuntzen adierazkortasunezko adierazpenak izango lirateke.

2. TOPONIMIA NAGUSIA

PASAIA

DOK.: *Pasaje, el; Pasaie, puerto del* (1374, EAM.: *B Sekz.*, 1. Negoz., 1. Libur., 9. Exp., pergaminoaren 49 eta 50. lerroak); *Pasage, el* (1458, PAM.: *E Sekz.*, 4. Negoz., 1. Sail., 1. Exp., 17. Piez., 11. or.); *Pasages* (1846, *Pas. Trans.*, 2. Libur., 659. zenb.); *Pasaya* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [pásáyà]

OHAR LING.: Bere komentariorako, ikus *Euskal eta Gaskoin hizkuntzak*. Bertako auzo-izenetarako, berriz, *Hiriguneak*.

3. TOPONIMIA TIPIA ETA HIRI TOPONIMIA

Atal honetan, mendi, iturri, erreka zein nekazal (arrantzale) munduko bestelako toponimoak sartu ditugu, bai eta hiriguneetako etxe, plaza, auzune eta abarrekoak ere.

AGARRA (S. Pedro)

DOK.: *Agarra* (1680, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 2. Exp., 43. or. g. eta 45. or. a.).

OHARR.: Armadako itsasuntzien karenetarako brea urtzen zen parajeetako bat: "...en el puesto que llaman Agarra y debajo de la Torre y fortaleza, ... conforme el puesto donde se allaren los navios que se devieren carenar"; "...y en el puesto que llaman Agarra y Galfarra, en este lugar propio del testigo".

OHAR LING.: Euskal hitza dirudi, zer ikusirik izan lezake AGER- osagaiarekin, zeinen bidez *Aguer, Aguerre* eta abar sortzen baitira (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 11. zenb.) 'ageriko lekua' adieraziaz.

AGUADAMALA LEGRANA, LA (S. Juan)

DOK.: *Aguadamala Legrana, la* (1765, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 3. Leg., 49. or. a.).

OHARR.: Harkaiztegi eta lursaila. "Escriptura de venta otorgada en favor de Miguel de Acorda, vecino de la dicha villa en el Pasage, de un pedazo de tierra y peñal, la Aguadamala Legrana, que era en termino de la dicha villa. Linderos de parte de avajo, la agua y canal del Pasage, y, de parte de arriba, una cruz que estava hecha en una peña, y de alli a otra cruz que esta en una peña y entreviesa de la montaña a otra cruz en que estavan hechas por parte de encima del molino de Pedro de Azola, difunto, e de su muger Maria Perez, que al presente lo era del dicho Mi de la Corta, hasta el agua adelante el dicho parage todo quanto la dicha tierra peñal era largo, alto, ancho y bajo para el y para sus herederos" (1765. urteko trasladoa, beraz, esandako data baino lehenagokoak dirateke aipatutakoak).

AIERRU (S. Juan) (6. Mapa)

DOK.: *Ayerru*; *Ayerrui* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [ayéřu]; [ayeřwí]

DESK.: Jaizkibelgo malda latzetako mendia. Iskulin (E.), Ezkue (IM.), Artola (I.) eta torretoa (HM.), mugakide.

OHAR LING.: Hemen, agian, AI(H)ER 'inclinación' (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 17. zenb.) osagaia, tarteko.

ANGELU (S. Juan)

DOK.: *Ainguelu* (1767, *Pas. Pro.*, 2.303. Leg., 212. or.); *Ainguelunea* (1823, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 64. or. g.); *Aingueru* (1833, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 110. or. g.).

OHARR.: Etxea. Bizkaia auzoan, Santiago Arizabalo zen bere jabea (1823). Auzo honetatik elizarako bidean dagoen aldaparen behekaldean. Geroa COLEGIAL eta COLEGIALENEA bezala dokumentatua.

OHAR LING.: ANGULUS-en txipigarri den ANGELLUS latinezko hitzetik datoz *Angellu*, *A(i)ngelu* eta abar, 'hondonada' adierazten dutelarik (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 55. zenb.). *Aingueru* aldaera, berriz, litekeena da herri etimologiaren emaitza izatea.

AIXTOKI (S. Juan) (5. eta 6. Mapak)

DOK.: *Aixtoki*; *Gaixtoki* (bakan) (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [ájřtokì]; [gaiřtókì]

DESK.: Jaizkibelgo itsas aldeko menditxoa, gainean, paraje hauetako asko eta askok bezala, haitza duela. Itsasoa (IM.), Elordi (H.), Atzabatza (M.), Akerregi eta Akerregiko erreka (IE.)-ren artean.

OHAR. LING.: Informatzaile batek, lehenengoz, *Gaixtoki* (hitz hasiera-ko g- eta guzti) ebakitzen du garbi asko, ondokoetan, *Aixtoki* eta *Gaixtoki* diolarik noiz bata, noiz bestea. Beste zenbait informatzailek, berriz, gazteago ere hauetxek, beti *Aixtoki*. Hemen, (H)AITZ + TOKI etimologian oinarri gintezke, hasierako g- hori b- tik sor zitekeelarik (cf. *Elgorriaga* < *Elhorriaga*) (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 205. zenb.), edota, bestela, herri etimologiaz.

AIZABIETA (S. Juan) (5. Mapa)

DOK.: *Izabideta* (1811, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 31. or. a.); *Izabidea* (1812, PAM.: *C Sekz.*, 2. Negoz., 1. Sail., 3. Leg., 1. Exp., 179. or. g.); *Izavireta* (1833, PAM.: *D Sekz.*, 2. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 1. Exp., or. gabe); *Aicebideta*; *Aicevideta* (1865, PAM.: *E Sekz.*, 8. Negoz., 2. Sail., 4. Leg., 1. Exp., or. gabe); *Aizavieta*; *Aizavirea* (1879, *Erreg.*, 6. Libur., 132. or. a.); *Aizavieta* (1950, *Erreg.*, 22. Libur., 101. or. a.); *Aizabieta*; *Aizebidieta* (bakan) (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [ájřabietà]; [ajsebidíéta]

DESK.: Errepidearen ondoan dagoen zelaia. Jaizkibelgo parajea (1811). Urte hartako gerran hondatutako baserria (1833). Lur jota dagoen Aicevideta

baserriko harria eramaten (1865). Inoiz Charticu baserriko lursailen barruko izandakoa (1950). Menditxiki (I.), Mugiter (HE.) eta Frantxesenea (E.)-ren artean.

OHAR LING.: Hemen zaharrena *Izabideta* da, gerora, *Aizabieta*, espero izatekoa kontrakoa izanik, hain juxtu ere. Nolanahi ere den, badirudi (H)AIZE dugula lehen osagai; gainontzekoetan, BIDE + -ETA. *Izavireta* eta *Aizavireta* aldaketan bokal arteko *d* > *r* egiten da, ikus MITXELENak Erreteriarako ematen duen *bire* < *bide* (MICHELENA, L.: *Fonética...*, 227. or.).

AIZPURUA (S. Pedro)

DOK.: *Aizpurua* (1845, *Pas. Pro.*, 2.337. Leg., 296. or. a.).

OHARR.: Etxea. "...en el caso inesperado de que no pueda pagar, puede tener opción de retenerle cosa equivalente en la fábrica de telares que en ella va a establecer".

AKERREGI (S. Juan) (6. Mapa)

DOK.: *Aquerregui* (1788, *Pas. Pro.*, 2.312. Leg., 91. or. a.); *Aquerregui* (1871, *Erreg.*, 4. Libur., 116. or. g.); *Akerrei* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [akéřei]; [akeřéi]

DESK.: Jaizkibelgo itsas aldeko mendia. Luberriko erreka (I.), Zapelarri (HE.), Luberri (I. eta IE.), Aixtoki eta Akerregiko erreka (HM.)-ren artean.

OHAR LING.: AKER batetik, eta -EGI atzizkiaz bestetik, dirudi osatua. *Akerrei* aldakian bokal arteko -g- kontsonantearen suntsitzea dago.

AKERREGIKO ERREKA (S. Juan) (6. Mapa)

DOK.: *Akerriko erreka* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [ákeřiköeřekà]

DESK.: Jaizkibelgo erreka. Akerregi errekatxoa, bi latsez osatua: Letekoa eta egun Urgaizto izenaz ezagutzen dena (1871, *Erreg.*, 4. Libur., 116. or. g.). Akerregi (I. eta IE.), Zapelarri (HE.), Aixtoki (HM.), itsasoa (IM.) eta Elordi (H.)-ren artean.

OHAR LING.: AKERREGI leku-izena + -KO + ERREKA.

AKINDEGI (S. Juan)

DOK.: *Aquindegui* (1871, *Erreg.*, 4. Libur., 116. or. g.).

OHARR.: Jaizkibelgo erreka. Lugorri errekatxoa, egun, *Aquindegui* (1871). *Aquindegui* irakurtzen dugu Pasaiaiko Udalak ateratako *memoria* batean (PASAIKO UDALA: *Pasajes. Memoria...*, 59. or.). Ikus LUBERRIKO ERREKA.

OHAR LING.: Udalak ematen digun *Aquindegui*-rako, MITXELENak (H)AGIN 'tejo' ematen digu, bere aldakien artean *Aquindegui*-rik sartzen ez duela. Ikus *Aquindegui* (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 12. zenb.).

ALABORTZA (S. Juan) (3. Mapa)

DOK.: *Alaborza* (1708, PAM.: *D Sekz.*, 1. Negoz., 1. Leg., 2. Exp., or. gabe); *Labursa* (1785-1899, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabe); *Laburza* (1801, PAM.: *E Sekz.*, 8. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., or. gabe); *Cala de borza* (1871, *Erreg.*, 4. Libur., 116. or. g.); *Calabursa* (1892, *Erreg.*, 11. Libur., 193. or. a.); *Alabortza*; *Kalaburtza* (bakan) (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [alábořcà]; [alabóřca]; [kalabúřca]

DESK.: Kanalaren ertzean (1708), Jaizkibel mendiaren magalean (1892), herriaren iparmendebaldean, kanalak itsasora jo baino lehentxoago dagoen senada txiki eta borobil samarra.

OHAR LING.: Agian gaskoinerazko BOURSE ‘boltsa’ (PALAY, S.: *Dictionnaire...*, ikus BOURSE) hitzak zer eginik izango luke hemen, noiz eta a- protetiko horrek eragozpen gehigizkorik suposatuko ez lukeen.

ALABORTZAKO ERREKA (S. Juan) (3. Mapa)

DOK.: *Alabortzako erreka* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [alabóřcakòřekà]

DESK.: Alabortzara jotzen duen Jaizkibelgo erreka. Arrokaundieta (HM.), Buenabista (HE.), Alabortza (M.), Talaia (IM.) eta Mitxitxola (E.), mugakide.

ALGORRI (S. Juan) (5. Mapa)

DOK.: *Algorri* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [algóři]

DESK.: Kosta aldean dagoen harri luze bezain estua. Itsasoa (I.), Saratsagako erreka (HE.), Kuarteleko kosta (HM.) eta Kuartela (H.)-ren artean.

OHAR LING.: Hemen litekeena da (H)ARRI, AL- disimilazioz, + GORRI.

ALKAI (S. Juan)

DOK.: *Alcay* (1871, *Erreg.*, 4. Libur., 116. or. g.).

OHARR.: Errekatxoa (1871).

ALLO (S. Pedro)

DOK.: *Allo* (1803, *Pas. Pro.*, 2.318. Leg., 58. or. a.); *Allo* (1841, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 140. or. a.).

DESK.: Etxea eta baratza. “...y como vienes de mi el dicho Pedro de Ansorena, una casa que tengo en el termino llamado Galfarra, sita en este dicho lugar, que linda con las de Martin de Allo y Martin de Arambillete” (1695, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 27. or. g.). Kanalaren aurrean dagoen etxe honek mendia du atzekaldetik; izen bereko almagasak, eskuin aldetik, eta, bere duen lursaila, ezkeraldetik (1803). Allo izenaz ezagututako baratzea ere bada (1841). Hipoteketan María Francisca de Allo eta María Ana

de Allo azaltzen dira. Gaur egun ere *Allo* izenaz ezagutzen da Torreatzen dagoen etxea.

ALPERRITURRI (S. Juan) (4. Mapa)

DOK.: *Alperriturri* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [alpeřitúři]

DESK.: Jaizkibelgo mendi-sakona. Garai bateko erreka, egun agortua, Buenabista (I.), Buenabistako soroa (IE.), Plana eta Planako erreka (HM.) mugakide dituela. Planapeko mendi-sakonean bat egiten du Planako erreka-rekin.

OHAR LING.: Toponimoaren bigarren osagaien, ITURRI (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 346. zenb.); lehenengorako, ALPER (AN, B, G, L) (AZKUE, R. M.: *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbao, 1905).

ALTAMIRA (S. Juan)

DOK.: *Altamira* (1743, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 35. or. a.); (1762, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 13. or. g.).

OHARR.: Bertako plazan dagoen etxea (1762).

ALZATARRA (S. Juan)

DOK.: *Alzatarra* (1763, *Pas. Pro.*, 2.299. Leg., 225. or. g.).

OHARR.: Etxea (1763).

ALZATE (S. Juan)

DOK.: *Alzate* (1863, *Erreg.*, 2. Libur., 200. or. a.).

OHARR.: Etxea. Protokoloetan Jerónimo de Alzate zenaren etxea azaltzen da (1787, *Pas. Pro.*, 2.311. Leg., 32. or. a.).

AMAINGURUTZE (S. Juan) (5. Mapa)

DOK.: *Amainguruce* (1821, PAM.: C *Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabe); *Gurutzia* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [gurućià]

DESK.: Pasaia aldeko Jaizkibel mendiaren hegoekialdean, gurutzea dagoen aldea. Jaizkibelgo lursaila: "En los términos o parajes de Amainguruce, Muguiter, Saratsaga, Iñalurreta y Atala resultan 9. 200 posturas de tierra muy estéril, con canteras de piedra" (1821). San Juango auzoa zen Miguel de Amadinen oroimenez altxatutako gurutzea; XVI. mendeko dokumentuan: "...han acostumbrado de tiempo inmemorial a esta parte ir en procesion, con mucho orden y devocion, hasta la cruz y humilladero que esta en la sierra de Jaizkibel, de donde se ve toda la mar, adonde los franceses mataron a Miguel de Amadin, vecino que fue del dicho lugar del Pasage, de donde vuelven en forma de procesion a oir la misa parroquial a su iglesia..." (1592, PAM.: B *Sekz.*, 2.

Negoz., 3. Sail., 2. Leg., 2. Exp., 57. or. a.). Prozesio hau San Marcos egunean egiten zen gurutzea den tokiraino (ITURRIOZ, F.: *Pasajes...*, 190. or.). Informatzailerik zaharrenek harrizko gurutzea ezagutu zuten hura gerran hondatu eta hormioizko berria den toki berean; haietan, Teodoro Laboa, *Amadin-edo* ematen ziguna paraje hartarako.

Egun *Gurutzia* bezala ezagutua den arren, egokia iruditu zaigu kasu honetan *Amaingurutze* forma zaharri eustea, bera ordezkatu duenarengandik oso urruti ez egonik, garai haien testigu zuzena delakoan.

Txokolatearri (M-HM.), Arriluxe (M-IM.), Kargaleku (IE.) eta Xangaxi (E-IE.)-ren artean, errepidearen ondoan.

OHAR LING.: Lehen osagaian AMADIN pertsona-izena izango genuke, bokal arteko *d* kontsonantearen suntsitzea MITXELENAREN hitzotan oinarri daitekeelarik: “La pronunciación fricativa entre vocales y en otros contextos abiertos de estas consonantes sonoras, que ha llevado en muchos casos a su pérdida total en hablas modernas, es sin duda muy antigua” (MICHELENA, L.: *Fonética...*, 226. or.). Bigarren osagaian, GURUTZ(E) (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 296. zenb.).

AMALIERREKA (S. Pedro)

DOK.: *Amalierreka* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [amálieřekà]

OHARR.: Amalikaxeta aldean zegoen erreka. Ikus AMALIKAXETA.

AMALIKAXETA (S. Pedro)

DOK.: *Amalikaxeta*; *Kaxeta* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [amálíkašetà]; [kášetà]

OHARR.: Enbarkaderoa. P. Antxora joateko, jela fabrika zaharra zegoen tokian zen Amalikaxeta zeritzan enbarkaderoa, Herreratik izugarrizko buelta ez emateko txalupa batzu zituena. Harrizko eskailerak eta, bertan, kaxeta txiki bat. *Pasajia* zegoen hemen, beraz: “tranbia hartu behar zela eta, handik tranbia bertatik bertara”. Informatzaileek Amali izeneko emakumea arduratzen zela horretaz diote.

OHAR LING.: Bigarren osagaia, italierazko *cassa* ‘caja’ hitzaren txipigarrri den *cassetta* hitzetik. *Cassa*, latinezko CAPSA-tik (COROMINAS, J.: *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana*, Madrid, 1984. urtetik, ikus CASETON).

AMAOTZA (S. Juan) (5. eta 6. Mapak)

DOK.: *Amaotza*; *Amaotz* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [amáocà]; [amaóc]

DESK.: Jaizkibelgo mendia. Itzalarri (I-IM.), Ondartxabal (HM.), Zumbillondoko erreka (IM.), Elordi (IE.) eta Arrangoa (HE.)-ren artean.

AMARUZA (S. Juan)

DOK.: *Amaruza; Amaluza* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [amarúsa]; [amalúsa]

DESK.: Erreka. Ikus AKERREGIKO ERREKA.

AMARZAGAÑA (S. Pedro)

DOK.: *Amarzagaña; Amerzagaña* (1879, *Erreg.*, 6. Libur., 35. or. a.); *Amargazaña* (1950, *Amill.*, or. gabe).

OHARR.: Lursaila. Salinasbordako lurretan zegoen, "Calapiyo" parajearen barruan (1950).

OHAR LING.: Badirudi amilaramenduko toponimoa izkiriatu duenaren oker bat izan daitekeela, hau batere harrigarria izango ez litzatekeelarik, bestalde, amilaramendu honetan bertan oso nabarmen diren zenbait azaltzen baitzaizkigu. Lehen osagaia ez dugu identifikatzen; bigarrena, GAIN 'cumbre, cima', 'superficie' (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 248. zenb.). Hemen, seguruenik, AMETZAGAÑA ikusi beharko litzateke.

AMETZAGAÑA (S. Pedro)

DOK.: *Ametzagaña* (1881, *Erreg.*, 1. Libur., 186. or. a.).

OHARR.: Lursaila.

OHAR LING.: Lehen osagaia, AMETZ 'carballo, quejigo' (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 40. zenb.); bigarrena, GAIN.

AMETZEGI (S. Pedro)

DOK.: *Ametzegui* (1930, *Erreg.*, 17. Libur., 60. or. a.).

OHARR.: Villa Concharen lurretan dagoen lursaila.

OHAR LING.: Oraingo honetan bigarren osagaia -EGI atzizkia litzateke; lehenengoa, aurreko berbera.

ANDONAEGI (S. Pedro)

DOK.: *Andonaegui* (1940, *Amil.*, or. gabe).

OHARR.: Etxea (1940).

ANDREEDERRA (S. Pedro)

DOK.: *Andre ederra* (1839, PAM.: *E Sekz.*, 8. Negoz., 2. Sail., 3. Leg., 1. Exp., or. gabe).

OHARR.: Etxea. Salinas etxearen ondoan: "...desea, así como la inquilina, demoliendo el actual horno, fabricar otro nuevo en el sitio medianil privativo de la mencionada casa habitacion, en el muelle de la parte de la mar... Manifiesta a ud. que la casa de los especificados Algan y su madre Gertrudis Iriart, nombrada Andre ederra, amenaza visible ruina contra la esplicada de Salinas de

la propiedad de la recurrente... Suplica se sirva acordar si se halla o no en estado ruinoso e inconvertible la casa de Andre Ederra por la parte de Salinas...”.

ANDREEDERRA (S. Juan)

DOK.: *Andre ederra* (1800, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 92. or. a.).

OHARR.: San Juango kalean zegoen etxea.

ANGELU (S. Pedro)

DOK.: *Anguelu* (1827, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 80. or. g.); (1830, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 97. or. g.); *Ainguelu* (1867, *Erreg.*, 3. Libur., 234. or. a.); *Ainguerua* (1946, *Amil.*, or. gabe).

OHARR.: Baserria. Itsas aldean, kanalaren aurrean (1830). Kalparra inguruan (1946). Inguru honetako etxeek malkar gaiztoak dituzte atzekaldetik, mendiari atxekiturik dira.

OHAR LING.: San Juango AINGELU bezala, ANGELLUS-etik. *Ainguerua* aldaerari dagokionez, litekeena da herri etimologiaz gauzatu izana. Ikus AINGELU.

ANITAREN ETXEA (S. Pedro)

DOK.: *Anitaren-echea* (1843, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 150. or. a.).

OHARR.: Etxea. Sotodun etxe honek “Trancaenea” etxea zuen mugakide sortaldetik; hondartza, hegoaldetik; “Fraileneco-goya” enbarkaderoa, sartaldek, eta, herriko kale bakarra, iparraldetik.

ANTXO (Antxo)

DOK.: *Ancho*, casa de (1800, *Pas. Pro.*, 2.316. Leg., 122. or. a.); *Ancho*, nuevas murallas de (1879, PAM.: C. *Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabe); *Ancho*, el barrio de (1895, PAM.: D *Sekz.*, 1. Negoz., 1. Leg., 3. Exp., or. gabe).

OHARR.: Etxea. Nahiz eta Antxo etxea Altzako lurretan zegoen berez, bere lursailetakoz batzu Pasaiaren barruan izan eta auzoari izena eman ziolako sartu dugu hemen.

1587an, *Joanes de Anso*: “En veinte y cinco del mismo se bautizo Joanes de Anso, hijo legitimo de los de Anso y Maria Doreayn” (1587, *Parr. Libur.* (*San Juan*), 1. Libur.: 1587-1611 Bataiatuak, 3. or. g.).

OHAR LING.: Ikus lan honetan bertan *Hiriguneak. Antxo*.

ARANAGA (S. Pedro)

DOK.: *Aranaga* (1890, *Erreg.*, 2. Libur., 248. or. a.); (1940, *Amil.*, or. gabe).

OHARR.: San Pedrotik abiatu eta farola aldera doan bide batek zeharka-

tzen du bere mendebaldeko muturretik (1890). Farolarako bidea du ekialdetik; beste bide publiko bat, hegoaldeetik; "Altunaenea"koek dabilzkiten terrenoak, mendebaldetik, eta, Aranagako harkaiztegia, iparraldetik (1940).

OHAR LING.: MITXELENak aipatzen du *Aranaga*, (H)ARAN 'valle' hitzetik sortzen direnen artean (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 69. zenb.). Bigarren osagaia, -AGA atzizki toponimikoa.

ARANAGATXIKI (S. Pedro)

DOK.: *Aranaga chiqui* (1940, *Amil.*, 40. zenb.).

OHARR.: Otadia. Mugengatik, oraingo honetan deiturak, Aranaga eta Aranagatxikiazpiaren ondoan behar luke.

ARANAGATXIKIAZPIA (S. Pedro)

DOK.: *Aranaga-chiqui-azpia* (1890, *Erreg.*, 2. Libur., 248. or. a.); (1940, *Amil.*, or. gabe).

OHARR.: Badirudi paraje berberari *Aranaga* edo *Aranaga-chiqui-azpia* esaten zitzaiola: "... paraje llamado Aranaga o Aranaga-chiqui-azpia" (1890).

OHAR LING.: Hemen, ARANAGA leku-izenarekin batera, TXIKI + AZPI + -A (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 566 eta 123. zenbakiak, hurrenez hurren).

ARANAKO KUADRA (S. Pedro)

DOK.: *Aranaco cuadro* (1940, *Amil.*, or. gabe).

OHARR.: Lursaila. Aranagako harkaiztegia eta farola ditu mugakide.

OHAR LING.: *Cuadra* 'caballeriza' gaztelerazko hitza, latinezko QUADRA-tik (COROMINAS, J.: *Diccionario...*, ikus CUADRO).

ARANBURU (S. Juan)

DOK.: *Aramburu* (1751, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 11. or. a.).

OHARR.: Etxea (1751).

ARANDOA (Pasaia)

DOK.: *Arendo* e Falconera (1456, 1533ko trasladoa, EAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 1. Libur., 1. Exp., 6. or. g.); *Arando* (1555, DAM.: *B Sekz.*, 1. Negoz., 1. Libur., 2. Exp., 136. or. g.); *Aranda* (1596, HAM.: *E Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 2. Libur., 2. Exp., or. gabe, izatekotan, 2. or. g.); *Arando* (1651, DAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 4. Libur., 4. Exp., or. gabe); (1940, *Amil.*, or. gabe); *Arandua* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [aránduà]

DESK.: Kanalaren sarreran, ezker eskubi, diren bi haitz haundiei *Arandua* deritzate. "...sobre la jurediçion e juzgado de sobre el puerto e agua e canal de

Oyarçun, dicho Pasaje, que fue y es de la dicha Villa Nueva toda la dicha agoa e puerto e canal desde la mar alta que entra y es su entrada por entre las pennas dicha de Arendo e Falconera; que desde la penna de Aya, que nasce el rio agua mayor e sale y entra a la dicha mar por entre las dichas pennas...” (1456). “...desde las peñas de Arando que estan a la entrada del dicho puerto...” (1555). San Pedro aldekoaz ari direlarik ere, “Arando”ko parajeaz ari dira, ekialdetik, kanala, eta iparraldetik, “Arando” izeneko lursaila dituela mugakide (1940). Azkeneko hau Aranaga, Aranaga Txiki eta Aranaga Txiki Azpia-k behar duten inguruan dago. Ikus ARANDOAUNDIA eta ARANDOTXIKIA.

OHAR LING.: MITXELENak zera dio berak ematen duen *Arando-z*, alegia, (H)ARAN-etik sortutakoen artean egon litekeela, agian (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 69. zenb.). ALFONSO IRIGOIENen iritziz, berriz, toponimian eutsi dioten pertsona-izenak ikusi beharko genituzke toponimootan: “En relación con el nombre de persona *Arano*, así como del probable *Arando* y *Ara*, se dice en otro lugar del mismo texto-[Irigoien, A.: “Algunas consideraciones sobre Onomástica personal vasca”, *Euskera* XII, 1977, 574-575. orr.]-: “Curiosamente Luis Murugarren en una comunicación que mandó con fecha 27 de enero de 1977 a la Academia de la Lengua Vasca, donde ofrece un resumen de los diversos nombres que viene anotando en la lectura de diversos archivos parroquiales de Guipúzcoa, señala para 1583 a *Arano de Echaniz*, es decir *Ara* más el sufijo *-no*, lo que autoriza a pensar que *Arano*, *Arando*, etc., con sufijo *-no* y *-ndo*, etc., eran simples nombres de persona que han perdurado en la toponimia” (IRIGOIEN, A.: *Sobre Toponimia del País Vasco Norpirenaico*, Bilbao 1990, 40. or.).

Dokumenturik zaharrenean badirudi haitzoi bi modutara esaten zaiela: “por entre las pennas dicha de Arendo e Falconera” (1456).

Ahozko tradiziozko aldaeran mugaturik azaltzen zaigu.

ARANDOAUNDIA (S. Juan) (3. Mapa)

DOK.: *Arandoaundiya* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [arãndoaũndiyà]

DESK.: San Juango iparmendebaldean, itsasora jotzen duen mendi bizkarraren behelaldeko haitza. Alabortza (HE.), Talaia (E-HE.), itsasoa (I.) eta kanalerako sarrera (M.)-ren artean. San Juango Arandoari esaten zaio *Aran-doaundia*.

ARANDOTXIKIA (S. Pedro) (3. Mapa)

DOK.: *Arandotxikiya* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [arãndočikiyà]

DESK.: San Pedroko iparrekialdean, itsasora jotzen duen mendiaren ekialdeko hegaleko haitza. Plata (M.), itsasoa (I.), porturako sarrera (E.) eta Senoko zuloa (H.)-ren artean. San Pedro aldeko Arandoari esaten zaio *Arandotxikia*.

ARANEDER (S. Pedro)

DOK.: *Araneder* (1695, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 71. or. a.); *Aneder* (1871, *Erreg.*, 4. Libur., 95. or. a.); *Araneder* (1881, *Erreg.*, 1. Libur., 28. or. a. eta ondokoak); (1890, *Erreg.*, 2. Libur., 88. or. a.).

OHARR.: Baserria. XVI. mendeko bataio liburuetan, gerora bertako baserri bezala ezagutuko dugun zenbait izen aurki daiteke deitura gisa edo, tartean: *bautizada la hija de Marota de Araneder* (1546, *Parr. Libur. (S. Pedro)*, 1. Libur.: 1541-1591 Bataiatuak; 1565-1580 Ezkonduak, 8. or. a.). Errotadun baserri hau Donostiarako galtzada ondoan zegoen, hariztirik ere bertan bazuela. Errotaren jabea, Francisco Artia (1695). "Banda de España"n, Zamatete baserria zuen mugakide (1881). 1890ean, oraindik ere, bertako errotaz egiten zaigu aipu.

OHAR LING.: Bere lehen osagaiaz jardunak gara lehen ere; bigarreanean, EDER (ikus *Haraneder*, MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 192. zenb.). *Aneder* aldaeran bokal arteko -r- kontsonantearen suntsitzea dago, ondorioz ukipeanean gertatzen diren bi *a* horiek bat egiten dutelarik.

ARANEDERKO ERREKA (S. Pedro) (4. Mapa)

DOK.: *Anederco erreka* (1871, *Erreg.*, 4. Libur., 95. or. a.); (1881, *Erreg.*, 1. Libur., 177. or. g.).

DESK.: Herriaren mendebaldean dagoen mendi malda; gaur egun agortua dago garai bateko erreka. Araneder baserriaren inguruan kokatzen da bertako errekatik izena hartutako paraje hau (1871). Migelmendiren magalean, Bordaluze etxea dagoen tokian (1881). Migelmendi (IM.), Arrobia (I-IM.), Larrabide (M.) eta Martimona (HM.).

OHAR LING.: Lehen osagaian, ARANEDER, bertako baserri izena; bigarreanean, ERREKA.

ARBURUENA (S. Juan)

DOK.: *Arburuena* (1842, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 145. or. a.).

OHARR.: Etxea. Kalean zegoen etxe honen jabea bertan presbitero zegoen Ignacio de Arburu zen.

OHAR LING.: Ikus -ENA 'la casa de' genitibo atzizkia (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 208. zenb.).

ARCHINA (S. Juan)

DOK.: *Archina* (1870, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabe).

OHARR.: "...varios terrenos denominados Caidepoyeu, Archina, Vizcaya y demás, pertenecientes todos a los propios de este pueblo".

ARIZABALO (S. Juan)

DOK.: *Arizabalo* (1728, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 59. or. g.); (1927, *Erreg.*, 16. Libur., 209. or. a.).

OHARR.: Etxea. Papin plazatxoan, Ana María de Gaviriaren etxea, bate-tik, eta Angela de Arragonena, bestetik, ditu mugakide. Atzekaldetik, Jaizkibel mendia (1728). “Casa principal llamada Arizabalo o Mercader” (1927). Ikus AINGELU etxea.

ARRANBIDE (S. Pedro)

DOK.: *Arranbide* (1819, PAM.: *C. Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 11. or. a. eta ondokoak).

OHARR.: Baserria. Benita Bidarray zen bere jabea.

OHAR LING.: *Arrambide*-rako, MITXELENak ARRANO, konposizioan ARRAN-, ematen du (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 87. zenb.). Bigarren osagaien, BIDE.

ARRANGOIA (S. Juan) (*5. Mapa*)

DOK.: *Arrangoia* (1799, *Pas. Pro.*, 2.315. Leg., 15. or. a.); *Arrangua* (1813, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 34. or. a.); (1871, *Erreg.*, 4. Libur., 116. or. g.); *Arrangue* (1821, PAM.: *C. Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabe); *Arrango* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [ařángo]

DESK.: Jaizkibelgo mendia, bertatik itsasora jotzen duen errekatxo bat duela. Izen bereko baserria ere badago bertan (1813). Delako erreka bi latsa ditu (1871). Amaotza (IM.), Leteburu (IE.), Lete (I-IE.), Amaingurutze (HE.) eta Saratsaga (M.)-ren artean.

ARRANGOKO ERREKA (S. Juan) (*5. eta 6. Mapak*)

DOK.: *Arrangoko erreka* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [ařángokòerekà]

DESK.: Erreka. Erreka honek beronek beherago, iparmendebalderago, *Itzalarriko erreka* izena hartuko du, Itzalarri bere mendebaldean duela. Hauxe bera gertatuko zaigu beste erreka batekin ere. Arrangoa (H-HE.), Itzalarri (IM.), Amaotza (M.), Elordi (IE.), Lete (E.), mugakide.


ARRANTZALDIETA (S. Juan)


DOK.: *Arranchaldieta* (1863, *Erreg.*, 2. Libur., 226. or. a.).

OHARR.: Etxea. Sortaldetik, San Juandik Lezora doan bidea; sartaldetik, baratze bat, eta, iparraldetik, Jaizkibelerako bidea. Badiatik oso gertu, beraz.

OHAR LING.: Lehen osagaien, seguruenik, ARRANTZA ‘pesca’; bigarrenean, ALDE ‘lado’, zenbaitetan atzizki bezala ere funtzionatzen duena;

3. Mapa: PASAIA ALDEKO ULIA ETA JAIZKIBEL MENDIEN KAN.





hirugarrenean, -ETA atzizkia, 'anizkotasuna' adieraziaz (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 33 eta 235. zenbakiak.).

ARRARTE (S. Juan) (5. Mapa)

DOK.: *Arrarte* (1871, *Erreg.*, 4. Libur., 126. or. a.); (1873, *Erreg.*, 5. Libur., 24. or. a.); (1882, *Erreg.*, 7. Libur., 70. or. a.); *Arrate*; *Arrateko iturriya* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [aṙáte]; [áṙatekòituṙiyà]

DESK.: Mendi-sakon eta erreka. Jaizkibelen dagoen lursaila, bertatik izen bereko iturri edo erreka hazten dela (1873). San Juango ekialdean, Txartiku (M.), Kredoarri (IE.) eta Lezoko lurren artean. Bertan harrizko etxetxo bat dago ur kontutarako. Leku ozpel eta oso harritsuua.

OHAR LING.: (H)ARRI eta ARTE 'espacio (intermedio)' izango lituzke osagai.

ARRASCO (S. Juan)

DOK.: *Arrasco* (1749, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 41. or. a.); *Arrascau* (1775, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 74. or. g.); *Arrascao* (1785, *Pas. Pro.*, 2.317. Leg., 194. or. a. eta 197 or. g.).

OHARR.: Etxea. Alde batetik, Gabriela de Ugarte zenaren etxea; bestetik, Piedadeko plazatxoa; atzekaldetik, portua eta kanala, eta, aurrekaldetik, kale publikoa (1749). Piedadeko plazan, "Cayare" eta "Palacio" etxeetako harmailaren aurrean (1775). *Arrascao Pendon de Oro* (1785). Pendón de Oro etxeaz zera esaten da, alegia, ondoan enbarkadero eskailerak dituela (1838, PAM.: *D Sekz.*, 1. Negoz., 1. Leg., 2. Exp., or. gabe).

OHAR LING.: Hemen, *Arrascao* formaren atzean, litekeena da -AO 'boca' eta, aurretik, ARRASKA < (H)ARRI + ASKA izatea; cf. *Lasao* Mutrikuko bi baserriren izena (IRIGOIEN, A.: *Miscellanea...*, 11. or.).

ARRIBALAKO PUNTA (S. Pedro) (4. Mapa)

DOK.: *Arriba lagunt* (1733, PAM.: *C Sekz.*, 6. Negoz., 1. Leg., 1. Exp., 103. or. a.); *Arrivalagunt* (1736, PAM.: *C Sekz.*, 6. Negoz., 1. Leg., 1. Exp., 115. or. g.); *Arriba lagunt* (1846, *Pas. Trans.*, 2. Libur., 659. zenb.); *Arribalako punta*; *Arribalapunta* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [aṙibalakòpuṙtà]; [áṙibalàpuṙtà]

DESK.: Torrean den enbarkaderoa. XVIII. mendean jadanik, izen bereko iturria: "Diez reales pagados por limpiar la fuente de Arriba Lagunt en cinco ocasiones" (1733). Torrean dagoen iturria: "...por limpiar la fuente de la Torre" (1742, PAM.: *C Sekz.*, 6. Negoz., 1. Leg., 1. Exp., 139. or. a.). Enbarkaderoa ere lehengo Torrearen azpian, halako talaia edo tontorra huraxe, zegoena zen, zabala eta harmailak bi aldetara zituena, San Juanera txalupaz pasatzeko gehien erabilitakoa: "...confina por la parte oriental con el desembarcadero de Arriba Lagunt, por el medio día, con la mar..." (1846). Gaur egun, oraindik ere, ikus

daitezke bere harmailetakoz batzu, kai berriaren azpian, enbarkadero berritik metro gutxi batzutarra. Larogei urteko bi informatzailek *Arribalako punta*, bat, eta *Arribalapunta* izenez, besteak, ezagutu izan zuten beren mutil koskorretan enbarkadero hau. Ezagutu ere ezagutu zuten orain Torreko iturria dagoen tokian bertan iturri edota ikuztoki zaharra.

OHAR LING.: Gaskoin jatorriko toponimo honen lehen osagaian, agian, ARRIBALADE 'Rive; étendue d'une rive, rivage; point d'accostage; action d'accoster, en terme de marine' (PALAY, S.: *Dictionnaire...*, ikus ARRIBALADE). Bigarrena ez dugu identifikatzen asmatzen; SERAPIO MUGICAK bere lanean, sanjuandarrek San Pedroko enbarkadero honi *Arriba la monta* esaten ziotela diosku (MUGICA, S.: "Los Gascones en Guipúzcoa", *Homenaje a Carmelo de Echegaray*, San Sebastián 1928, 27. or.).

ARRIEDER (S. Juan)

DOK.: *Arrieder* (1670, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 91. or. a.); (1775, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 67. or. g.).

OHARR.: Baserria. 1591ean: *Catalina de Arrieder* (*Parr. Libur. (S. Juan)*, 1. Libur., 19. or. a.). Bordandia eta Pesares baserriekin, mugakide.

OHAR LING.: (H)ARRI + EDER.

ARRILUXE (S. Juan) (5. Mapa)

DOK.: *Arriluxe* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [ařilúše]

DESK.: Harria. Iparmendebaldera begira dagoen malda batean den zutikako harria. Jaizkibelgo errepidea (H.), Txokolatearri (H-HM.) eta Amaingurutze (E.)-ren artean.

OHAR LING.: Lehen osagaia, (H)ARRI; bigarrena, LUZE, txistukariaren palatalizazioaz.

ARRILLAGA (S. Pedro)

DOK.: *Arrillaga* (1833, *Pas. Pro.*, 2.329. Leg., 137. or. a.); (1863, *Erreg.*, 2. Libur., 248. or. a.).

DESK.: Etxea. "...existente junto al astillero del Sableo del Barrio de San Pedro" (1833). Egun, "Año 1767. Soy de Arrillaga" dioen harria du atalburuan.

ARRITXOGAÑA (S. Pedro)

DOK.: *Arrichogaña* (1843, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 154. or. a.).

OHARR.: Lursaila. Larrabide baserriko lursailetakoa.

OHAR LING.: (H)ARRI + -TXO, atzizki txipigarria, + GAIN + -A (cf. *Mendigaña*, MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 248. zenb.).

ARROBIA (S. Pedro) (3. eta 4. Mapak)

DOK.: *Arrobiya* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [ãróbiya]

DESK.: Trintxerpe aldean, Migelmendiren hegoekialdean. Hala esaten zaio orain urte asko funtzionatzeari utzi zion harrobia dagoen aldeari. Mendi honetan harrobi txiki asko ezagutu izan da, hogeiren bat inguru, informatzai-learen ustetan.

OHAR LING.: ARROBI 'cantera' (BN-s, G) (AZKUE, R. M.: *Diccionario...*, ikus ARROBI).

ARROKANDIA (S. Juan)

DOK.: *Arroca-andia* (1826, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 87. or. a.); *Arroca-aundia* (1873, *Erreg.*, 5. Libur., 60. or. a.).

OHARR.: Jaizkibelen dagoen paraje eta baserria (1873).

OHAR LING.: ARROKA (BN, G) (AZKUE, R. M.: *Diccionario...*) eta (H)ANDI + -A.

ARROKAUNDIETA (S. Juan) (3. eta 4. Mapak)

DOK.: *Arroca-andieta* (1821, PAM.: C Sekz., 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabe); *Arrocaundieta* (1873, *Erreg.*, 5. Libur., 60. or. a.); *Arrokaundieta* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [ãrókaundjetà]

DESK.: Jaizkibelgo gainaldea. Baserri ere baden hau eta Arroka Andia baserria berbera direla dirudi, erregistroko dokumentuan biak nahasten baitira (1873). Egon ere arroka haundiz hornitua dagoen alde garai honek Fuertea (M.), Mozpela (I.), Joakinen sagardia (HM.) eta Buenabista menditoxa (E.) ditu mugakide.

OHAR LING.: Aurrekoan esandakoari -ETA plurala, edota, bestela, -aga atzizkiarekin pareka daitekeen -eta, gaineratuko genioke. Beste aldetik, hemen badirudi, azken bi toponimooi begira, *andi aundi* baino zaharragoa dela, MITXELENAREN hitzekin, bat: "En (*h*)*aundi*/*(h)**andi* 'grande' las formas con *a* predominan de tal manera en los textos antiguos que probablemente no hay testimonio de (*h*)*aundi* anterior a 1700. Como el alargamiento ocasional de una vocal se usa ampliamente para dar énfasis a una palabra y éste debía recaer con frecuencia sobre un adjetivo con el valor de 'grande', el diptongo ha podido nacer de una diferenciación en el timbre de la vocal prolongada" (MICHELENA, L.: *Fonética...*, 96. or.).

ARRONDO (S. Juan) (4. Mapa)

DOK.: *Arrendo* (1940, PAM.: *Amil.*, 14. zenb.); *Arrendo* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [ãróndo]

DESK.: Herriaren mendebaldean dagoen mendi kaskoa. Txurdin aldeko

harkaitzak (IM.), Miradoretik gora doan bidea (M.) eta (H.)-n duen Bonantza gaineko bidearen artean.

OHAR LING.: Lehen osagaian, (H)ARRI; bigarreanean, -ONDO 'lado, cerca' (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 89 eta 491. zenbakiak).

ARTIA (S. Juan)

DOK.: *Artia* (1728, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 59. or. g.); (1751, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 74. or. g.).

OHARR.: Etxea. "...la nombrada de Artia que está en la plaza publica de esta villa con su huerta en la espalda"(1728). "...casa llamada Maria Beltran de Artia"(1751). ITURRIOZek dioenez, 1735ean hura bota eta hantxe bertan udaletxea eraiki zen (ITURRIOZ, F.: *Pasajes...*, 107. or.).

OHAR LING.: Aurreko oharrak kontutan izanik eta "Maria Beltran de Artia"-k suposatzen digun aitzakia alde batera utzita, plazaren erdi erdian zegoen etxeaz ari garenez, ez litzateke batere harrigarria izango izenak nolabaiteko lotura izango balu ARTE 'espacio (intermedio)' hitzarekin, *ea > ia* egiteko Pasaian dagoen joerari eutsiaz.

ARTOLA (S. Juan) (6. Mapa)

DOK.: *Artola* (1788, *Pas. Pro.*, 2.312. Leg., 91. or. a.); *Artola* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [ártolà]

DESK.: Pasaia aldeko Jazkibel mendiaren ekialdeko muga-mugan dagoen mendia, gainean haitza duela. Muga-harresiak ber-bertatik zeharkatzen du. Ezkue (HM.), Zabordiko erreka (M.), Txingurriarri (IM.) eta Iskulin (H-HE.), mugakide.

OHAR LING.: Ikus MITXELENAK ematen digun *Artola*, zeinen lehen osagairako ARDI seinalatzen duen eta bigarrenerako OLA 'cabaña' (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 75 eta 483. zenbakiak).

ARTOLAENEA (S. Pedro)

DOK.: *Artolaenea* (1913, *Erreg.*, 13. Libur., 208. or. a.).

OHARR.: Etxea. Martimona baserriaren ondoan.

ARZOBISPOENEA (S. Pedro)

DOK.: *Arzobispoenea* (1873, *Erreg.*, 5. Libur., 114. or. a.); *Obispoenea* edota *Arzobispoenea* (1873, *Erreg.*, 5. Libur., 181. or. a.).

OHARR.: Baratzedun etxea. Palomeque artzapezpikuarena (1846, *Pas. Pro.*, 2.338. Leg., 264. or. a.). Blas de Lezoren iloba zen Agustín de Lezo y Palomeque, Zaragozako artzapezpikua, zen bere jabea. Ospitale gisa erabilia izan zen, 1837an dexente hondaturik gertatu zela (MADOZ, P.: *Diccionario geográfico...*, 709. or.).

ATALA (S. Juan) (5. Mapa)

DOK.: *Atala* (1784, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 3. Exp., or. gabe); (1828, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 88. or. a.); *Atala* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [átalà]

DESK.: Mitxitxolako ekialdeko hegalean dagoen zelai zabala. Jaizkibelgo itsasaldeko paraje garaia (1828). Leku garaia, itsasoa zabal hartzen duena. Londres (HE.) eta (HM.)-n duen Kabiteren artean. Zelaiaren iparraldean arroka haundi bat dago.

OHAR LING.: Ikus ATALAIABEKOA.

ATALAIA (S. Juan)

DOK.: *Atalaya* (1450-1608, DAM.: *B Sekz.*, 1. Negoz., 1. Libur., 2. Exp., 262. or.).

OHAR LING.: ‘Centinela’ esan nahi duen TALÂYI^c arabiar hitzetik (COROMINAS, J.: *Diccionario...*, ikus ATALAYA) dator gaztelerazko *atalaya*.

ATALAIABEKOA (S. Juan)

DOK.: *Atalaya-becoa* (1820, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 63. or. a.).

OHARR.: Jaizkibelgo parajea. Dirudienez, Atala eta Atalaia gauza bera dira, beste batean itzulpen gordina ematen duen “Atala de abajo” (1830, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 100. or. a.) irakurtzen baitugu.

OHAR LING.: Bigarren osagaian, BE(H)EKO izenlaguna (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 140. zenb.).

ATZABATZA (S. Juan) (6. Mapa)

DOK.: *Atzabatza; Azabatza; Atzabatz* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [acábacà]; [asábacà]; [acabác]

DESK.: Jaizkibelgo itsasaldeko zabaldea, bertan den mendi edota harriaren azpian. Ekia eta hegoaldearen babespean, kosta-kostan, dagoen hauxe halako zelaia dugu. Itsasoa (I.), Aixtoki (E.), Itzalarri eta Itzalarriko erreka (HM.), Txakillarri (M.) eta Elordi (HE.)-ren artean.

OHAR LING.: Itsas mapa askotan *Azabaratz* bezala datorren honek (INSTITUTO HIDROGRAFICO DE LA MARINA: *Del Río Bidasoa a Guetaria*, Cádiz, 1960) BARATZ(E) ‘huerta’ duke bigarren osagaian. MITXELÉNAREN liburuan J. M. BARANDIARANen hitzok irakur daitezke: “...en otro tiempo debió de significar también ‘cementerio’ y forma parte de varios topónimos como *Jentilbaratz* ‘cementerio de gentiles’ y *Mairubaratz* ‘cementerio de Mairu’ que designan numerosos recintos funerarios o sepulturas prehistóricas del País Vasco” (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 132. zenb.).

ATZERRENEA (S. Juan)

DOK.: *Atcerrenea* (1764, *Pas. Kont.*, 73. or. a.); *Acherrenea* (1766, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 81. or. g.).

OHARR.: Etxea.

AUZTEIA (S. Juan) (3. Mapa)

DOK.: *Auzteya*; *Auzteiya* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [áusteyà]; [austéiyà]

DESK.: Jaizkibel mendiaren arroka aldean dagoen basoa, ibiltzeko-eta gaizki dagoena malkar gaiztoa izaki. Bertan borda batzu ezagutu izan dira ahuntzak sartzeko. Egun ere, halako bi badira. Arrantzale jendeak *Artxiña* esaten dio baso honi. Jaizkibelgo iparmendebaldean, Azariondo (H.), Piñuetako plata (M.), Paradi (I.) eta Mitxitxolako kaxkoa (E.), mugakide.

OHAR LING.: Lehen osagaian, agian, A(H)UNTZ; bigarreanean, -EGI-ren aldaera den -TEGI, gehi artikulua. Aipagarria, hiatuari ondo eusteko tartekatzen den kontsonantearen funtzioa: *Auzteiya*. Ikus *Aunztegui* (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 114. zenb.). Bokal arteko kontsonante ozenaren sunsitziaz lehen ere arituak gara, ikus AMAINGURUTZE.

AVE MARIA (S. Pedro)

DOK.: *Ave María*, casa del (1924, *Erreg.*, 15. Libur., 86. or. a.).

DESK.: Apaizetxea. Atalburuan "Ave Maria" jartzen du.

AVE MARIAKO ERREKA (S. Pedro) (4. Mapa)

DOK.: *Amayako erreka* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [amáyakøðerekà]

DESK.: Ave Mariako etxearen mendebaldean dagoen zurrunari eta haren hegoaldean, kai berria egin baino lehen, zegoen errekarri esaten zieten *Amayako erreka*.

OHAR LING.: Bokal arteko *b* eta *r* kontsonanteen sunsitzzea. Hemen ERREKA, 'marea jeistean, agerian gelditzen den etxe aurre nahiz ondoko lurra, harriz beterik egon ohi dena, alegia' izango litzateke.

AZARIONDO (S. Juan) (3. Mapa)

DOK.: *Azariondo* (1826, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 86. or. g.); (1867, *Erreg.*, 3. Libur., 22. or. g.); *Azariondo* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [asárióndø]; [asarióndo]

DESK.: Jaizkibelen dagoen herri lurra (1828). Basotxikiko gaina, Auzteiko borda zaharra zegoen tokian. Paradi eta Auzteia (I.), Mitxitxolako kaxkoa (E.) eta Piñuetako plata (IM.), mugakide.

OHAR LING.: AZARI 'raposo, zorro' (AN-lar, B, G) (AZKUE, R. M.: *Diccionario...*, ikus AZARI) eta -ONDO izango genituzke hemen. JIMENO

JURIOk, eta animaliarekin zuzenki erlazionatutakoen artean, *Ossondoa* ‘al lado de’ edo ‘junto a la Lobera’ ematen digu Artaxonarako (ikus JIMENO JURIO, J. M.: *Toponimia histórico-etnográfica de Tafalla*, Eusko Ikaskuntza, Hizkuntza eta Literatura IX, San Sebastián 1989, 131. or.). Ez da hemen, ordea, zertan alde batera utzirik, A. IRIGOIENek apuntatzen digun bezalaxe, bertan, AZARI pertsona-izena izatearen posibilitatea. Izan ere, animalia izena onomastikotik heldu baitzen eta ez alderantziz (IRIGOIEN, A.: “Cuestiones de Toponimia vasca y circumpirenaica”, *En torno a la Toponimia vasca y circumpirenaica*, Bilbao 1986, 209. or.).

AZKUENE (S. Pedro) (4. Mapa)

DOK.: *Ascue* (1704, *Parr. Libur. (S. Pedro)*, 4. Libur.: 1694-1727 Bataiatuak, 24. or. a.); *Azcue* (1771, PAM.: *E Sekz.*, 4. Negoz., 1. Sail., 2. Leg., 1. Exp., 13. or. g.); (1774, PAM.: *A Sekz.*, 1. Negoz., 1. Leg., 1. Exp., or. gabe); (1777, PAM.: *Libro de Actas desde el año 1749-1786*, 85. or. a.); *Azcué* (1815, *Parr. Libur. (S. Pedro)*, 5. Libur., 364. or. g.); *Azkoene* edota *Azkuene* (1873, *Erreg.*, 5. Libur., 232. or. a.); *Azkuene* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [áskwenè]

DESK.: Herriaren mendebaldean dagoen auzoa. 1561ean, *Juanes de Ascue* (1561, *Parr. Libur. (S. Pedro)*, 1. Libur.: 1541-1591 Bataiatuak; 1565-1580 Ezkonduak, 32. or. g.). Baserria: “hija legitima de Francisco de Oronsoro y Catalina de Vidarray, a la cual pusieron el nombre de Maria Barbara de Oronsoro. Viven en el caserío de Ascue” (1704). Bai eta, ondoko testuan bertako zenbait baserri izenekin batera, ustez ostatua ere: “...les ocurrió el caso que, aqueixa y amonestacion de cierto religioso, nos vimos en la obligacion de requerir a Maria Thomasa de Azcue para que no permitiera entrada alguna en su casa a Manuel de Anzo ni otra persona alguna, respecto que los individuos de V. se hallan atemorizados y perturbados con los escandalos, echos y operaciones de Maria Josefa de Salinas, a quien la expresada Maria Thomasa mantenía en su casa. Pero lejos de haberlo executado esta así, continuó, con desprecio de nuestra autoridad, en sus mismas ideas y tan pernicioso exemplar para con el publico, como que clamavan las gentes para su correccion, y a este efecto la requerimos por segunda vez, y en esta hallamos que tenia en casa a cierto suxeto que se hizo pasar a otra posada” (1774). Gomiztegi errekatxoa du mugakide (1771), bai eta Martinmona baserria ere (1777). Egun, Trintxerpeko kale-rik jendetsuenetakoa.

OHAR LING.: MITXELENak *Azcue*-rako, (H)AITZ eta -GU(N)E hitzaren aldaera den -KU(N)E osagaiak proposatzen ditu (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 21 eta 377. zenbakiak).

BAJETXU (S. Pedro) (3. Mapa)

DOK.: *Bajetxu*; *Bajitxu* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [baʒéču]; [báxičù]

DESK.: Kostatik berrogeiren bat metrotara dagoen *baja* edota ur azpiko

arroka. Bere hegomendebaldean, lehorrean, den Saltoko erreka-ri eta gorago dagoen Saltoko iturriari *Bajitxuko erreka* eta *Bajitxuko iturriya* esaten die arrantzale jendeak, hurrenez hurren. Saltoa eta Saltoko erreka (HM.), Plata eta Platako farola (E-HE.).

BALDESPINANEA (S. Juan)

DOK.: *Valdespinanea* (1847, PAM.: *D Sekz.*, 2. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 1. Exp., or. gabe).

OHARR.: Etxea (1847).

BANKUA (S. Juan) (6. Mapa)

DOK.: *Bankua* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [báŋkuà]

DESK.: Haitz muturra. Itsasbista (IM.), Txuluta (M.), Okalar (I. eta IE.), Gaztarrotz (E.), Gaztarrozko erreka eta Luberri (H. eta HE.).

BANTXALUZE (S. Juan)

DOK.: *Vanchaluce* (1940, *Amil.*, or. gabe).

OHARR.: Etxeak (1940).

OHAR LING.: Bigarren osagaia, LUZE (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 418. zenb.); *Bantxa* esaten zaie arrantzale hizkeran Pasaiaiko sarreran, alde banatan, urpean diren eta zenbaitetan uberagatik antzematen zaien bi arroka haundiei (TOFIÑO, V.: *Plano del Puerto de Pasages, situada su Embocadura*, 1788).

BARRANKOSENEA (S. Juan)

DOK.: *Barrancosenea* (1841, *Pas. Pro.*, 2.332b Leg., 325. or. a.).

OHARR.: Etxea eta izen bereko astileroa. Barranco izeneko leinurik badago San Juanen, etxeak bere abizena daramala. Ikus Mateo Martiarena del Barranco (PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 4. Exp., or. gabe) eta Salvador Barranco (ITURRIOZ, F.: *Pasajes...*, 48. or.).

BASATE (S. Pedro)

DOK.: *Basate* (1823, PAM.: *Cuentas correspondientes a los años de 1764 a 1844*, 173. or. a.).

OHARR.: Ostatua. "...Id. a la posadera de Basate por gastos con los músicos que asistieron a la función...".

BASOTXIKI (S. Juan)

DOK.: *Basotxiki* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bašočíki]

DESK.: Basotxiki edo Auzteia, arroka aldean dagoen basoa, bertaritzen oso zail dagoena, hain da gaiztoa itsas aldeko malkarra. Baso txiki baino ederra dago. Itsasoa eta Paradi (I.), Azariondo (H.), Piñuetako plata (M.) eta Mitxitxolako kaxkoa (E.)-ren artean. Ikus AUZTEIA.

OHAR LING.: Osagaiak, BASO eta TXIKI (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 137 eta 566. zenbakiak).

BASTARDA (S. Pedro)

DOK.: *Bastarda* (1817, *Pas. Pro.*, 2.323b Leg., 9. or. a.).

OHARR.: Etxea (1817).

BEDURIA (S. Juan)

DOK.: *Beduria*, casa de la (1803, PAM.: C Sekz., 5. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabe); *Beduria* (1882, *Erreg.*, 7. Libur., 46. or. a.); *Beduria* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [beđúrja]

DESK.: San Juango iparraldean kokatutako etxea. "Torrechica", egungo Torretxiki alegia, bere aurrean dago (1803). Ekia eta iparraldetik, Jaizkibel mendia; hegaldetik, etxeke bertako harmaila; sartaldetik, gaztelurako bidea (1882).

BEINGOETXEA (S. Juan)

DOK.: *Beingoechea* (1552, XVIII. mende inguruko trasladoa, DAM.: C Sekz., 5. Negoz., 1. Sail., 1. Libur., 1. Exp., 55. or. g.).

OHARR.: Bertako lursaila. Herri etimologiaren lekuko: "...suelo de casa en el lugar e parte que dizen de Beingoechea (que en idioma basquense quiere decir casa para una vez, sin duda con alusion a la sentencia de Don Licuna, en cuanto declaro que mientras subsistiesen las casas de aquel parage fuese jurisdiccion de Fuenterrabia)".

OHAR LING.: Lehen osagaian, BE(H)EN '(el) de más abajo' hitzetik datorren BEEN, disimilazioz, BEIN (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 140. zenb.).

BEKO ARMALLA (S. Juan) (6. Mapa)

DOK.: *Beko armalla* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [békoafma]à

DESK.: Okalar mendiaren iparrekialdeko muturrean dagoen harrizko maila. Itsasoa eta Turroiko armallak (I.), Erdiko armalla (HM.) eta Putrekabiazpia (E.)-ren artean.

OHAR LING.: BE(H)EKO izen laguna (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 140. zenb.), lehenengo osagaian. Honekin batera, (H)ARRI + MAILLA (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 89 eta 422. zenbakiak), hemen *armalla*-k 'roca

estratificada' adieraziko lukeelarik (ikus A. IRIGOIEN: "Izen geografikoak", in *Euskera* XXXIII: 2, Bilbo 1988, 651-657. orr.).

BENTABE (S. Pedro) (3. Mapa)

DOK.: *Bentabe* (1947, *Amil.*, or. gabe); *Bentabe* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [béntabè]

DESK.: Baserria. Oraindik ere zutik diraute bere horma zaharrek. Platako farola, iparraldetik; ekialdetik, itsasoa, eta, mendebaldetik, farolarako bidea.

BERAZA (S. Juan)

DOK.: *Beraza* (1746, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 19. or. a.).

OHARR.: Etxea: "Casa llamada Bertiz, antes nombrada Beraza".

BERTIZ (S. Juan)

DOK.: *Bertiz* (1746, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 19. or. a.).

OHARR.: Etxea (1746).

BETRANTONEA (S. Juan)

DOK.: *Betrantón*, casa de (1719, PAM.: *C Sek.*, 2. Negoz., 1. Sail., 2. Leg., 3. Exp., 226. or. g.); *Betrantonea* (1843, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 149. or. a.); *Bertrantonea*, *Ventantonea*, *Beltrantene* (1863, *Erreg.*, 2. Libur., 176. or. a.).

OHARR.: Etxea. *Illarregui* edota *Betrantonea*, Bizkaia auzoan (1843).

OHAR LING.: Hemen, seguruenik, BETRAN (BELTRAN) (MICHELENA, L.: "Nombres vascos de...", 585. or.) pertsona-izena + -TO atzizki txipigarria + -Enea.

BIDAGARAI (S. Juan)

DOK.: *Bidagaray* (1826, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 87. or. a.); *Bidegaray* (1829, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 94. or. a.); *Bidegarai* (1833, PAM.: *D Sekz.*, 2. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 1. Exp., or. gabe).

OHARR.: Jaizkibelgo baserria (1826). Urte hartako gerran hondatua (1833).

OHAR LING.: Lehen osagaian, BIDE, dokumenturik zaharreneko aldaeran, *Bidagaray* alegia, apofoniaz *e a* bihurtzen delarik: "Para el tratamiento de las vocales hay que distinguir el final de palabra del final de primer miembro en compuestos y ciertos derivados. En este último caso, los cambios de timbre de las vocales y su pérdida son numerosos y regulares..., en bisílabos, -e y -o se cambian en -a" (MICHELENA, L.: *Fonética...*, 125. or.). Bigarren osagairako, GARAI.

BIDAGURUTZETA (S. Juan)

DOK.: *Vidagurutzeta* (1833, PAM.: *D Sekz.*, 2. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 1. Exp., or. gabe); *Bidagurutzeta* edota *Bidegurutzeta* (1867, *Erreg.*, 3. Libur., 71. or. a.); *Bidaguruceta* (1879, *Erreg.*, 6. Libur., 166. or. a.).

OHARR.: Baserria. 1833ko gerran hondatutako baserrietakoa (1833).

OHAR LING.: Lehen osagaian *-a -e* alternantzia dago. Bigarren osagaian, GURUTZ(E); hirugarrenean, *-ETA*.

BIDART (S. Juan)

DOK.: *Vidart* (1863, *Erreg.*, 2. Libur., 194. or. a.).

OHARR.: Etxea (1863).

BIDEBERRIA (S. Juan) (3. eta 4. Mapak)

DOK.: *Bideberriya* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bíðeβeriyà]

DESK.: Bidea. Erreka auzunetik Alabortzaraino, bide zaharraren azpitik, egin zuten bideari *Bideberriya* esaten zaio.

BILDOSOLA (S. Juan)

DOK.: *Bildosola* edo *Bichosola* edo *Bichisoro* edota *Bichisola* (1863, *Erreg.*, 2. Libur., 24. or. a.).

OHARR.: Jaizkibelen dagoen borda edo etxetxoa (1863). Ez da oso segurua, agian BIZITXOLA.

OHAR LING.: MITXELENAK *Bildosola*-rako, BILDOTS 'cordero' eta OLA 'cabaña': "...y esta acepción, propia de una economía pastoril, habrá sido probablemente la primitiva en todo el país y se conserva en apellidos como Artola, Vildosola..." (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 163 eta 483. zenbakiak).

BISTAEDER (S. Juan)

DOK.: *Vista eder* (1913, *Erreg.*, 13. Libur., 186. or. a.).

OHARR.: Baserria: "Casería Vista Eder o Buena Vista".

BISTEDER (S. Pedro)

DOK.: *Buenavista* (1883, PAM.: *C Sekz.*, 7. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., or. gabe); *Bisteder* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bistéðeṙ]

OHARR.: Eroritako baserria.

BIXENABAR (S. Juan) (6. Mapa)

DOK.: *Vissenabár* (1804, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 7.

Exp., or. gabe); *Lizanabar* (1821, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabe); *Bixenar* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bišenár]

DESK.: Mendia. "...habiendo comenzado desde el puente del molino de Bordandia, del territorio de ella, sobre una de cuyas piedras, hacia la parte de medio dia, se halla colocado el primero, que esta señalado con una cruz gravada sobre la misma piedra que cae al extremo superior del arco del citado puente, hacia el sitio denominado Vissenabár, en el cual termina la mojonera de esta indicada villa, en la parte de la orilla del mar" (1804). "En el intermedio de Goztarroz, Lugorri y en Lizanabar, comenzando por la costa, resultan 2. 600 posturas de tierra monte pelado, con canteras de piedra de las cuales no se hace merito por la mucha distancia a que existen del pueblo y su escabrosidad" (1821). Turroiko armallak (IM.), Putrekabiazpia eta Beko armalla (HM.), mugakide.

OHAR LING.: *Vasconia Medieval. Historia y Filología*-n Lacarrak 1371ra-ko ematen duen *Leicanavar* ematen digu J. SAN MARTINEk, berak ahoz jasotako *Bixanar*, *Bixonar* eta abar baten artean (SAN MARTIN, J.: "Jaizkibel mendiko izen zahar batzuk", in *Euskera* XXXIII: 1, Bilbo 1988, 267 or.), Jaizkibelgo "harpetxe eta azternategirik aberatsenetakoak" bertan aurkitu dituela dioskularik.

BIXIBIXI (S. Juan) (4. Mapa)

DOK.: *Bixibixi* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bíšibiši]

DESK.: Camara eta Txulotxo-ren arteko tarte eta itsaspeari esaten zaio *Bixibixi*.

BIZKAIA (S. Juan) (4. Mapa)

DOK.: *Biscaya*; *Bizcaya* (1555, DAM.: *B Sekz.*, 1. Negoz., 1. Libur., 2. Exp., 132. or. g. eta 142 or. a.); *Vizcaya* (1680, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 2. Exp., 43. or. a.); (1823, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 64. or. g.); *Bizkaya* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bískayà]

DESK.: Auzoa. "...asta las casas de Biscaya que llaman..." (1555). Garai hartan oraindik ere zenbaitek jaiotetxearen izena, deitura, antza: "...entraron en la casa de Maria deabizcaya que llaman, la qual dicha casa es y esta postrera de las casas de Bizcaya que llaman..." (1555). Astileroak ere bertan: "...que los arboles para los navios del Rey Nuestro Señor y de los particulares se han fabricado en diferentes partes, puestos y sitios como son en lo que llaman Vizcaya, para los de su Magestad..." (1680). 1823an Bizkaia astileroa ere aipatzen da. Egun, izen bereko auzoa herriaren hegoekialdean aurkitzen da, hegomendebaldera begira dagoen mendi baten oinetan.

OHAR LING.: MITXELENak, *Biscaya*: "Parece que *bizkai ha sido en otros tiempos un apelativo, a juzgar por su difusión en toponimia, y designaba

tal vez lugares elevados, y es natural considerarlo emparentado con *bizkar*, como pensaba ya Astarloa...” (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 168. zenb.).

BIZKARDO (S. Juan)

DOK.: *Bizkardo* (1940, *Amil.*, 4. zenb.).

OHARR.: Larrabide baserriko lursailak, mugakide (1940).

OHAR LING.: *Bizcardo*-rako, MITXELENAK BIZKAR ‘espalda’ ‘loma de los montes’ eta -DO atzizkia ematen dizkigu (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 169 eta 180. zenbakiak).

BIZKARSORO (S. Juan)

DOK.: *Biscarsoro* (1895, *Erreg.*, 12. Libur., 202. or. a.).

OHARR.: Txartikuko lursailak, eta konkretuki Arrarte, ditu mugakide (1895).

OHAR LING.: Bere osagaiak, BIZKAR eta SORO ‘campo’ ‘prado’: “...en la Navarra medieval y hoy también en otras zonas, *soro* no es ‘prado’, sino ‘labrantío, pieza labrada” (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 546. zenb.).

BIZKAZO (S. Juan)

DOK.: *Viscaso*; *Bizcazo* (1873, *Erreg.*, 5. Libur., 24. or. a.); *Vizcazo* (1888, *Erreg.*, 10. Libur., 27. or. a.).

OHARR.: Iparraldetik, Charticu baserriko lurak (1888).

BOLSAGILLENEA (Pasaia)

DOK.: *Bolsaguillenea* (1871, *Erreg.*, 4. Libur., 112. or. a.).

OHARR.: Baserria. Ez da zehazten zein Pasaiatakoa den.

OHAR LING.: Bere osagaietan, ziurrenik, POLTSA edo BOLTSA, -GILE atzizkia eta -ENEA.

BOMERT (S. Pedro)

DOK.: *Bomert* (1894, PAM.: C *Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabe).

OHARR.: Etxea: “La Sociedad General del Puerto de Pasajes cede y el Ayuntamiento de la villa de Pasajes toma en arriendo la casa de madera llamada Bomert, sita en Pasajes San Pedro cerca del juego de pelota, para instalar en ella el puesto de la Guardia Civil. 5 de diciembre de 1894”.

BONA (S. Juan)

DOK.: *Bona* (1852, *Pas. Trans.*, 5. Libur., 3.182. zenb.).

OHARR.: Etxea. Piedadean; alde batetik, Antonio eta Salvador de Urigo-

tiaren etxea; bestetik, Iriberry eta Ezkurra etxeak; atzekaldetik, Jaizkibel mendia, eta, aurrekaldetik, kalea eta enbarkaderoa (1852).

OHAR LING.: Gaskoineraz pertsona-izen bezala ere erabilia izan zen hau (ikus BERGANTON, M. F.: *Le dérivé du nom individuel...*, 196. or.) Pasaiako toponimian ondo ezaguna dugu baita adjektibo gisa ere: MARIBONA (1628, PAM.: *C Sekz.*, 2. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 3. Exp., 32. or. a.).

BONANTZA (S. Juan) (4. Mapa)

DOK.: *Bonanza* (1710, PAM.: *C Sekz.*, 2. Negoz., 1. Sail., 2. Leg., 3. Exp., 173. or. g.); *Bonanza, la* (1804, PAM.: *E Sekz.*, 8. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., or. gabe); (1845, *D Sekz.*, 1. Negoz., 1. Leg., 2. Exp., or. gabe); (1892, *Erreg.*, 11. Libur., 198. or. a.); *Bonantza* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bónancà]; [bonánca]

DESK.: Herriko plazaren iparmendebaldean dagoen auzoa. Izen bereko eliza (1710), kaia (1845), plazatxoa (1892).

OHAR LING.: "...del lat. vg. *BONACIA alteración del lat. MALACIA 'calma chicha, bonanza' debida a BONUS 'bueno' por haberse tomado MALACIA por un derivado de MALUS,... común a los varios romances..." (CORMINAS, J.: *Diccionario...*, ikus BONANZA).

BONANTZAKO LINTXUA (S. Juan) (4. Mapa)

DOK.: *Bonantzako lintxua* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bonáncaçakòlinçua]

DESK.: Bonantzako elizako ataria. Kanalera ematen duen atariari esaten zaio horrela; hura, bai aterpe gisa, bai biltoki gisa, arrantzaleek oso erabilia izan da. Egurrezko atetzarreen, ustez XVIII eta XIX. mendeetako garai bateko itsasuntzi irudiko zenbait marrazki daude (Ikus SUSTETA, J.: "Un testimonio gráfico naval", *Euskaldunak-La etnia Vasca*, 1. Tom., 1978, 223. or.).

BONASAITZA (S. Juan) (5. Mapa)

DOK.: *Buenos Aires* (1833, PAM.: *D Sekz.*, 2. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 1. Exp., or. gabe); (1871, *Erreg.*, 4. Libur., 116. or. g.); *Bonasaitza*; *Buenosaires*; *Buenosaires* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bonásajçà]; [bwenaśáires']; [bwenósáires']

DESK.: Jaizkibelgo baserria; egun, pareta zaharrak baino ez. Garai hartako gerran hondatutakoa (1833). Baserria eta izen bereko errekatxoa (1871). Informatzaileek, gaurko ehiztari gazteek-eta *Buenosaires* deritzotela diote; beren zaharrek, berriz, beti *Bonasaitza*. Jaizkibel mendiaren iparraldean, Atala (HE.), Mitxitxola (HM.) eta Ertxiñarri (IM.) ditu mugakide.

BORDALABORDA (S. Juan) (4. Mapa)

DOK.: *Bordalaborda* (1680, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 2.

Exp., 61. or. a.); (1839, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 129. or. g.); (1846, PAM.: *D Sekz.*, 1. Negoz., 1. Leg., 3. Exp., or. gabe); (1884, *Erreg.*, 8. Libur., 184. or. a.); *Bordalaborda* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bořđalaḃóřđ̃a]

DESK.: Bizkaia auzoaren hegoekialdean dagoen auzune eta itsas industrialdea. "...antes y despues que en el sitio y parage de Bordalaborda se fabricaran los arboles de navios de su Magestad y de particulares, donde tiene su Magestad su Real Cordeleria, hasta..." (1680). Hondatutako baserria (1839). "...Obras publicas. S. Alcalde de la villa de Pasajes. Se servira usted permitir estraer del punto llamado de Bordalaborda el cascayo, llamado en vascuence *legarra*, para recebar los trozos de la nueva carretera. Dirección de la Nueva Carretera por San Sebastián" (1846). "Bordalaborda, fábrica de cordelería" (1884).

OHAR LING.: Laborda etxearen azpian zegoen senada txikiari *Port de la Borda* esaten ziotela diosku GAMONEK (GAMON J. I.: *Noticias históricas de ...*, 287. or.). Ikus LABORDA.

BORDALUZE (S. Pedro)

DOK.: *Bordaluce* (1881, *Erreg.*, 1. Libur., 177. or. g.).

OHARR.: Etxea. Migelmendiren magalean, "Anederco erreca" deritzan tokian.

OHAR LING.: Lehen osagaian, BORDA 'caserío' 'redil para caballerías'; bigarreanean, LUZE (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 171 eta 418. zenbakiak).

BORDATXO (S. Juan)

DOK.: *Bordacho* (1750, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 9. or. a.).

OHARR.: Etxea. Pedro de Guillasak bere emakumearekin bizi deneko etxea, aintzina Bordatxo izenekoa, hipotekatzen du (1750).

BORDATXOETA (S. Juan) (*5. Mapa*)

DOK.: *Bordatxota*; *Bordatxotako kaxkua* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bořđáćotà]; [bořđáćotakòkaškuà]

DESK.: Mendi kaskoa. Zunbillondo (I.), Saratsaga (HE.), Saratsagako erreka (IM.) eta Kuartela (M.).

BORDAUNDI (S. Juan)

DOK.: *Bordandia* (1591, PAM.: *C Sekz.*, 2. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 1. Exp., 4. or. g.); *Bordaandia* (1763, PAM.: *E Sekz.*, 8. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., or. gabe); (1779, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 57. or. a.); *Bordaundi* (1863, *Erreg.*, 2. Libur., 226. or. a.); *Bordandia* (1882, *Erreg.*, 7. Libur., 122. or. a.); *Bordaundi* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bořđáũndi]; [bóřđáũndi]

OHARR.: Etxea eta errota. "...cinco bateles de leña: cuatro, desde el molino de dicho Bordaandia acia la costa de Vizcaia, y, un batel, acia la caseria de

Arriaeder” (1763). Pasaiako jurisdikzioan, bertako Lezorako bidean (1779). “...sobre la casa solar de Bordandia con todos sus pertenecidos, dos molinos arineros que tiene en ellos...” (1882).

OHAR LING.: MITXELENak *Borda-aundia* bat ematen du (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 171. zenb.).

BORDAUNDIKO TXARA (S. Juan)

DOK.: *Borda aundico chara* (1882, *Erreg.*, 7. Libur., 136. or. g.).

OHARR.: Lursaila. Puskazarreta baserriko lursailen ondoan iturburu bat sortzen da, “Borda Aundiko chara” izeneko parajea (1882).

OHAR LING.: TXARA ‘jara’; ‘nombre genérico de arbolillo o planta de tallo y ramas leñosas’; ‘jaral, sitio poblado de jaras’ (AZKUE, R. M.: *Diccionario...*, ikus TXARA).

BOY DE JUAN BERNARDO (S. Juan)

DOK.: *Boy de Juan Bernardo* (1822, *Pas. Pro.*, 2.325b Leg., 87. or. a.).

OHARR.: Lursaila. Arrokaundieta eta Eiruko bordaren artean: “...el terreno erial llamado Boy de Juan Bernardo, correspondiente a los propios de esta villa...” (1822).

OHAR LING.: Lehen osagaian, agian, gaskoinerazko BOY ‘Bois; ne s’emploie que pour désigner du bois en morceaux, du bois travaillé et non pour forêt’ (PALAY, S.: *Dictionnaire...*, ikus BOES, BOY).

BUCHICOTE (S. Juan)

DOK.: *Buchicote* (1811, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 31. or. a.); (1811, *Errent. Pro.*, 2.606. Leg., 141. or. g.); *Bochicot* (1812, PAM.: *C Sekz.*, 2. Negoz., 1. Sail., 3. Leg., 1. Exp., 179. or. g.).

OHARR.: Lursaila. Jaizkibel mendian, Juan de Muru baserriaren gainean (1811). Iparraldetik baserriko lurak ditu mugakide; hegoaldetik, herritik Jaizkibelera doan bidea (1811).

OHAR LING.: Lehen osagaian litekeena da gaskoinerazko BOCH, BOSCH ‘formes de bosc, bois, forêt’ izatea. Bigarrenean, eta izenondo gisa agian hemen, cf. *la Torre Chicota* (1680, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 2. Exp., 43. or. g.), bertako dokumentazioan izengoiti modura azaldu zaigun gaskoin jatorriko CHICOT izan genezake: “...querella contra Domingo, hijo de Chicot” (1760, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 3. Leg., 5. Exp., 4. or. a.).

BUENABISTA (S. Juan) (3. eta 4. Mapak)

DOK.: *Buenavista* (1821, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabe); *Buenabista* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bwenábištà]

DESK.: Aintzina, baserria, eta, egun, izen bereko menditxoa. Alabortzako erreka (I.), Eiro (HE.), Puskazarreta (E.) eta (M.)-n duen Arrokaundietaren artean. Bai *Buenabista* eta bai *Buenabistako soroa* toponimoa ere euskal ebakera batez jaso ditugularik, egokia iruditu zaigu hari erantzuten dioten grafiez ematea.

BUENABISTAKO SOROA (S. Juan) (3. eta 4. Mapak)

DOK.: *Buenabistako soroa* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bwenábištakòsoroà]

DESK.: Soroa. Buenabista mendia (I.), Alperiturri (HM.), Puskazarreta (IE.) eta Eiro (E.) mugakide dituen soro zabala.

BUENOSAIRE (S. Pedro)

DOK.: *Buenosaires* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [bwenóšajrès]

DESK.: Kalparra mendiaren gain-gainean. Ikus FRANTXESENEA.

BUYER (S. Pedro)

DOK.: *Buyer*, molino del (1494-1608, DAM.: *B Sekz.*, 1. Negoz., 1. Libur., 2. Exp., 129. or. g.); *Biber*, molinos llamados de (1751, DAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 2. Libur., 1. Exp., 279. or. a.).

OHARR.: Errota. "...de la dicha punta de San Matet al molino del Buyer ay 187 braçadas, aben 561 codos" (1494-1608). "...a la ensenada de Salbeo, que esta enfrente de la casa de San Matet, y desde alli hasta la entrada de la ensenada grande que llega a la Herrera, y entrando en ella, por la misma costa fueron hasta llegar a los molinos llamados de Biber, y, desde alli, a la ensenada que esta en frente de Gomistegui..." (1751). Ematen den deskripzioagatik errota berberaz ari direlakoan, batera jarri ditugu. Araneder baserri aldean azaltzen zaigu *Viver* errota, 1760ko mapan (CRAME, P.: *Plano de la Ría y Puerto de los Pasages y de las poblaciones situadas en su costa según se hallaban en el año de 1760, 1760*).

CAIAROSA (S. Juan)

DOK.: *Caiarosa* (1759, PAM.: *E Sekz.*, 8. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., or. gabe); *Cayarosa* (1771, DAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 3. Libur., 1. Exp., 37. or. g.); *Carayosa* (1784, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabea).

OHARR.: Mendi gaina. Eiru baseritik, Caiarosa gainetik barrena, behera egiten duen bideak Bizkaira jotzen du (1759). "...que tanto la guarnicion, murellas y fortaleza de San Sebastian subsistiran en cuanto no sea ganado el Pasage, para cuya fortificacion artificial, ademas de la natural, es el sitio mas proporcionado el alto de Cayarosa, segun expresion que alega del ingeniero en jefe D. P. Crame" (1771). *Cayarosa* (*Plano de la Ría y Puerto de los Pasages y de las*

poblaciones situadas en su costa según se hallaran en el año de 1760, 1760) eta *Canayosa* esaten zaio, Laplana-tik herri aldera joaz, eta kaletik begiratuta Santa Ana gainean, hegomendebaldera begira dagoen mendi kaskoari, 1788an TOFI-ÑOK egindako mapan (TOFIÑO, V.: *Plano del Puerto de Pasages...*), egun Gaztelutxok behar lukeen tokian.

CAIDEPULLO, EL (S. Juan)

DOK.: *Caidepullo, el* (1844, PAM.: *D Sekz.*, 2. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 1. Exp., or. gabe); *Caidapullo, Caidepullo* (1863, *Erreg.*, 2. Libur., 200. or. a.); *Caidepoyeu* (1870, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabe); *Caidepullo* (1873, *Erreg.*, 5. Libur., 41. or. a.); *Caidipullo* (1888, *Erreg.*, 10. Libur., 247. or. a.).

OHARR.: Parajea. “...Dolores Ansa, de esta vecindad, a V. S. con el debido respeto expone: que a consecuencia de las continuas avenidas de agua llovizna que corren del caño del cementerio de la iglesia parroquial, por la parte septentrional de la misma se les introducen, tanto al zaguán como al almacén de la casa que habitan, todas las aguas que anteriormente se dirigían por el caño del paraje denominado el Caidepullo” (1844). San Juango parrokiaren inguruan dagoen orubea, Escalante bezala ere ezagutua (1863). Parrokiaren ondoan (1873). 86 urteko informatzaileak bere aita zenari aditua dio izena, non zegoen gogoratzen ez dela.

OHAR LING.: Toponimo honi dagokionez, S. MUGICAK haren galde eginez zera erantzuten zion H. GAVELek: “El nombre de Cai y Kai que dan al puerto de San Sebastián es el gascón *cai* o *cay*, que se pronuncia de igual modo y significa *muelle*; equivale al francés *quai*” (MUGICA, J.: “Los gascones..., 20. or.). Bigarren osagaiaren etimoa PŌDIUM hitz latinoa genuke, ‘repisa’, ‘muro grueso que formaba una plataforma alrededor del anfiteatro’. Gaskoinerarako, emaitza hauek ematen dizkigu S. PALAYek, hots, *pujéu, pujò, pujòu* ‘Eminence, petite hauteur, monticule; tumulus’, gaskoinerazko leku eta pertsona-izen hauek damaizkigula: *Pujo, Puyôo, Puyou* (PALAY, S.: *Dictionnaire...*, ikus PUJEU, PUJO, PUJOU).

CALAPIYO (S. Pedro)

DOK.: *Calapiyo* (1879, *Erreg.*, 6. Libur., 35. or. a.).

OHARR.: Parajea. Ematen diren mugengatik urertzean behar lukeena, Salinas etxearen inguruan.

OHAR LING.: Lehen osagaien, agian, CALA ‘ensenada pequeña’ (COROMINAS, J.: *Diccionario...*, ikus CALA). AZKUEK KALA ‘cala, sitio de pesca en mar abierto’ (B, G) ematen digu (AZKUE, R. M.: *Diccionario...*).

CALLE NUEVA (S. Juan)

DOK.: *Calle nueva* (1758, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 55. or. g.).

CANDIA (S. Juan)

DOK.: *Candia* (1751, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 28. or. g.).

OHARR.: Etxea. Madin etxearen ondoan (1751). Badago *Pedro de Candia* izenekorik (*Pas. Kont.*, 1. Libur., 53. or. g.).

CANT DE LA MAR, EL

DOK.: *Cant de la mar, el* (1491-1608, DAM.: *B Sekz.*, 1. Negoz., 1. Libur., 2. Exp., 129. or. g.); *Candelamar* (1814, *Donost. Pro.*, 65. Leg., 433. or. a.).

OHARR.: Altzako partean zegoen itsasertza. "...de la punta de San Matet, agarris que hes de la dicha parte llamado el Cant de la Mar, ay de anchura cien braçadas, que haben 300 codos" (1491-1608). Baserría (1814). Egokia iruditu zaigu lan honetan sartzea, bertako kaia pasaitarrek oso erabilia zelako.

OHAR LING.: Hemen gaskoinerazko CANT 'Côté, bord; coin' (PALAY, S.: *Dictionnaire...*, ikus CANT) izatea litekeena da.

CANTERA, LA (S. Juan)

DOK.: *Cantera, la* (1750, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 55. or. a.).

OHARR.: "...otra porción de tierra trasmochal, tras la Iglesia Parroquial, llamada la Cantera, junto al de Juan de Muru y al de Maria Chipres".

CARASOL (S. Pedro)

DOK.: *Cara sol* (1819, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 10. or. a.).

OHARR.: Baserría (1819).

CARNICERIA (S. Juan)

DOK.: *Carnicería*, plazuela que llaman de la (1675, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 69. or. a.); (1824, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 66. or. g.).

OHARR.: María Cruz de Arizavalo eta María Juan de Buen Tiemporen etxeei alde banatatik mugakide zaien plazatxo (1675). Etxea (1824).

CARNICERIA (S. Pedro)

DOK.: *Carnicería*, casa de la (1765, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 69. or. a.); (1814, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 81. or. a.).

OHARR.: Etxea. Bertako plazatik Sableo-ko astilerorako bidean; aurrekaldetik, astileroa (1814).

CARPIN (S. Juan)

DOK.: *Carpín* (1752, PAM.: *D Sekz.*, 1. Negoz., 1. Leg., 4. Exp., or. gabe).

OHARR.: Etxea (1752).

CATALAN (S. Juan)

DOK.: *Catalan* (1786, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 87. or. a.); *Catalana* (1881, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabe).

OHARR.: Etxea.

CAYARE (S. Juan)

DOK.: *Cayare* (1740, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 74. or. g.).

OHARR.: Etxea. Piedadeko plazan, berak eta ondoan dagoen Palazio etxeak harrizko mailak dituztela (1740).

CODOMASTE (S. Pedro)

DOK.: *Codomaste* (1734, IMA.: *Vargas Ponceren dokumentu bilduma*, III. Tom., 115. Dok.); *Codemasta* (1751, DAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 2. Libur., 1. Exp., 279. or. a.); *Codemaste* (1771, DAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 3. Libur., 1. Exp., 2. or. g. eta ondokoak); *Col del mastel* (1512-1814, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 3. Exp., or. gabe); *Colomaste* (1867, *Erreg.*, 3. Libur., 204. or. a.); *Colomarte* (1913, *Erreg.*, 13. Libur., 186. or. a.).

OHARR.: Senada eta izen bereko kaia. Mendi sakona eta erreka. "Memorial por los directores de la Compañía de Ballenas para que se les dexasse hacer hornos y derritir 180 barricas de chinga en el sitio de Codomaste de Passages, decretado favorablemente por la Ciudad en 29 de Agosto de 1734" (1734). "...y desde alli, dando la buelta por la costa de la vanda de San Sebastian, hasta la ensenada llamada de Codemasta, y desde alli por la mesma costa a la ensenada llamada de Galfarra" (1751). "...como se experimento hacia ya cinco años en el dilatado muelle que por Real Providencia se fabrico para contener las ruinas de Codemaste, en cuyo muelle asegurase hecharon para terraplenarle mas de cien mil quintales de fango" (1771). Colomaste izeneko mendi sakona: ekialdetik, Disparateko lurrak; hegoaldetik, Ostaberdekoak eta bide publikoa; mendebaldetik, Ostaberdeko otadiak; iparraldetik, berriz, Colomasteko erreka (1867). Gerora Ondartxo esango zitzaion honetan ezagutu izan da mende honetan ere saretarako karobirik. Oraindik ere badago bertan karobi zahar baten azterrenik. Ikus ONDARTXO.

COLINA (S. Juan)

DOK.: *Colina* (1867, *Erreg.*, 3. Libur., 49. or. a.).

OHARR.: Parajea (1867).

OHAR LING.: "...del it. *collina* 'colina extensa y algo elevada', derivado de *colle* 'colina' que procede del lat. *CÖLLIS*. Los primeros ejs. pertenecen todos al lenguaje de los militares, quienes lo tomaron en el país de origen, junto con muchos vocablos de introducción contemporánea"(COROMINAS, J.: *Diccionario...*, ikus COLINA).

CONSOLADA (S. Pedro)

DOK.: *Consolada* (1843, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 150. or. a.).

OHARR.: Etxea (1843). Batelarien artean badago *Concholada* esaten diotenik (1801, PAM.: E Sekz., 8. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., or. gabe, *Relaciones del Ayuntamiento con varios. Correspondencia. (Año 1521-1807)*).

CORTES DEL MAR (S. Juan)

DOK.: *Cortes del Mar* (1844, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 164. or. a.).

OHARR.: Etxea: "...señalandose en esta villa las casas llamadas Cortes del Monte y Cortes del Mar, señaladas con los numeros setenta y uno y setenta y dos".

CORTES DEL MONTE (S. Juan)

DOK.: *Cortes del monte* (1844, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 164. or. a.).

OHARR.: Etxea (1844).

CHACON (S. Juan)

DOK.: *Chacon* (1680, PAM.: C Sekz., 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 2. Exp., 46. or. a.).

OHARR.: Etxea (1680).

CHIPRES (S. Juan)

DOK.: *Chipres* (1767, *Pas. Pro.*, 2.303. Leg., 28. or. a.).

OHARR.: Etxea. 1589an: *Josep de Chipres (Parr. Libur. (S. Juan), 1. Libur., 6. or. g.)*.

DISPARATE (S. Pedro) (4. Mapa)

DOK.: *Disparate* (1816, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 52. or. g.); (1881, *Erreg.*, 1. Libur., 149. or. a.); *Dispate* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [díspatè]

DESK.: Zabaldia eta, gerora, izen bereko baserria. *Disparate* esaten zaio, 1760an, mendi kasko eta zabaldi horri; zertxobait gorago, San Pedro aldean ziren eraikuntza militarretako bat: "Parajes en la cumbre del monte en que se colocaron baterias de cañones en tiempo de guerra" (1760, CRAME, P.: *Plano de la Ría y Puerto de los Pasages y de las poblaciones situadas en su costa según se hallaban en el año de 1760*). 1705eko mapa batean, Torre gaineko menditxoan fortifikazio militar bat proiektatu egiten da (1705, FER, N. de: *Plan du port de Passage, en Espagne, située dans la Province de Biscaye, sur L'Océan entre Fontarbie et St. Sebastien*). Juananea zeritzan baserria zegoen tokian; *Disparate* izeneko lursaila (1816).

Ekiialdera begira dagoen zelaia. Torreatze (E.), Kalpargaña eta Platako farola-rako bidea (I.), Elizondo (H-HM.), mugakide.

OHAR LING.: *Dispate* aldakian, beste zenbait toponimotan ikusi den bezalaxe, bokal arteko kontsonantearen suntsitzea ematen da, ondorioz ukipeanean gertatu diren bi *a*-ek bat egiten dutela. Hemen, bestalde, litekeena da izena militar hizkuntzarekin erlazionatua egotea.

DISPARATEALDEA (S. Pedro)

DOK.: *Disparate aldea* (1944, *Erreg.*, 20. Libur., 39. or. a.).

OHARR.: Belardia.

DUGUNEAN (S. Juan)

DOK.: *Dugunean* (1680, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 2. Exp., 64. or. a.).

OHARR.: Etxea. Torre izeneko etxearen ondoan.

DUGUNEGI (S. Juan)

DOK.: *Dugunegi* (1680, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 2. Exp., 4. or. a.).

OHARR.: Etxea: "...un pedazo de tierra o cay, que llaman comunmente, que es dentro del cuerpo del dicho lugar, que linda la una parte a unas casas llamadas de Nicolauchoenea y, por la otra, las llamadas de Dugunegi; por delante, la calle publica".

EGUZKIALDEA (S. Juan)

DOK.: *Eguzkialdia* (1844, *Pas. Pro.*, 2.336. Leg., 301. or. a.).

OHARR.: Soroa. Buenabista baserriaren parte baten errentatzea: Arrokania lursaila, Zelai Txikia eta Eguzkialdia (1844).

OHAR LING.: Bere osagaiak: EGUZKI eta ALDE + artikulua.

EIDO (S. Juan) (3. Mapa)

DOK.: *Eido* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [éido]; [éj̄do]

DESK.: Puskazarretaren iparrekialdean dagoen lursaila. Informatzaileak *Eido* eta *Eiro*-ren artean ezberdintzen du. Seguruenik, EIRO ikusi beharko litzateke hemen, *Eiro*-ren aldaki gisa, besteak beste, *Eidu* ere azaltzen baitzaigu. Ikus EIRO. Puskazarreta (HM.) eta Buenabista (M-HM.), mugakide.

EIDOKO ITURRIA (S. Juan) (3. Mapa)

DOK.: *Eidoko iturriya* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [éj̄dokòituṙiyà]

DESK.: Mitxitxolako hegoaldeko aldaparen behekaldean dagoen iturria. Mitxitxola (I.), Maletarre (E.) eta Eido (HM.), mugakide.

EIRO (S. Juan) (3. eta 4. Mapak)

DOK.: *Eiro* (1630, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 6. or. g.); *Eiru*, borda de (1784, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 3. Exp., or. gabe); *Eidu* (1800, *Pas. Pro.*, 2.316. Leg., 159. or. a.); *Eiru* (1818, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 49. or. g.); (1826, PAM.: *E Sekz.*, 8. Negoz., 2. Sail., 3. Leg., 1. Exp., or. gabe); *Eiro* (1882, *Erreg.*, 7. Libur., 70. or. a.); *Eiro* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [éiro]; [éjro]

DESK.: Hegoekialdera begira dagoen Jaizkibelgo toki garai bateko zabal-di haundia; pinu basotxo bat bertan. Baserria eta izen bereko parajea: hegoalde-tik, Planarako bidea; ekialdetik, Eiru baserria (1818). Mendi gaina (1826). Puskazarretarekin, mugakide (1882).

Puskazarreta (IE.), Buenabista (IM.) eta (M.)-duen Buenabistako soroa-ren artean.

OHAR LING.: Bukaerako bokaletan -o, -u alternantzia dugu: *Eiro*, *Eiru*.

ELIZATARIA (S. Juan) (4. Mapa)

DOK.: *Elizataya* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [elísatáya]; [elísatayà]

DESK.: Eliz aurrean dagoen plazatxoari esaten zaio honela. Lehenago, atarian, aterpe bat zegoen.

OHAR LING.: ATARI 'portal, atrio' (AN-est-lar, B-m-ond, BN-s, G) (AZKUE, R. M.: *Diccionario...*).

ELIZAURREKO PLAIA (S. Pedro)

DOK.: *Eliza aurreko playa* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [élisaàyřekoplayà]

OHARR.: Marea behera zela, eliz aurrean txitxaretan-eta ibiltzen zen tokiari, lohi beltzekoa bera alegia, hala esaten zioten arrantzaleek. Eliz aurre honetan *plai*a maiz jartzen zela adierazten zaigu grafikoki 1760ko mapan ere (CRAME, P.: *Plano de la Ría y Puerto de los Pasages...*, 1760).

OHAR LING.: *Playa*-rako, 'ladera' lehenik, 'costa marítima' gero, zera ematen du COROMINASek: latin berandukoko PLAGĬA. Gainontzeko osagaiak: EL(E)IZA + AURRE + -KO.

ELIZONDO (S. Pedro) (4. Mapa)

DOK.: *Elizondo* (1799, *Pas. Pro.*, 2.315. Leg., 5. or. a.); *Elixondo* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [elíşonđò]; [elíşonđo]

DESK.: Mendi magala. San Pedroko eliza zaharraren ondoan zegoen base-rria: "...para vender la casa de Elizondo... y todos sus pertenecidos sitios en él, y cabezera de la iglesia vieja de San Pedro, que confina por la parte del oriente, medio día y septentrional, con las tierras de Sebastian Gregorio de Garay, y

por la parte del poniente con las de la caseria nombrada Ostaberde" (1799). Egun, baserriaren pareta zaharrak baino gelditzen ez direla, *Elixondo* esaten zaio paraje horri. Kanposantua (M.), Xagastia (IM.) eta Disparate (I-IE.), mugakide.

OHAR LING.: Bere lehen osagaian, EL(E)IZA; bigarrenean, -ONDO 'lado, cerca', ikus *Elizondo* (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 202 eta 491. zenbakiak).

ELORDI (S. Juan) (5. eta 6. Mapak)

DOK.: *Elordi* (1803, PAM.: C Sekz., 2. Negoz., 1. Sail., 4. Leg., 1. Exp., 28. Dok., or. gabe); (1822, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 63. or. a.); *Elordi*; *Elortei* (bakan) (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [elóřđi]; [elořtéj]

DESK.: Mendia. Jaizkibelen, Lete baserriaren behekaldean (1822).

Gaintzabal eta Lete (H-HE.), Akerregiko erreka (IE.), Arrangoko erreka (HM.), Aixtoki (I.) eta Atzabatza (IM.), mugakide.

OHAR LING.: Hemen, ELORRI eta -DI/-TEGI atzizkiak, lehen eta bigarren aldaeran, hurrenez hurren (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 185, 205 eta 554. zenbakiak).

ELORZUN (S. Pedro)

DOK.: *Elorzun* (1846, *Pas. Pro.*, 2.338. Leg., 250. or. g.).

OHARR.: Baserría: "...hipoteca espresamente la casa nueva denominada Jesus, radicante en la unica calle del identico Barrio de San Pedro, confinante por su frente o parte del medio dia con la fabrica de puntas de hierro; por el norte, con propiedad de la caseria de Elorzun conocida hoy con el nombre de Elizondo, perteneciente al relacionante, y, por el poniente, con la casa de Teresa Urruzola".

OHAR LING.: ELORRI + -ZU atzizki ugaritasunezkoa. UNE-ren, *gune*-ren aldaera berau, aldakia den -UN, berriz, *genuke* agian hirugarren osagai.

EPERRARRI (S. Juan) (5. eta 6. Mapak)

DOK.: *Eperrarri* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [epeřáři]

DESK.: Jaizkibel mendiaren iparraldean dagoen harria, lehorretik hegazti itxura har dakiokkeen. Itzalarri (I.), Zunbillondoko erreka (M-IM.), Ondartxabal (HM.) eta Amaotza (E. eta HE.), mugakide.

OHAR LING.: Bere lehen osagaian, agian, EPER 'perdiz' (AN, B, G, R) (AZKUE, R. M.: *Diccionario...*); bigarrenean, (H)ARRI. Hemen, izena harriaren nolakotasunari gehiago begira legoke *lekua*-ri baino. Nolanahi ere, Nafarroako toponimian, eta 'lekua' adieraziaz, ondo ezagunak dira *Epertegua* bezalako toponimoak (ikus J. M. JIMENO JURIO: *Toponimia de la cuenca de Pamplona. Cendea de Olza*, Euskaltzaindia, Onomasticon Vasconiae III, Bilbao 1989, 38. or.).

ERDIKO ARMALLA (S. Juan) (6. Mapa)

DOK.: *Erdiko armalla* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [eɾd̥i̯koaɾmaʎa]

DESK.: Okalar mendiak bere iparraldeko ertzean duen luzerako harrizko maila, iparrekialdetik Beko armalla duela mugakide.

OHAR LING.: ERDI (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 214. zenb.) + -KO. Bigarren osagairako, ikus BEKO ARMALLA.

ERNIOENEA (S. Pedro)

DOK.: *Ernioenea* (1890, *Erreg.*, 2. Libur., 157. or. a.).

OHARR.: Etxea: "Casa de forma trapezoidal, sin número ni letra, radicante en Pasajes de San Pedro, al contacto de la parte sur de la carretera que de dicho término municipal conduce a esta ciudad, denominada Ernio-Enea".

ERREATZE (S. Pedro) (4. Mapa)

DOK.: *Erreatze* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [éɾeacè]

DESK.: Torreatzeko azken etxea dagoen lekuari esaten zitzaion *Erreatze*. Torreatzeko inkestatuak, han saretarako zenbait erreketak egiten zelako izan daitekeela dio. Torre aldekoaren esanetan, berriz, *Erreatze* esaten diote Torreatzeri soil soilik bertan bizi direnek, alegia, Torreatzekoek. Beraiek, berriz, *Torreatze* beti eta inoiz ez *Erreatze*.

ERREDONDA (S. Pedro) (3. Mapa)

DOK.: *Erredonda* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [éɾeðoɳða]

DESK.: Kostatik alde samarrean den itsaspeko arroka. Plata (H.) eta Salto-ko erreka (HM.).

ERREGETXO (S. Juan)

DOK.: *Erreguecho* (1814, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 37. or. g.).

OHARR.: Etxea: "...erreguecho y consortes".

OHAR LING.: ERREGE 'rey' (c) (AZKUE, R. M.: *Diccionario...*, ikus ERREGE) + -TXO atzizkia.

ERREKA (S. Pedro) (4. Mapa)

DOK.: *Erreka* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [eɾéka]

DESK.: Plazatxoa. Garai batean itsas erreka zen bertaraxe jotzen zuen zurrunaburuan. Egun, plazatxoa. Esana dugun bezalaxe, Pasaian *erreka*, ohiz-

ko esannahiaz gainera, *itsaspe* hitzaren parekoa dugu; cf. *erreka* ‘marisma’ (G) (MUGICA, P.: *Diccionario Vasco-Castellano*, Bilbao 1981).

ERREKA (S. Juan) (4. Mapa)

DOK.: *Erreka* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [eřéka]

DESK.: Bertako auzunea. Herriaren iparmendebaldean, Miradorea (H.), Iturrizarra (E.), Kanala (M.), Gaztelua (IM.).

ERREKA KAMENEKOA (S. Juan)

DOK.: *Erreka Kamenekoa* (1913, *Erreg.*, 13. Libur., 247. or. a.).

OHARR.: Etxea (1913).

OHAR LING.: Lehen osagaian, ERREKA.

ERREKAKO TXOKOA (S. Pedro)

DOK.: *Errecaco chocoa* (1871, *Erreg.*, 4. Libur., 95. or. a.); (1890, *Erreg.*, 2. Libur., 25. or. a.).

OHARR.: “Aneder”ko errekaen inguruan (1871). Migelmendin, iparraldetik, Larrabide baserriko lurak; hegoaldeetik, bide publikoa (1890).

OHAR LING.: Bigarren osagaia, ZOKO, lehen kontsonantearen palatalizazioaz.

ERRIALEKO TXOKOA (S. Pedro)

DOK.: *Errialeco chocua* (1839, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 127. or. a.); (1839, PAM.: *Libro de Actas, 1837-1851, Ap-2, 4 or.*).

OHARR.: Parajea. “Venta de terrenos concejiles por el ayuntamiento del Barrio de San Pedro: Errialeco chocua, de doscientas veintinueve posturas y trescientos treinta y un pies cuadrados...” (1839).

OHAR LING.: Hemen, eta Pasaian dagoen joerari eutsiaz, *oa* [ua] egiten da: *txokua*.

ERRIBERA (S. Juan) (5. Mapa)

DOK.: *Erribera* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [eříbera]

DESK.: Zelaia. Iparrekialdera begira, maldan den zelaia. Alde hau guztia *lintzura* dugu, euria egindakoan errez lohitu egiten dena. Kabite (M.), Londres (IE.), Atala (I.)-ren artean.

OHAR LING.: ERRIBERA ‘ribera’ (B, G) (AZKUE, R. M.: *Diccionario...*).

ERROTALEGOR (S. Pedro)

DOK.: *Errotalegor* (1819, PAM.: C Sekz., 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 11. or. a. eta ondokoak).

OHARR.: Baserria.

OHAR LING.: Lehen osagaia, ERROTA; bigarrena, LE(G)OR 'seco' (B. G.) (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 228 eta 404. zenbakiak).

ERROTAZAR (S. Pedro)

DOK.: *Errotazar* (1879, *Erreg.*, 6. Libur., 35. or. a.).

OHARR.: Lursaila. Bere mugakideak: Palaziotxiki, Kanpitoaldea, Trintxer.

OHAR LING.: Osagaiak: ERROTA eta ZA(H)AR.

ERROTAZAR (S. Juan)

DOK.: *Errotazar* (1879, PAM.: C Sekz., 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 12. Exp., or. gabe).

OHARR.: Erreka. "Copia de obligación para ejecutar las obras de construcción del trozo número dos del camino vecinal de Lezo a Pasajes San Juan; ...el pontón en el arroyo de Errotazar hasta la entrada de la calle de esta villa de Pasajes San Juan".

ERROTETA (S. Juan) (4. Mapa)

DOK.: *Erroteta* (1882, *Erreg.*, 7. Libur., 70. or. a.); *Erroteta*, casería (1892, *Erreg.*, 11. Libur., 4. or. a.); *Erroteta* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [eřótetà]; [éřotetà]

DESK.: San Juandik Jaizkibelerako errepidea hartu eta ezkerretan geratzen den baserria, Bordalaborda auzunearen iparrekialdean. Arrarte erreka dator goitik.

OHAR LING.: ERROTA + -ETA.

ERTXIÑARRI (S. Juan) (3. eta 5. Mapak)

DOK.: *Erchinarri* (1821, PAM.: C Sekz., 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabe); *Ertxiñarri* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [eřčĩnarĩ]; [eřčĩnãfi]

DESK.: Itsas aldeko mendia, iparraldeko malkarrean harri zapal-zapala ageri dela. Iñalurretako erreka eta Sanjuanarri (E.), Bonasaitza (HE.) eta Tanbo (M.)-ren artean.

OHAR LING.: (H)ARRI osagaia tartekoa da, antza.

ESCALANTE (S. Juan)

DOK.: *Escalante* (1555, DAM.: B Sekz., 1. Negoz., 1. Libur., 2. Exp., 137.

or.); (1848, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 5. Exp., or. gabe); (1863, *Erreg.*, 2. Libur., 200. or. a.).

OHARR.: Etxe eta orubea. XVI. mendeko dokumentuan, bertako zenbait leku-izen, jaiotetxearen adierazle, izenari itsasirik agertzen dela, “la casa de Mari Lopez de Escalante” dugu. Hurrengo mendean: “...todas las casas que tocan a la sierra y montaña, y a la calle, son acumulables de la dicha villa, Fuenterrabia, excepto las casas de Domingo de Aztegui, dicho Escalante” (1651, DAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 4. Libur., 4. Exp., or. gabe). “Escritura, 22 de diciembre de 1848. Maria Antonia de Lazcano, viuda vecina que fue de esta Poblacion, hizo venta de varios bienes entre los cuales se encuentra un derecho que tiene en los suelos llamados Escalante, frente al cementerio de esta iglesia parroquial... El explicado terreno de Escalante lo vende y enagena para siempre en favor del mencionado Ayuntamiento, siendo su extension de sesenta y seis pies de largo y cincuenta y ocho pies de ancho, medida de Burgos, confinante con la casa y muelle de Alzate; por el norte, con el terreno de Doña Maria Antonia Zurbano, viuda de Monzon, con inclusion de la pared medianil que ambos tienen por su frente y, por ambos extremos, derecho de servidumbre con escaleras de piedra sillar; por medio dia, con la bahia de este puerto y por poniente, con el muelle de la casa principal de los herederos de Iriberry” (1848). “...solar de casa, finca urbana, conocido con el nombre de Escalante o Caidapullo, cerca de la parroquia de San Juan” (1863).

OHAR LING.: J. COROMINASek *escalante*-rako ESCALA ematen du, latinezko SCALA-tik ‘escalón’, ‘escala’, ‘escalera’ (COROMINAS, J.: *Diccionario...*, ikus ESCALA).

ESKALANTEGI (Antxo) (4. Mapa)

DOK.: *Escalantegui* (1766, PAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 1. Leg., 7. Exp., or. gabe).

DESK.: Etxea eta izen bereko kalea, gaur egun: “...la casa llamada de Berra y cercanias de la nombrada Escalantegui”. Informatzaile batek diosku, bere aitonak uretara ematen zuen harrizko eskailera ezagutu zuela etxe honen aurrean.

OHAR LING.: Lehen osagaien, ESCALANTE; bigarreanean, -EGI atzizkia.

ESKORZAENEA (S. Juan)

DOK.: *Ezcorsaenea* (1737, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 72. or. a.); *Escorza* (1765, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 45. or. g.).

OHARR.: Etxea. Piedadeko plaza gainean (1737). “...la casa llamada de Escorza o Ubillos, haciendo cubierto a la calle desde la falda de la montaña de Jazquibel, tirando a la parte de la mar, para donde hace frente, y tiene por ambos costados dos plazuelas... junto a la Basílica o ermita de la Piedad” (1765).

ESNABIDE (S. Pedro) (4. Mapa)

DOK.: *Ernavido* (1881, *Erreg.*, 1. Libur., 216. or. a.); *Ernabido*; *Ernabide*

(1894, PAM.: *D Sekz.*, 1. Negoz., 1. Leg., 3. Exp., or. gabe); *Esnabide* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [ésnabidè]; [esnábidè]

DESK.: San Pedroko sarrerako errepidea. XIX. mendean: “Trozo de camino (viejo), digo vecinal antiguo, de Ernavido a Pasajes San Pedro” (1881). Izena, Donostiatik San Pedrorako bidea hartzen den tokian zegoen baserritik hartua dela dirudi: “Camino ramal de Ernabido a Pasajes San Pedro,... trozo de carretera comprendido entre el empalme en Ernabide y este barrio de San Pedro” (1894). JOSE VARGAS Y PONCEk egindako mugaketa lanetan, *Ernabirao* baserria azaltzen da San Pedrorako bideak behar zukeen lekuan (PAM.: ikus JOSE VARGAS Y PONCEk egindako espediente, 1805eko Abuztuak 29; Pasaiaiko Udalak dituen planoetan, 92-7).

OHAR LING.: Bere lehen osagaian, agian, ARNAU(T) izen propioa; bigarreanean, gaskoinerazko VIDAU. Ikus *Arnabidao* (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 83. zenb.). Ikus bitez baita ere *Arnaud*, *Ernald*, *Arnaut* eta *Vidau*, *Bidau*, *Vidoo*, *Bidoo* gaskoin izenak BERGANTONen lanean (BERGANTON, M. F.: *Le dérivé du nom individuel...*, 179-183 eta 270-271. orr.). *Esnabide* aldaera herri etimologiaren emaitza izan liteke.

ESNAO (S. Juan)

DOK.: *Eснаo* (1733, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 51. or. a.); *Esnau* (1806, PAM.: *E Sekz.*, 8. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., or. gabe).

OHARR.: Etxea. Guillamasa etxearen ondoan (1773).

ESTALLARTE (S. Juan)

DOK.: *Estallarte* (1839, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 128. or. g.).

OHARR.: Errementeria: “...en el paraje llamado Pelayoenea, cerca de la fuente, pegante a la fragua de Estallarte, llamada tambien Pelayoenea”.

ESTRATALDEA (S. Pedro) (4. Mapa)

DOK.: *Estrada aldía* (1871, *Pas. Trans.*, 10. Liburuaren eranskina, 4. or. a.); *Estrata aldía* (1879, *Erreg.*, 6. Libur., 35. or. a.); *Estrata-aldía* (1950, *Amil.*, or. gabe).

OHARR.: Salbiotik gora jotzen zuen galtzada ingurua. Salinasbordako lurretakoa: “...cincuenta posturas labrantías en Estrata-aldía, confinantes al Este, Sur y Oeste con sembrados y manzanos, y, al Norte, con camino público” (1950). *Bide publikoa* edota *bide publiko zaharra* deritzote, eskritura hauetan, Salbiotik gora jotzen zuen garai bateko Donostiarako galtzada zaharrari.

OHAR LING.: MITXELENak *Estrataburua* ematen du, *estrata* ‘vericueto, estrada’ komentatzerakoan (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 232b zenb.). Informatzaileetako batek *estrata* hitza erabiltzen du ‘mendi tartetik ebaki bat eginda izaten den bidea’ adierazteko. Gainontzekoak: ALDE + -A, bertako joerarekin bat, *ea* [ia] egiten delarik.

ETXEBERRI (S. Pedro)

DOK.: *Echeberri* (1819, PAM.: C Sekz., 5. Negoz., 2. Sail., 1. Leg., 10. or. a.).
OHARR.: Baserria (1819).

ETXEONDOKO SOROA (S. Pedro)

DOK.: *Echeondoco sorua* (1887, *Pas. Trans.*, 10. Libur., 488. zenb.);
Echeondoco soroa (1890, *Erreg.*, 2. Libur., 85. or. a.).
OHARR.: Lursaila. *Zabala* eta *Etxeondoko sorua* deritzotena.
OHAR LING.: Bere osagaiak: ETXE, ONDO + -KO; eta SORO + -A
artikulua, hemen ere *oa* [ua] egiten dela.

ETXETXIKI (S. Pedro) (4. Mapa)

DOK.: *Echechiqui* (1821, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 59. or. g.); *Etxetxiki* (Ahoz.
Trad.).
HERR. EBAK.: [ečėčiki]; [ečėčiki]
DESK.: Baserria. Salbio gainean dagoen baserria, "Pioenea" bezala ere
ezagutu izan dena. Hemendik pasatzen zen herribidea. Alegia, Salbiotik,
"Pioenia"n barrena, mendi aldera jotzen zuen herribideak.
OHAR LING.: ETXE + TXIKI.


EUKIMALDA (S. Juan) (6. Mapa)


DOK.: *Euzkimalda* (Ahoz. Trad.).
HERR. EBAK.: [éuskimaɫdà]
DESK.: Ezkue mendiaren mendebaldeko malda. Egutera harritsua. Ezkue
(IE.), Zapelari (I.), Ursalto (E.), Letetxiki (HM.) eta Urgaizto (M.)-ren artean.
OHAR LING.: Hemen litekeena da lehen osagaia EGUZKI izatea, noiz
eta toponimoa *Ezkue* mendi-izenarekin erlazionaturik ez dagoen. Idatzizko
dokumenturik ezean, bere horretan utzi dugu. MALDA (ANc, BNc, Gc, Lc)
(AZKUE, R. M.: *Diccionario...*, ikus MALDA).

EZKUE (S. Juan) (6. Mapa)

DOK.: *Ezcué* (1788, *Pas. Pro.*, 2.312. Leg., 91. or. a.); *Azcue* (1812, PAM.:
C Sekz., 2. Negoz., 1. Sail., 3. Leg., 1. Exp., 179. or. g.); *Escue* (1813, *Pas. Kont.*,
2. Libur., 36. or. g.); *Escube* (1892, *Erreg.*, 11. Libur., 159. or. a.); *Exku* (Ahoz.
Trad.).
HERR. EBAK.: [éškù]
DESK.: Pasaia aldeko Jaizkibel mendiaren hegoekialdean dagoen mendia,
gain-gainean haitza duela. "Venta de una porcion de leña en el monte de
Jaizkibel... en los sitios nombrados Gaztarroz, Lugorri, los dos Letes, Aque-
rregui, Ezcué y Artola, que son en jurisdicion de esta villa" (1788). Iralekua
(1892). Aierru (HE.), Zabordiko erreka (I.) eta Artola (IE.)-ren artean.
OHAR LING.: Hemen, ziurrenik, (H)AITZ osagaia dugu tarteko, bere

4. Mapa: PASAIAKO PORTUALDEA





aldaeren artean MITXELENAk ez-, es- ematen dizkigularik (MICHELENA, L.: *Apellidos...*, 21. zenb.).

EZKURRETXEA (S. Juan)

DOK.: *Escurrecha* (1778, *Pas. Pro.*, 2.310. Leg., 183. or. a.); *Ezcurrechea* (1787, *Pas. Pro.*, 2.311. Leg., 31. or. a.); *Ezcurrechea* (1892, *Erreg.*, 11. Libur., 205. or. a.).

OHARR.: Etxea. Papin plazatzxoan, "Carnicería"ren aurrean (1787). Portzelana fabrikaren ondoan (1892). Badago Juan José de Ezkurra izenekorik (*Pas. Pro.*, 2.312. Leg., 31. or. a.).

EZPELETA (S. Juan)

DOK.: *Ezpeleta* (1750, *Pas. Kont.*, 1. Libur., 19. or. g.).

OHARR.: Etxea. Badago "Piloto Esteban de Ezpeleta" izenekorik (*Pas. Kont.*, 1. Libur., 15. or. a.).

FALCONERA (Pasaia)

DOK.: Arendo e *Falconera* (1456, 1533ko trasladoa, EAM.: *C Sekz.*, 5. Negoz., 1. Sail., 1. Libur., 1. Exp., 6. or. g.).

OHARR.: Haitzak: "...dixieron que entre el conçejo de la villa de San Sebastian, de la una parte, y entre el dicho conçejo de la dicha Villa Nueva, de la otra, avia avido y estavan contiendas a presente e quistiones sobre la jurediçion e juggado de sobre el puerto e agua e canal de Oyarçun, dicho Pasaje, que fue y es de la dicha Villa Nueva toda la dicha agoa e puerto e canal desde la mar alta que entra y es su entrada por entre las pennas dicha de Arendo e Falconera; que desde la penna de Aya, que nasçe el rio agua mayor e salle y entra a la dicha mar por entre las dichas pennas...".

OHAR LING.: Horra JIMENO JURIOk Tafallarako ematen digun *Falconera* toponimoa, latin berandukoko FALCO, -ÖNIS-etik, 'lugar donde se guardan y tienen los halcones' (JIMENO JURIO, J. M.: *Toponimia histórico-etnográfica...*, 108. or.).

FAROLAKO BIDEA (S. Pedro) (3. eta 4. Mapak)

DOK.: *Farolako bidia* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [fárolakòbidia]

DESK.: Gurutzetik beheko farolan barrenako bidea.

FELIPUN (S. Juan)

DOK.: *Felipun* (1786, *Pas. Pro.*, 2.311. Leg., 56. or. a.).

OHARR.: Etxea. Bonanza Basilikaren ondoan (1786).

FERMIÑEN KASKOA (S. Pedro) (3. eta 4. Mapak)

DOK.: *Fermiñen kaskua; Fermiñen kaskua* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [fermiñenkaškuà]; [fermiñenkaškuà]

DESK.: San Pedroko fuertetik ekialdera joaz, bertan den mendi kaskoa. 79 urteko informatzaileak dioenez, delako Fermín hori bera baino 20 urtez zaharragoko ehiztari famatua zen, berak ezagutu eta beti ehizatoki horretan aritzen zena. Fuertea (M.), Sorginarri (E.) eta (H.)-n duen Sorginmaldaren artean.

OHAR LING.: Bigarren osagaia, KASKO ‘punta, vértice, cúspide’ (AN, BN-s, G-and, L-ain) (AZKUE, R. M.: *Diccionario...*, ikus KASKO) gehi artikulua.

FRAILEA (S. Juan) (3. Mapa)

DOK.: *Frailia* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [fráilìa]

DESK.: Itsas ondoko zutikako arroka, arrantzale jendeak giza itxura hartu izan diona. Arandoaundian, Talaia (E-HE.) eta Alabortza (HE.).

FRAILE, DEL (S. Juan)

DOK.: *Fraille*, casa llamada *del* (1863, *Erreg.*, 2. Libur., 124. or. a.).

FRAILENEKO GOIA (S. Pedro)

DOK.: *Fraileneco goya* (1843, *Pas. Kont.*, 2. Libur., 150. or. a.).

OHARR.: Enbarkaderoa. Trancaenea etxea ekialdetik zaion Anitaren echea-ren mendebaldean; hegoalde, erreka eta, iparralde, kale bakarra (1843). XVIII. mendetik aurrera, Errenteriako Kaputxinotako fraileen mezaemateak San Pedron, lehenago inguruko herri askotan bezalaxe, ugari dira. Joan-etorria txalupaz egiten zuten Pasaiairaino, zenbaitetan ostatu hartzen zutelarik bertan (AZCONA, T. de: *Capuchinos...*, 117. or.).

OHAR LING.: FRAILE + -ENEA, kasu honetan artikulurik gabe, + -KO. Horrekin batera, GOI ‘altura’ (AN, B, G), ‘alto’ (AN?, B?, G?, Añ) (AZKUE, R. M.: *Diccionario...*) + -A. Baliteke, hemen, *Goia* arrantzale hizkerarekin erlacionatua egotea.

FRANTXESENEA (S. Pedro) (4. Mapa)

DOK.: *Frantxesenia; Frantxesenea; Frantxesania* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [frančesenía]; [frančesenéa]; [frančésaenià]

DESK.: Baserria. Kalparrako kasko-kaskotik metro gutxi batzutara, mendebalde, zegoen baserria. *Euzkitxuri* eta *Frantxes* esaten zioten “Frantzia”tik ihes eginda bertan jarri zen familiaren aitari. Egun, oraindik ere, zutik diraite haizete beltzean teilatua eraman zion baserriko pareta zaharrek. *Buenosaires* ere esaten zioten baserri honi.

OHAR LING.: FRANTXES izengoitia + -ENEA.

FRANTXESENEA (S. Juan) (5. Mapa)

DOK.: *Frantxesenia*; *Frantxesania* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [fřančesenia]; [fřančesania]

DESK.: Malda. Paraje harritsua. Pelotatxoko (I.), Mugiter (HM.), Mendi-txiki (M.) eta Izaskona (E.), mugakide.

FUERTEA (S. Pedro) (3. eta 4. Mapak)

DOK.: *Fuertia*; *Fuertezarra* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [fwértia]; [fwértesarà]

DESK.: San Pedroko lekurik gorenean dagoen fuertea. Ezagutu izan da herritik abiatu eta, baserri guztietatik hartutako janari zein edariz zamatutako astoak beraiekin zituztela, bertan urtero erromeriarik egindako garairik. Migel-mendi (H.), Fermiñen kaskoa eta Sorginarri (E.), Sorginmalda (HE.), mugakide.

FUERTEA (S. Juan) (3. eta 4. Mapak)

DOK.: *Fuertia* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [fwértia]

DESK.: "Mi estimado amigo: Como se va concluyendo ya la casa cuartel de la fortificacion de Lord John, en las alturas de Pasajes de Francia, y que se necesitan muchas vigas de V. para su techo y demas ringlones, y no habiendo en esta plaza ni siquiera lo suficiente para acabar el puente, no sería malo averiguar las casas arruinadas de Pasajes, y mas pricipalmente las pertenecientes a los carlistas, para proceder a su demolicion y recojer las maderas que tanta falta estan haciendo..." (1836, PAM.: *E Sekz.*, 8. Negoz., 2. Sail., 3. Leg., 1. Exp., orr. gabe). Mendi gainean, Mozpela (IE.), Arrokaundieta baserria (E.) eta Joakinen sagardia (H.)-ren artean.

FUERTEATZEA (S. Juan) (3. eta 4. Mapak)

DOK.: *Fuerteatzia* (Ahoz. Trad.).

HERR. EBAK.: [fwérteacia]

DESK.: San Juango mendebaldean dagoen mendigaina. Fuerte (E.) eta Gaztelugaña (M.)-ren artean. Toki harritsua. Otadia.

OHAR LING.: ATZE 'trás, parte posterior' (AN-lar, B, G) (AZKUE, R. M.: *Diccionario...*, ikus ATZE) + -A.

FUERTETXIKI (S. Pedro)

DOK.: *Fuerte chiqui* (1873, *Erreg.*, 5. Libur., 215. or. a.); (1890, *Erreg.*, 2. Libur., 72. or. a.).

